


EGAN



2024 - 3/4

EGAN



LITERATURA ALDIZKARIA
EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ORAIN
GIPUZKOA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
lagundutako aldizkaria

Idazkaritza eta harpidetzak:
Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea. Gipuzkoako Saila.

Peña y Goñi 5, 2. ezk. – 3.263 posta-kutxa – 20002 Donostia

Posta elektronikoak: egan.bascongada@gmail.com
comisiongipuzkoa@bascongada.e.telefonica.net

Webgunea: <https://www.rsbap.org/ojs/index.php/egan>

ISSN: 0422 - 7328. EGAN

Legezko Gordailua: S.S. 289/1958

Inprimategia: FASPRINT-IGARA -Donostia

Egan literatura aldizkaria da, eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek 1948. urtetik argitaratzen du. 1953. urtean hasi zen euskara hutsez argitaratzen, Antonio Arruek, Aingeru Irigaraik eta Koldo Mitxelenak aldizkariaren zuzendaritza hartu zutenean. Ordutik *Egan* euskara hutsezko aldizkaria da. Seihilabetekaria.

Egan aldizkariaren aro berriko xede nagusia literatura arloko ikerketa-artikuluak argitaratzea da. Sail horretan aldizkariak leku egin nahi die saiakera eiteko idazlanei ere. Orobat argitara emango dira literaturaz diharduten liburuen aipamenak. Beste diziplina bati atxikiak izan arren, literaturarekin ageriko lotura izan dezaketen lanak ere aintzat hartuko dira. Literatura azterketen lerroa ez ezik sorkuntzarena ere zabalik du *Eganek*, eta poesia, narrazio laburrak eta itzulpenak biltzen ditu, aldizkariaren ibilbideari jarraituz.

Ikerketa-artikuluak argitaratzeko, binakako ebaluazio sistema (itsu bikoitza) erabiliko da, eta kanpoko bi aditu izango dira aztertzaile.

Artikuluen gaineko erantzukizun osoa egileena da.

Egan aldizkaria honako zerrenda, aurkibide eta datu-base hauetan dago: Aurkinet-Euskaldok; Dialnet; Euskal ondare bibliografiko digitalizatua; ÍNDICES-CSIC; Inguma, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basea; LATINDEX (2.0 Katalogoa. 2018-); MIAR; REBIUN; ROAD, Directory of Open Access scholarly resources; SUDOC; WorldCat.

Webgunea: <https://www.rsbap.org/ojs/index.php/egan>

EGAN LITERATURA ALDIZKARIA

ZUZENDARIA

KORO SEGUROLA AZKONOBETA

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea

ERREDAKZIO ARDURADUNA

IZARO ARROITA AZKARATE

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

ERREDAKZIO KONTSEILUA

ANE ARRASTOA VILLAGRAN

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

IZARO ARROITA AZKARATE

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

AMAIA ELIZALDE ESTENAGA

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

JOSEBA SARRIONANDIA URIBELARREA

Idazlea

JUAN LUIS ZABALA ARTETXE

Idazlea. Itzultzailea

BATZORDE ZIENTIFIKOA

IÑAKI ALDEKOA

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

AMAIA ALVAREZ URIA

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

LARRAITZ ARIZNABARRETA

Center for Basque Studies. University
of Nevada, Reno

AURELIA ARKOTXA

PU émérite UBM. UMR 5478 Iker,
Baiona & Équipe *Multilinguisme,*
Traduction, Création. Paris

MIKEL AYERBE

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

JOSU BIJUESCA

Deustuko Unibertsitatea

JON CASENAVE

Bordeaux-Montaigne Unibertsitatea

IBON EGAÑA ETXEBERRIA

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

XABIER ETXANIZ ERLE

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU.

ESTIBALITZ EZKERRA VEGAS

Arizona State University

ALEX GURRUTXAGA MUXIKA

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

JOSE MANUEL LÓPEZ GASENI

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

GORKA MERCERO ALTZUGARAI

University of Liverpool

MARI JOSE OLAZIREGI

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

BEÑAT SARASOLA SANTAMARIA

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

AURKIBIDEA

2024 3/4

Haizea SALEGI PRIETO. Errotulagailutik ur-margorako ibilbidea: Maite Mutuberria ilustratzailearen lanen azterketa	7
Jone MAKAZAGA. Latinezko poesia bertsoan euskaratu eta musikatzeari buruzko gogoeta	47
Edurne GARDE MARTINEZ. Alexander Tapia Perurenaren <i>Kattalin Umezurtza</i> antzezlanaren azterketa	83

IKERMATERIALAK

Josu JIMENEZ MAIA. Joxemiel Bidador poesia taldea: hobe kandela bat piztea iluntasuna madarikatzea baino	113
---	-----

SORTZE LANAK

Poesia

Elena OLAVE DUÑABEITIA. Pozik!	123
Ane ZUBELDIA MAGRIÑÁ. Gorputz bigunak igerilekuan	129

Itzulpenak

Anne CARSON. Kristalezko saiakera Euskaratzailea: Izaskun ETXEBESTE ZUBIZARRETA	135
Amrita PRITAM. Ordu eta erdiko hitzordua Euskaratzailea: Aiora ENPARANTZA ARMENTIA	175
Idazlanak aurkezteko jarraibideak	183

**Errotulagailutik ur-margorako ibilbidea:
Maite Mutuberria ilustratzailearen
lanen azterketa**

*The career from felt-tip pen to watercolor:
Maite Mutuberria illustrators works study*

Haizea SALEGI PRIETO*

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco

Jasotze data: 2023.10.31 Onartze data: 2023.12.15

* Eskerrik beroenak Eider Rodriguez eta Izaro Arroitari.

LABURPENA

Literaturak alde guztietatik inguratzen gaituen gizarte batean bizi gara. Hori horrela izatearen kontzientzia, ordea, ez dago gizartea osatzen dugun pertsona ororen burutan. Horregatik, literaturari ez zaio funtzio sozial zehatzik ematen, entretenitzeko eta plazererako balioa soilik esleitzen zaio. Edonola ere, literatura ezinbestekoa da kritikotasuna garatzeko, pertsona bezala hobeak izateko balio digu. Ilustrazioak ere literaturaren parte izanik, irakurlea testutik haratago eramateko duten gaitasunagatik aipagarria da album eta liburu ilustratuek esku-ratu duten garrantzia. Hori horrela, lan honetan Maite Mutuberria ilustratzailearen zenbait obraren azterketa egin da, bere ibilbidea ezagutzeaz gain, aipatutako ilustrazioen gaitasuna eta garrantzia antzemateko.

Gako-hitzak: Haur eta Gazte Literatura; albuma; ilustrazioa; kolorearen erabiler-a.

ABSTRACT

We live in a society in which literature surrounds us everywhere. But the awareness that this is so is not in the minds of all the people who make up society. That is why literature is not given a specific social function, it is only assigned value for entertainment and pleasure. In any case, literature is essential to develop critical thinking, it helps us to be better people. Illustrations are also part of literature, because of their ability to take the reader beyond the text, the importance that albums and illustrated books have acquired is remarkable. Thus, in the following work, an analysis of some of the works of the illustrator Maite Mutuberria has been carried out, in order to know her career and recognize the capacity and importance of the mentioned illustrations.

Keywords: Children's and young literature; album; illustration; use of color.

1. Sarrera. 2. Haur eta Gazte Literatura, ilustrazioak eta albuma. 3. Nola aztertu dira Maite Mutuberiaren lanak? 4. Maite Mutuberia ilustratzailearen lanen azterketa. 5. Ondorioak. 6. Bibliografia.

1. Sarrera

Egungo Haur eta Gazte Literaturan gero eta nabarmenagoa da album ilustratuen presentzia, baina horiek hautatzerako orduan ezinbestekoa da egokiak direnetera jotzea, albumen bitartez jasotzen eta ulertzen baitute hurrek egungo errealitatea.

Liburu bat hitzez edota ilustrazioz osatutako orri sorta bat baino gehiago da, beste mundu batera bidaiatzeko ate magiko bat. Mundu hori, ordea, gure errealitateak osatzen duena izan daiteke edo gure baitan gordetzen dugun beste bat. Batzuentzat errealitatetik ihes egiteko tresna izan daiteke, baina Rodriguezentzat (2022), literatura ez da mundutik ihes egiteko modu bat, munduan egoteko modu bat baizik.

Irakurtzea gizakiaren behar bat da, amets, barre edo jolas egitea bezala. Gozamenerako, kontsolamendurako, laguntasunerako, bakoitzak bere burua ezagutzeko. Txikitan, irakurtzea grina bihurtzen bada, gure bizitzako gorabehera ugarien jarduera paralelo bihurtzen da. Literaturak, pertsona bezala, hobia izateko balio du. Irakurtzea, laguntza bat dateke zer garen jakiteko eta garena berresteko. Eta amesteko (Mariasun Landa, 2003). Literatura, funtsean, bakardadea da. Bakardadean idazten da, bakardadean irakurtzen da eta, hala eta guztiz ere, irakurketak gizakien arteko komunikazio sakona ahalbidetzen du (Auster, P., hemen aipatua: Equipo Peonza, 2001).

Colomerren hitzetan (2010) badago, beraz, literaturaren beharra egungo gizartean. Liburuak haurren bizitzaren parte izatera pasako dira, baldin eta hurrek uste badute ingurunearekin partekatutako komunikazio-modu bat direla. Horregatik, ezinbestekoa da hurrei txikiak diren etik literaturarekin harremantzeko aukerak eskaintzea. Izan ere, kalitatezko literaturak haurrari bere izate globala eraikitzen laguntzen dio,

album ilustratuek haurren bihotzari eragiten diotelarik arrazonamen-
duari baino gehiago.

Uste dena baino gehiago behar dugu literatura bizitzeko, baina behar baino garrantzi gutxiago ematen zaio gaur egungo gizartean. Horregatik, bat gatoz Apalategik (2011) sistemak ez duela gizarte kritiko bat behar eta, beraz, literaturari ez zaiola funtzio sozial zehatzik ematen, entrete-
nitzeko eta plazererako balioa bakarrik esleitzen zaiola adierazten due-
nean. Baina badu oraindik balio sozial bat eta merezi du serioски irakatsia izatea, hots, gizartean mugitzeko eta hiritar ideala izateko beharrezko den jakintza gisa da, eta ez aisialdirako plazer iturri soil gisa.

Kontuak kontu, Maite Mutuberria ilustratzailearen eskutik sortutako hainbat lanen azterketa biltzen du artikulu honek. Zehazki Haur eta Gazte Literatura saileko 20 lan aztertu dira, Mutuberria ilustratzailearen lanetan sakondu eta bere obren ezaugarriak eta denboran zehar izan duen garapena ezagutu eta ezagutarazteko¹.

2. Haur eta Gazte Literatura, ilustrazioak eta albuma

Existitzen al da Haur eta Gazte Literatura? Hori da sarri eztabaidatu eta ikertu den galderetako bat. Zaila da haur eta gazte literaturaren esparrua mugatzea, edo gaur egun haur eta gazte literatura horren barruan sartzen duguna zehaztea. Haur eta Gazte Literatura ez da soilik haurrek edo gazteek irakurtzen, ulertzen eta disfrutatzen duten literatura; beraien ere irakurri, ulertu eta goza dezaketena baizik (Auden, 1974, hemen aipatua: Etxaniz, 1997b). Zubeldiaren (2006) arabera, baina, gerta daiteke haurrentzat edo gazteentzat idatzitako liburu batzuk helduentzat ere interesgarri izatea edo alderantziz, baina helduentzat idatzi den liburua ezin da derrigorrez umeentzat ere egokia eta interesgarria izan, ezta umeentzat idatzitakoa helduentzat ere. Haurrentzat idazten denean, normalean klabe berezi batean idazten da, irakurlearen adina eta istorioa jasotzeko duen ahalmena gogoan hartuz.

Antzeko ideia defendatuz, Juaristik (1993) helduen eta gazteen literatura bi mundu diferente direla eta bata bestearekin ez duela zerikusirik adierazten du. Hala ere, garrantzitsuena zerbait kontatzea dela eta horretarako modua bigarren mailako kontua dela azpimarratzen du (Juaristi, 1993, hemen aipatua: Etxaniz, 1997b). Literatura, adinaren araberrako bi

[1] Maite Mutuberriaren garapena ezagutzeko, 2013tik 2021era arte egindako lanak aztertu dira.

mundu ezberdinetan banatuta, haurrentzako idazten dena literatura izango bada, hau da, litteraz osatutako ura, magikoa, estetikoa, ulergarria eta erakargarria izango da. Orduan izango da benetako edabe. Horretaz gain, fantasia, umorea, ironia, misterioa, lilura eta xarma baldin badauzka, orduan koktel literario ezin hobearen aurrean aurkituko gara, dudarik gabe (Zubeldia, 2006).

Haur eta Gazte Literatura zer den zehazteko nahi honetan, aipatzekoa da Iturralde (1993) luzatzen digun definizioaren sinpletasuna: "Literatura ona bada, kalitatezkoa, ez du adinik" (Iturralde, 1933, hemen aipatua: Etxaniz, 1997b). Gakoa, kalitatean dago, gainerako guztiak ez digu balioko Haur eta Gazte Literatura zer den definitzeko.

Aurreko definizio posibleak irakurrita, ondorengo galdera bururatu dakioket irakurle prestuari: noiz sortu zen Haur eta Gazte literaturaren kontzeptua? Gaur egungo haur eta gazteei zuzendutako literatura aukera anitza, XVII. mendean sortzen hasi ziren lanei zor diegu, garai hartan idatzi baitziren haurrentzako lehen liburuak.

John Cottonek 1641 eta 1645 bitartean argitaratu zuen lehenengo haur liburua: *Milk for babes*. Hala ere, berrikuntza handiena, haurrentzako liburu batean ilustrazioari ematen zaion trataeragatik, 1658an Johan Amos Comeniusek idatzitako *Orbis pictus* liburuarekin etorri zen. 1668an, Jean de La Fontaineren *Fables* argitaratu zen. Alegia ez zuen La Fontainek asmatu, baina berpiztu egin zuen bere bildumaren bidez, Indiako alegiak arabiarren bidez iritsi baitziren Europara. 1697an, maitagarrien ipuinen moda zabaldu zen aristokraten artean, eta Charles Perraulten *Les Contes de ma Mere L'Oye* liburua argitaratu zen. 1717an, Antoine Galland politikari eta orientalista frantsesak arabiar herri tradizioeko altxor handienetakoa ekarri zuen Europara: Mila gau eta bat gehiago. Xerazadek kontaturiko ipuinen artean aurkitzen dira, gaur egun haur eta gazte literaturan klasikotzat hartzen diren Ali Baba, Sinbad edota, Aladin, esaterako.

XIX. mendeak aldaketa handiak ekarri zituen, eta Euskal Herrian ere mende horretan etorri zitzaizkigun haurrentzako lehenengo liburuak. 1804an Bizenta Mogelek *Ipui onac*, euskaraz haurrentzat idatzitako lehen literatura-liburu didaktikoa argitaratu zuen antzinatik zetorren alegien zaletasun eta irakatsi nahi horren ildotik (Etxaniz, 1997a). Euskararen irakaskuntzan egiten ari ziren ahaleginaren adibide dira 1907tik aurrera López de Mendizábal editoreak argitaratu zituen liburuak, horien artean, *Xabierto* (1925). Haurrei eskainitako literatura, gehienbat, didaktikoa zenez, morala eta ideologia zabaltzeko, *Nekane edo Neskutzaren babesa* (1922)

ere plazaratu zuen, Tene Mujika idazlearen haurrentzako lehen lan dramatikoa (Olaziregi, 2005).

Euskal Haur eta Gazte Literaturak aro garaikidean historia laburra duela esan daiteke. XX. mendean, Francoren diktadura-aldian euskal kulturak eta euskarak jasandako jazarpenaren ondorioz, hezkuntza sistema guztiz erdaldunduta baitzegoen Hego Euskal Herrian.

1980ko hamarkadan Haur Literatura modernoa plazaratu zen, eta ekoizpenari dagokionez gorakada nabarmena izan zuen. Hurrengo hamarkadan, aldiz, euskal Haur eta Gazte Literaturaren sistema osatu zen (Etxaniz eta López, 2011). Idazleek idazteagatik, sortzearen plazer edo beharregatik ere idazten zuten, noski; hain zuzen, hezkuntzaren beharretatik askeago sentitu zen unean, literatura airatu eta beste eremu batzuetara ere loratzen hasi zen, eta Bernardo Atxaga bezalako belaunaldi berriak iritsi ziren. Horrela, 1990. urtean Galtzagorri elkarteak sortu zen, haur eta gazteen irakurzaletasuna bultzatu eta euskarazko haur eta gazte literatura sustatu eta ezagutarazteko (Arroitajauregi, 2012).

2.1. Albumaren kontzeptua eta bilakaera

Idatzitako liburuak osatzeko, ilustratzaileek ere egindako lana ez genuke ahaztu behar. Idazle eta ilustratzaileen lanak elkartzean, albuma deritzogun ipuinak sortzen direlako. “Ilustrazioak harantzago eramane behar du testua, ez dago testuaren mendean. Testuak, era berean, honantzago ekarri behar du marrazkia. Biak banaezinak direnean, orduan da albuma” (Sagastume, 2008, hemen aipatua: Etxaniz eta López, 2011). Esperimentazio-maila handia duen generoa da, eta, beraz, eboluzioa eta aldaketak ditu ezaugarri. Genero konplexua da, idiosinkrasia berezi eta zabalagatik, eta, beraz, definizioak aldatu egin daitezke erabilitako ikuspegiaren arabera: publiko hartzailea, berezitasun estetikoak, berezitasun literarioak, erabilitako kodeak eta haien arteko erlazioa, euskarri materiala, etab. (Larragueta, 2021).

Liburu itxurako objektu kultural gisa ulertzen da albuma Lewisen (2001) arabera, elkarreaginean dauden lengoia bisualaren eta testualaren arteko esperimentazioaren ondorio dena eta bilakaera kultural, sozial, teknologiko eta artistikoaren lekuko ere badena (Galarraga eta Alonso, 2018).

1960ko hamarkadan argitaratu ziren lehen albumak. Testuaren eta irudiaren irakurketaren emaitza dugu albuma, kode biak, irudizkoa eta

idatzizkoa, interpretatu behar dira mezua harrapatzeko (Etxaniz eta López, 2011). Jan Amós Komensky monje eta pedagogoak 1658an *Orbis sensualium pictus* entziklopedia argitaratu zuen Alemanian. Entziklopedia hori lau hizkuntzatan argitaratu zen, eta irudia beharrezkotzat jotzen zen haurren arreta bereganatu eta atseginez irakasteko. John Newbery-k haur literaturaren ikuskeran izandako aldaketekiko interesa agertu zuen, eta 1744an haurren argitalpen-merkatuaren ikuskeran aldaketa bat eragin zuen *A Little Pretty Pocket-Book* argitaratu zuen. Album ilustratuaren sorrera estuki lotuta dago orrialdearen, testuaren eta irudiaren arteko harremanaren eta ilustrazioaren kontzepzio berria ahalbidetu zuten inprimatzeko teknika eta metodoen aurrerapenarekin. Hainbat bilakaera teknologiko behar izan ziren artistek eta editoreek konplexutasunean eta, aldi berean, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak ziren irudi mota berriak esploratu eta planteatu ahal izateko (Larragueta, 2021).

Jean de Brunhoff-ek mugarri bat ezarri zuen albumaren garapenean, 1931n Frantzia argitaratu zuen *Histoire de Babar, le petit éléphant*-ekin. 1962an garrantzi handiko beste izenburu bat plazaratu zen, *Little Blue and Little Yellow*, Leo Lionni-ren eskutik. 1963an, Maurice Sendakek *Where the Wild Things Are* albuma publikatu zuen. Orrien maketazioa eta diseinua mezuaren eraikuntzaren parte ziren.

1990eko hamarkadaren amaieran, aldaketa bat etorri zen gure letretara, Kalandraka argitaletxe galziarrak beren albumak euskaraz ere argitaratzeari ekin ziotenean. Urte gutxitan, dozena pare bat liburu argitaratu zituen euskaraz, horien artean *Piztiak bizi diren lekuan* edota *Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo*.

Argitaletxe batzuek —Ttartalo, kasu— jarraitu izan dute lehendik abiatutako bidean. Izan ere, argitaletxeko ezaugarrietariko bat dugu liburu solteen aldeko apustua kalitatezko liburuak euskaratzean euskal merkaturia osatzeko. Gauza bera esan genezake Ibaizabal etxeari buruz, nahiz eta kasu honetan Edelvives argitaletxeak gaztelaniaz argitaraturiko liburuaren artean egin bere hautaketa (Etxaniz eta López, 2011).

Urte batzuetan geldialdi labur bat izan ondoren, 2007. urtean Kalandrakak eta Pamielak akordio bat egin zuten argitaletxe galziarraren liburuak Euskal Herrian komertzializatzeko eta baita Pamielak plazaratzen zuen Etxepare sariaren lana Kalandrakak beste hizkuntza batzuetara argitaratzeko. Gertakari horrek bidea ireki zien euskaraz sorturiko albumei (Etxaniz eta López, 2011). Etxepare sari horrek euskal sortzaileak animatu ditu, eta azken urteotan, merkatuak eskatuta, bestelako argitaletxeak

ere hasi dira haurrentzako albumak argitaratzen. Albumak ia-ia ez izate-
tik gure zenbait idazle eta ilustratzaileen lanak euskaraz ez ezik beste
hainbat hizkuntzatan ere ikusi ahal ditugu gaur egun (Etxaniz eta López,
2011). Aldaketa nabarmena ipuin bat izate-
tik album izatera pasatzean
gertatu da. Istorioak antzekoak izan daitezke, baina kontatzeko modua
aldatu da, albumak bere espazioa irabazi baitu euskal haur literaturan.

Ilustratzaileak gero eta garrantzitsuagoak bilakatu dira eta beraien
lana gero eta beharrezkoagoa da album eta liburu ilustratu-
etan. Azken hamarkadan koloretako ilustrazio ugari dituzten liburuak nabarmen
areagotu dira, albumak ez izanik ere, testua eta irudia oso lotuta dituzte-
nak (Etxaniz eta López, 2011). Bistan da, beraz, ilustrazioek literaturan
beren lekua irabazi dutela. 2021etik gaur arte, euskarazko Haur eta Gazte
Literaturan argitalpen ugari izan dira, aipagarrienak *Amaren bila* (2022)
Alaine Agirre eta Mar Ferrerorena, eta *Elsa eta paradisua* (2023), Mariasun
Landa eta Elena Odriozolarena, baita Maite Mutuberria beraren *Arrats
zapo bat* (2024) ere. Azken bi urteetako Euskadi Literatura sarietara jotzen
badugu, euskarazko Haur eta Gazte Literaturako irabazleak Patxi Zubiza-
rreta *Zerria* (2022) liburuarekin eta Harkaitz Cano *Mundua pitzatuta dago
baina hantxe gabiltza oinez* (2023) obrarekin izan dira; literatura lanaren
ilustrazioan, berriz, *Ni ez naiz Mikel Laboa* (2022) lanarekin Joseba Larratxe
eta *Campos de castilla* (2023) liburuarekin David de las Heras.

Duranen (2005) arabera, geroz eta gehiago erabiltzen da ilustrazioa
adin desberdinetako haurren ikaskuntza-prozesuan laguntzeko, testua-
ren osagarri ideala delako eta ikusizko irakurketaren edo ikusizko alfabe-
tizazioaren gaitasuna garatzen laguntzen duelako. Album ilustratu-
ek denboraren nozioak garatzen laguntzen dute iraganaren, orainaren eta
etorkizunaren sekuentzia, erritmoa, jarraitutasuna eta antolamendua
barne hartzen baititu pentsamendu-kategoria gisa (PinPeiro, 2012, he-
men aipatua: Aguado eta Salvador 2020).

Liburu-formatuko ilustrazioa pinturaren eta marrazkiaren adar bat
da, publiko zabalari zuzendutako artelanak ekoizten dituen eta interesa
haurrentzako irudi ilustratuaren alderdi hezitzailean jartzen duena. Ilus-
trazioak, hitzen gabezia ia erabatekoa izanda ere, haurrentzako liburu-
tan komunikazio-maila handia ezartzeko eta kontzientzian arrasto oso
sakona uzteko gai diren forma artistikoak dira. Esanahi osoa daramate
eta istorio bat narratzen dute. Hori dela eta, sortzaileen erantzukizuna
handia da, haien lana baita haurrak bere munduari zentzua emateko
duen lehen tresna (Artium, d.g.).

Aurretik aipatutakoa laburbildu eta nolabaiteko gogoeta orokor bat egiteko, ondorengo definizio hau erabiliko genuke: “Ilustrazioak, testuaren irismenetik haratago doan dimentsio bisual bat ematen du, helburua, testu batek komunikatu ezin duena agerian utzi eta nabarmentzea izanik” (Heller, 2007, hemen aipatua: Menza, Sierra, eta Sánchez, 2016).

Ilustrazioak ez dira marrazki hutsak, izaera bat dute eta horretan ezin daiteke ahaztu erabiltzen diren koloreek irakurleengan duten eragina. Eva Heller-en *La psicología del color. Cómo actúan los colores sobre los sentimientos y la razón* (2004) liburua osatzeko, lanbide guztietako eta Alemania osoko 2.000 pertsona elkarrizketatu ziren. Azterlanaren emaitzek erakusten dute koloreak eta sentimenduak ez direla ustekabean konbinatzen, haien elkarketak ez direla gustu-kontuak, haurtzarotik gure hizkuntzan eta pentsamenduan sakonki errotutako esperientzia unibertsalak baizik.

Kolore batek modu ezberdinean jokatzen du aplikatzen den aldi bakoitzean. Kolore guztiek dute esanahia, baina bakoitzaren efektua testuinguruak zehazten du, hau da, kolorea hautematen dugun esanahien loturak. Kolore bat testuinguru posible guztietan ager daiteke, eta sentimendu positiboak edo negatiboak pizten ditu.

3. Nola aztertu dira Maite Mutuberriaren lanak?

Aukeratutako Mutuberriaren 20 lanen azterketa, bi autore desberdinek planteatzen dituzten irizpideetan oinarrituz egin da. Alde batetik, Risquez-ek bere *Analizando álbumes infantiles* lanean (2019) album desberdinak aztertzeko erabili zituen tresna edo fitxa bibliografikoak baliatu dira. Taula horiek hainbat atal eta kategoriatan banatzen dira obra bakoitzaren inguruko informazioa biltzeko: paratestuaren (literatur testua aurkezten eta inguratzen duten ezaugarri multzoa) funtzio narratiboa, liburuaren formatua, testu-ilustrazio erlazioa, testua, orrialdeen erabilera, ilustrazioak egiteko erabilitako teknikak eta koloreak.

Tartean, testu-ilustrazio arteko erlazioa analizatzeko, Nikolaveja eta Scotten (2006) araberako lau erlazio desberdinetan sailkatu dira:

- Simetrikoa: Testuak eta irudiak istorio bera kontatzen dute, informazioa komunikazio-modu desberdinetan errepikatzen denean.
- Osagarria: Irudiek testuak eskaintzen duen informazioa zabaltzen dutenean, edo alderantziz.

- Kontrapuntuzkoa: Ilustrazioek informazio kontraesankorra ematen diotenean testu idatziak dakarrenari.
- Asimetrikoa: Ilustrazioek eta testuak ez dutenean eszena bera kontaktzen, hau da, ez dagoenean nahitaz testuaren eta irudiaren arteko kontraesanik.

Bestetik, Lluch-en *Cómo reconocer los buenos libros para niños y jóvenes* (2009) liburuko kapitulu batetik ilustrazioak baloratzeko proposatzen diren irizpideak hartu dira. Horien artean, irudien ezaugarriak, elementuak, konposizioa, teknika desberdinak eta ilustrazio bat ona izan dadin bete beharreko ezaugarriak. Amaitzeko, Eva Heller-en *La psicología del color. Cómo actúan los colores sobre los sentimientos y la razón* (2004) liburutik jasotako informazioaren bitartez aztertu da koloreen erabilera.

4. Maite Mutuberria ilustratzailearen lanen azterketa

Maite Mutuberria Larraiotz (Eltzaburu, Nafarroa, 1985) ilustratzailea da eta Haur eta Gazte Literaturako hainbat liburu ilustratu ditu, baita alor horretan hainbat sari eskuratu ere. Ikus-entzunezko produkzioetan hasi zen eta gaur egun, batez ere, hezkuntza eta Haur eta Gazte Literaturako liburuetan lan egiten du ilustratzaile gisa.

“Zer egin nahi duzu arratsaldero: matematikako etxeko lanak ala marraztu?” galdetu zion ahizpak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzeaz, Zientzia edo Arte Batxilergoa aukeratu behar zuenean behingoz argitzeko. Ez omen zuen zalantzarik egin. Urte batzuk geroago Ilustrazioa ikasi zuen Madrilgo Arte Diez Eskolan eta harrezkeroztik liburuak ilustratzen ditu. Aurretik Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatu zenez, ilustrazioa irudiekin komunikatzea dela esaten dio bere buruari (ikus: <https://maitemutuberria.com/eu/niri-buruz>).

Mutuberriak bere ibilbidea ilustratzaile bezala hasi zuenetik, gehienbat beste idazle batzuen lanak ilustratzen ibili da. Hala ere, 2018an bere lehen album ilustratua izango zena publikatu zuen, *Lohia*. Lehendabiziko proiektu osoa izan zen, ilustrazioak jartzeaz gain hitzak ere berak jarri zituelako. 2021ean kaleratu zuen bere bigarren proiektu osoa izango zen albuma, *Irrimola*. Bigarren album horrekin, 2022ko Euskadi Literatura sarrietan ilustrazioaren kategorian saria jaso zuen Maite Mutuberriak. Bere lan guztien artean, beraz, Haur eta Gazte Literaturan kokatzen diren ondorengo 20 obrak aztertu dira: *Zure denboraren truke*, *Gerrak ez du izenik*, *Bizikleta lapurtu didate!*, *Zerua berun*, *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk*,

Piztipoemak eta beste xomorro batzuk, Pikondoaren balada, Gixela nire laguna da, Oihartzun isilak, Maitte-maitte, Mokotxiki, Lohia, Martzelo itsua, Musua (Pirritx, Porrotx eta Marimotots), Lilo, Joemak eta Polasak, Arbolidades, Istorioen zooa, Irrimola eta Barruko hotsak eta beste soinu txiki batzuk.

ZURE DENBORAREN TRUKE (Alberdi eta Mutuberria, 2013)

Paratestua osatzen duten liburuaren atal desberdinek, ez dute istorioari buruzko informazio nabarmenik aurreratzen. Protagonistaren irudia aurkezten da azalean, izenburuarekin lotura zuzena duten erloju eta iratzargailu baten irudiekin batera. Liburuaren formatua laukizuzen bertikala da, haur txikiarentzat izan ohi diren albumak baino txikiagoa tamainaz. Ilustrazioen presentzia ez da albumetan bezain garrantzitsua, irakurtzeko testu gehiago duelako eta luzeraz ere, istorioa luzeagoa delako.

Testu eta ilustrazioen arteko erlazioa simetrikoa da, irudi eta testuak istorio bera kontatzen dutelako. Hala ere, testuak eskaintzen duen informazioa baino gehiago erakusten dute ilustrazioek, istorioa modu zabala go batean jasotzen da marrazkien bitartez. Testua bera esplizitua da, ilustraziorik egongo ez balitz, istorioa berdin-berdin ulertzeko nahikoa informazio ematen duelako idatzizko zatiak. Edonola ere, aurretik aipatu bezala, ilustrazioek testuaren informazioa zabaltzen dute, pertsonaia bakoitza ezagutzeko aukera ere testuaren bitartez jasotzen ez diren sentimendu eta emozioak ilustrazioek transmititzen dituztelako.

Orrialdeen erabilera bakoitza da gehienetan, jarraian dauden bi orrialdeek ilustrazio edo egoera berdin bat osatzen dutelako. Testu eta ilustrazioek espazio berdina partekatzen dute (asoziazioa), hau da, ez dago inolako bereizketarik narrazio eta marrazkien artean.

Testuari laguntzen dioten ilustrazioak errotulagailu eta collage teknikaz eginak dira, xumeak bezain egokiak. Teknika desberdinen erabilera ilustrazio multzoa osatzen duten kontrasteak lortzen ditu. Kontaketaren erritmo eta tonuarekin bat datoz eta narrazioan aipatzen diren leku, une, denbora nozio eta atmosfera desberdinak birsortzeko gaitasuna dute. Giza irudien marrazkiak sinpleak dira, xehetasun askotan sartu gabe sortutakoak, baina nahikoak irakurlea pertsonaien azalean jartzeko, baliatzen diren aurpegi espresio eta gorputz mugimenduen bitartez egoera desberdinek pertsonaiei eragindako sentimendu eta emozioak transmititzen baitira.

Erabiltzen diren kolore eta tonuaren kontrasteak formak definitzeko baliatzen dira. Orrialdeen kolorea zuri mantentzen da, gainerako ilustra-



Zure denboraren truke (Alberdi eta Mutuberria, 2013)

zioetan ia kolore guztiak erabiltzen direlarik. Protagonista bioleta koloreak osatzen du. Eva Heller-en *La psicología del color. Como actúan los colores sobre los sentimientos y la razón* (2004) liburuaren arabera, bioletak ezinezkoa edo zaila dena posible egiteko irrika adierazten du. Protagonistaren gurasoek nekez dute bere alabarekin egoteko denbora, ia ezinezkoa da beraientzat Maddiri behar duen denbora eskaintzea. Horregatik, ezinezkoa den hori lortzeko erakusten duen irrikagatik aplikatzen zaio protagonistari kolore bioleta.

GERRAK EZ DU IZENIK (Bilbao eta Mutuberria, 2013)

Paratestuak liburuak gordetzen duen istorioaren aurre-ideia bat ematen digu. Albumaren izenburuari erreparatuta, biltzen duen gaia zein den jakin daiteke, baita ilustrazioak egiteko erabilitako teknika desberdinen aurrerapen bat ere. Azalean dagoeneko, protagonista ezagutu daiteke, eskuan esanguratsua izango den margo gorri bat duelarik. Gainerako irudiek gerra batek eragin dezakeen iluntasuna eta geroago albumean aurkitzen diren zenbait irudi erakusten dituzte. Liburuaren formatua kartratua da, tamainaz ez txikia ezta handia ere. Egokia da haurrek eskuetan erabil dezaten. Hala ere, helduren baten laguntzarekin ezagutu beharreko istorioa kontatzen da, “gerra” batek biltzen duen guztia osotasun batean jaso dezaten.

Erabiltzen diren koloreek istorioa girotzen eta gertatzen denaren esentzia transmititzen dute. Kolore zuria, grisa eta beltza dira espazio gehien hartzen dutenak, eta horien artean aplikatzen dira ilustrazio txikiagoen bitartez kolore biziagoak. Kontatzen den istorioa tristeza eta go-

gorra da eta horregatik erabiltzen diren koloreek egoera ilun bat transmititzen dute. Orrialde zurien gainean daude ilustrazioak, inozentziaren kolorearen gainean bekatu beltzak zikinduta moduan. Kolore beltzak indarkeria eta heriotza adierazten ditu, gerra batean nagusien diren bi kontzeptuak.

Testu eta irudien arteko erlazioa kontrapuntuzkoa da, ilustrazioek informazio kontraesankorra ematen baitio testu idatziak dakarrenari. Hala ere, irudiek testuak dioena osotasun batean ez erakutsi arren, aipatzen diren ekintza, leku edota objektuak erakusten dituzte. Irudiek, beraz, narraziotik antzematen ez diren xehetasunak erakusten dituzte, testuak dioena modu zabalago batean ikusteko aukera emanez. Testua esplizitua da, ilustrazioen laguntzarik gabe, kontatzen den istorioa irakurri daitekeenarekin ulertu daitekeelako.

Album osoan bikoitza da orrialdeen erabilera. Ez dira ilustrazio solteak, bi orrialdeak hartzen dituen irudi osoak dira gehienak. Beraz, testu eta ilustrazioek espazio berdina okupatzen dute.



Gerrak ez du izenik (Bilbao eta Mutuberría, 2013)

Ilustrazioek indar handia dute, erakargarriak dira irakurlearentzat. Batez ere, marrazkiekin batera argazki errealak txertatuz osatzen direlako. Sentimendu eta sentsazio desberdinak transmititzeko gaitasuna dute, protagonistak kontakizuna bizitzen duen moduan sentitu dezake irakurleak ere. Irudiekin sortzen diren espazioak inguru errealak dirudite, paisaia desberdinak sortzetik gertaerak leku eta denbora jakin batean irudikatzen dituztelako.

BIZIKLETA LAPURTU DIDATE! (Mutiozabal eta Mutuberrria, 2014)

Ilustrazioak zuri-beltzean egindako marrazkiak dira, arkatzez. Kontaketaren erritmoarekin bat datoz eta gertaerak inguru eta espazio batean zehazten dituzte: herria, etxea eta landa eremua, esaterako. Irudien proportzio eta tamainarekin jokatzeko da ilustrazioei sinesgarritasuna emateko. Ilustrazioak zuri-beltzean daudenez, azala da liburuari kolorea ematen diona. Kolore hori horia da, baikortasuna, haserrea eta inbidiarena bezala. Lasaitasun eta segurtasunaren kolore berdeak ere osatzen du azalaren zati txiki bat.



Bizikleta lapurtu didate! (Mutiozabal eta Mutuberrria, 2014)

Azalak, ematen duen informazioa dela medio, funtzio narratiboa dela esan daiteke. Izenburuak kontakizuneko korapiloa aurreratzen du, eta ilustrazioek protagonista eta gainerako pertsonaia esanguratsuenak aurkezteaz gain, beraien intentzioa zein izango den ere aurreratzen dute. Formatuari dagokionez, liburu laukizuzen bertikala da, tamainaz txikia, bideratuta dagoen adineko haurrentzat ondoen egokitzen den formatua eta diseinua ematen zaio.

Testu eta ilustrazioen arteko harremana simetrikoa da, irudiek ez baitute informazio berririk erantzen, testuak esandakoa errepikatzen dute. Irudien bitartez, beraz, hitzen bidez azaltzen dena modu bisualago batean jasotzen da. Ilustrazioek ez dute testua adina garrantzirik, istorioa idatzizkoaren bitartez osotasun batean ulertzen baita. Hori dela eta, tes-

tua esplizituzat jotzen da, hitzak nahikoak baitira kontakizuneko gertae-
ra guztiak transmititzeko.

Orrialdeen erabilera sinplea eta disoziatua da orokorrean, testua eta
ilustrazioa orrialde desberdinetan aplikatzen baitira.

ZERUA BERUN (Suarez eta Mutuberría, 2014)

Azalari erreparatuta, zaila da liburua zeri buruzkoa den aurreikustea,
izenburuak nahiz ilustrazioek ez dutelako informazio handirik ematen.
Irakurleari imajinaziorako ateak irekitzen dizkio, barruko orrialdeetan
zer ezkutatzen den jakiteko grina. Forma laukizuzen bertikala du liburu-
ruak eta tamainaz handia da. Ilustrazioen eragina handia da liburu hone-
tan, orrialde guztietan espazio osoa hartzen dutelako. Horregatik, ematen
zaion forma eta tamaina benetan egokiak dira, ilustrazioei eskatzen
duten espazioa ematen baitzaie horrela. Orrialdeen tamainak, ilustrazioek
birsortzen dituzten ingurunean murgiltzen dute irakurlea.

Testu eta ilustrazioen arteko erlazioa asimetrikoa da. Testuak ez du
istorio bat kontatzen, ez dago trama bat. Orrialde bakoitzeko testua oso
laburra da, baina trinkoa aldi berean. Izan ere, narratzailearen barne
zaurien bilaketa bat da kontakizuna eta bakardadea eta maitemina antze-
maten dira bere ahotsean. Testua esplizitua da, ilustraziorik izango ez
balitz, berdin ulertuko litzatekeelako hitzek diotena. Hala ere, testu poe-
tikoa izanda eta kontatzen dena narratzailearen sentimenduak izanik,
testua inguratzen duten ilustrazio eta sortzen dituzten paisaiek kontala-
riaren azalean sentitzen dena errazago transmititzen da.



Zerua berun (Suarez eta Mutuberría, 2014)

Orrialdeen erabilera bikoitza eta asoziatua da liburu osoan. Paisaia elurtuak bi orrialdeak hartzen ditu bakoitzean eta testua paisaia beraren parte da posizio desberdinetan.

Zirriborro eran egindako marrazkiak arkatz eta tintak erabilia sortu dira, eta gainerako ilustrazioak, berriz, digitalki. Argi dago sentsazioak transmititzen dituztela eta sentimendu eta gogoetarako bidea pizten dutela. Erabiltzen diren proportzio eta plano desberdinen arteko elkarreraginak sakontasun eta mugimendu sentsazioak transmititzen dituzte narratzailearen errealitate nozio bat eskainiz.

Erabiltzen diren kolore gutxik kontakizuna girotzen eta narratzailearen sentimenduetan murgilarazten dute irakurlea. Xehetasunek, itzalek eta kolore tonalitate desberdinek bolumenak ematen dituzte eta horrekin sakontasun sentsazioak lortzen dira. Kontatzen diren sentimenduekin bat datozen kolore hotzak erabiltzen dira, horien artean zuria, beltza, berde apur bat eta urdin eta gris tonalitate desberdinak.

XOMORROPOEMAK ETA BESTE PIZTIA BATZUK ETA PIZTIPOEMAK ETA BESTE XOMORRO BATZUK (Bilbao eta Mutuberria, 2016)

Izenburuak estanzazio bidez hizkiak elkarren segidan jarriz daude osatuta. Gainerako ilustrazioen antzeko estiloa erakusten dute. Poema liburuak direla ere aurreratzen dute izenburuek, xomorro eta piztiak osatutakoak. Azaleko ilustrazio txikiek izenburuek diotenarekin bat datoz, xomorro, pertsonaia eta animalia desberdinak agertzen direlako. Bi liburuak forma laukizuzen bertikala dute eta tamainaz ertainak, irakurle gaztetxoentzat izan ohi diren liburuak baino zertxobait handiagoak. Aplikatzen zaien tamainak irudi eta testuari espazio berdina bat okupatzeko aukera ematen die, testua laburragoa den orrialdeetan ilustrazioen proportzioa handiagotuz.

Testu eta ilustrazioen erlazioa simetrikoa dela esan daiteke, komunikazio-modu desberdinetan testu eta irudiek informazio berdina ematen dutelako. Irudiek ez dute zuzenean testuak dioena errepikatzen baina testuaren bitartez jasotzen diren elementuen irudikapen bat egiten da. Ilustrazioak bat datoz testuarekin, elkar osatu egiten dira eta poemai jolaserako, imajinaziorako eta sormenerako bide ematen die. Testua esplizitua da, ilustraziorik gabe ere ulertzeko nahikoa informazio ematen duelako. Testuak jolaserako bide ematen dio poema bakoitzean irakurleari errepikapen, errima eta erritmo desberdinengatik.

Liburu hauetako ilustrazioak teknika desberdinak konbinatuz sortutakoak dira. Collage teknika erabiltzen da gehienbat, argazki erreal eta eskuz egindako marrazkiak konbinatuz. Estantazioaren erabilera ere antzeman daiteke zenbait iruditan, hizkiak jartzeko edo zenbait xomororen gorputzak hatza erabiliez sortzeko. Bizirik daudela diruditen gorputzak eta espazioak sortzen dira eta horrek poemek transmititzen duten atmosfera hori indartzen dute.

Orrialdeen erabilera sinplea nahiz bikoitza da eta ia kasu guztietan asoziatua. Ilustrazioekin orrialdeen erabilera bikoitza aplikatzen denean, bi orrialdeetako ilustrazioek jarraipen bat dute, hau da, erabateko eszena bat sortzen da inolako etenik gabe. Orrialdeen erabilera sinplea denean




Xomorropoemak eta beste piztia batzuk eta Piztipoemak eta beste xomorro batzuk
(Bilbao eta Mutuberría, 2016)

berriz, espazioko irudi eta testuaren antolamenduan oreka bat dago, ez dira bakoitza bere aldetik joango balira bezala ulertzen, batak bestearen beharra erakusten dute. Ilustrazioak eta testuak ia kasu gehienetan orrialdearen espazio berdina okupatzen dute, bata bestearekin moldatuz irudi oso bat sortzeko.

Kolore anitzen erabilerak liburuen izaera alaitzen eta aberasten du. Kolore guztiak erabiltzen dira gehiago edo gutxiago eta kasu gehienetan errealitatea errespetatuz aplikatzen dira.

PIKONDOAREN BALADA (Bilbao eta Mutuberría, 2017)

Ilustrazioak erdi abstraktuak dira eta hemen ere, zenbait kasutan, zuri-beltzeko argazkiekin nahasten dira ilustratzailearen marrazkiak. Kontatzen den istorioa kontuan hartuz, kolore horien bitartez, urdinaren adiskidetasuna eta konfiantza, berdearen itxaropenarekin, naturarekin eta bizitzarekin elkartzen dira. Liburuan zehar erabiltzen diren gainera-koloreak, gorria, laranja, horia, marroia eta beltza batez ere, istorioa-



Pikondoaren balada (Bilbao eta Mutuberria, 2017)

ren momentu zehatzetako sentimenduak adierazteko erabiltzen dira, horien artean maitasuna eta gorrotoa, indarra, baikortasuna, beldurra eta tristura, baita istorio amaierako bakea ere.

Izenburuari eta azalari begiratuz gero, istorioaren parte izango diren bi elementu garrantzitsu ezagutzen dira. Liburua bera zeri buruzkoa izango den aurreikustea zaila da, baina informazio garrantzitsua ematen dute. Formatuari dagokionez, laukizuzen bertikala da. Ederki baliatzen da liburuak ematen duen espazioa ilustrazioari nahiz testuari ematen zaion tainarekin. Irakurterraza zein eroso bilakatzen du.

Testu eta ilustrazioen arteko erlazioa osagarria da, narrazioari zeharka baino ez baitiote heltzen ilustrazioek, fokua eragin emozionalerantz jarritz. Testua bera esplizitua da, kontaktzen den istorioa hitzen bitartez jasotzeko nahikoa delako. Edonola ere, ilustrazioek liburuari beste bizitasun bat ematen diote eta emozioetan gehiago sakondu edota murgiltzeko aukera ematen dute.


Orrialdeen erabilera sinplea da orokorrean. Liburuaren zatirik handiena testuak hartzen du, baina badira hamar bat orrialde ilustrazioei eskaintzen zaizkienak.

GIXELA NIRE LAGUNA DA (Kazabon eta Mutuberria, 2017)

Izenburuak adierazten duena erakusten du azaleko irudiak, bi lagun eskutik emanda. Antzeman daiteke bi lagunetako bat, Gixela, lagun be-

rezia dela, pertsonaiari ematen zaion izaeragatik. Izaera hori, bere itxura fisikoak erakusten du, batez ere bere ileak. Liburuak formatu karratua du. Ilustrazioari eta testuari ematen zaien tamainagatik, orrialdearen espazio guztia hartzen dute eta horrek formatuari etekin handiagoa ateratzeko aukera baliatzen du.

Testu eta ilustrazioen arteko erlazioari dagokionez, simetrikoa dela esan daiteke, ilustrazioek testuak dioena erakusten dutelako. Ilustrazioak testuarekin bat datozenez, bi zatiak osatu egiten dira pertsonaiak kontatu, aurkeztu eta deskribatzen dituen ahots bakar bat proposatzeko. Testuak dioena modu zabalago batean jasotzen da ilustrazioen bitartez, informazio berdina ikuspuntu desberdin batetik planteatzen delako. Testua esplizitua da, ez dago ilustrazioen beharrik aurkezten den istorioa osotasun batean ulertzeko.



Gixela nire laguna da (Kazabon eta Mutuberría, 2017)

Orrialdearen erabilera sinplea eta disoziatua da. Testua eta ilustrazioak orrialde desberdinetan banatzen dira, ez dute inolako momentuan espazio berdín bat okupatzen. Ezker aldean geratzen den orrialdean kokatzen da testua eta ilustrazioek eskuin aldeko orrialdea hartzen dute.

Teknika desberdinak baliatzen dira irudiak sortzeko, errotulagailua, arkatza eta digitalki ere egindakoak direla esan daiteke.

Erabiltzen diren koloreek erabat girotzen dute istorioa, kontakizuneari aipatzen diren emozio desberdinak transmititzen baitituzte. Testuari dagozkion orrialdeek kolore berdea dute eta ilustrazioek okupatzen

dituztenak, berriz, gris kolorea. Bestelakoan, pertsonaiei ez zaie kolore deigarrik aplikatzen, inguruko ilustrazioen koloreek betetzen dute orrialdearen espazioa. Kolore horien artean berdea, arrosa, gorria, urdina, horia eta laranja aurki daitezke.

OIHARTZUN ISILAK (Ruiz eta Mutuberria, 2017)

Azalari erreparatuta eskuratu daitekeen informazioa interesgarria da. Liburuan aurkezten diren 12 pertsonaien erretratuak agertzen dira eta bakoitzaren izaera nolakoa den aurreratzen dute ematen zaien izaera eta koloreengatik. Izenburuak ederki jasotzen du kontaktzen den istorioa, nahiz eta hori irakurtzearekin bakarrik zaila izan zeri buruzkoa izango den jakitea. Liburuaren formatua laukizuzen bertikala da eta tamainaz aurreko liburuen antzerakoa. Orrialdeen espazio gehiena testuari ematen zaio, baina, hala ere, ez da nekagarria suertatzen. Tarteka agertzen diren orrialde osoko ilustrazioek erakargarri egiten dute liburua.

Testu eta ilustrazioen arteko erlazioa osagarria da, zenbait ataletan, ikasleen barne mundua erretratatzeko duen orri osoko ilustrazioek narrazioari laguntzen dietelako. Irudiek ez dute kontaktzen atal horretako testuak dioena, gehiago zentratzen da aurkezten den pertsonaia bakoitza bere izaera eta ezaugarriekin erretratatzeko. Testua eta irudiak osatu egiten dira, beraz, pertsonaiak aurkeztu eta deskribatzeko ahots bakar bat



Oihartzun isilak (Ruiz eta Mutuberria, 2017)

proposatzeko. Liburuaren zatirik handiena testuak hartzen duen arren, ilustrazioek pertsonaien inguruko informazioa zabaltzen dute, testua bera esplizitua da, hitzak nahikoak baitira kontatzen dena osotasun batean ulertzeko.

Orrialdeen erabilera sinplea da, alde batetik testua eta beste aldetik ilustrazioak daudelako. Inoiz ez dute orrialde-espazio bera partekatzen, eta, beraz, disoziazioa nagusitzen da.

Ilustrazioak pertsonaia desberdinen erretratuak dira eta harrigarria da nolako gaitasuna duten bakoitzaren izaera erakutsi eta sentimendu desberdinak transmititzeko. Errotulagailu beltzez edota arkatzez eginda daude ilustrazioak.

Erabiltzen diren koloreek kontaketa girotzen dute eta bakoitzaren esanahiari erreparatuz gero, pertsonaia bakoitzaren izaerarekin bat datozela esan daiteke. Azalean ageri den pertsonaia bakoitzari kolore bat ematen zaio, gero agertuko diren orrialde osoko ilustrazioetan, azaleko kolore berdina mantenduz bakoitzarekin. Laranja, urdina, berdea, grisa, gorria, arrosa eta horia dira erabiltzen diren koloreak.

MAITTE-MAITTE (Meabe eta Mutuberría, 2017)

Disko liburu bat izanda, ilustrazioak nonahi aurki daitezke. Irudiak abestien erritmo eta tonuarekin bat datoz uneoro eta sentimendu desberdinak transmititzen dituzte abestian kontatzen denaren arabera. Kanta bakoitzak sorrarazten duen atmosfera indartzeko ahalmena dute ilustrazioek. Aplikatzen diren proportzio, bolumen eta formek erlazio egiazkoak gortzen dute, aurkezten diren eszenak sinesgarriak eginez.

Haurrak bere lehen urtean bizi dituen egoerak birsortzen dira, emozio eta sentimenduak erakutsiz. Agerian geratzen da une aldaketa orrialde batetik bestera, abesti batetik bestera pasatzean. Tarte hori erabiltzen diren koloreek nabarmentzen dute batez ere. Izan ere, abesti bakoitzari kolore bat ematen zaio, izenburuan antzematen dena, eta haur txikiarekin doan itzala ere kolore berdinez osatzen da. Urdina, arrosa, laranja, horia eta berdea dira erabiltzen diren bost koloreak.

Azalari erreparatuta, haur txikientzako diskoa dela iradoki daiteke, izenburuak dioenarekin ere bat eginez. Kaxaren bi aldetan, barruko liburuxkan, baita diskoan bertan ere. Tamainaz txikia da eta ematen zaion formatua laukizuzen bertikala. Nahikoa da testu eta ilustrazioek behar duten espaziorako, abestiak ez baitira luzeak eta ilustrazioek na-



Maitte-maitte (Meabe eta Mutuberria, 2017)

hikoa gaitasun dute abesti bakoitzean gordetzen diren sentimenduak transmititzeko.

Ilustrazioak testuarekiko osagarriak dira, abestiek eskaintzen duten informazioa beste ikuspuntu batetik zabaltzen baitute. Abestien bitartez entzuten dena irudien bitartez jasotzen da, musikak eragin ditzakeen sententzioak transmititzeko ahalmena dutelako. Testua esplizitua da, abestiak kontatzen duena hitzen bitartez osotasun batean jasotzen delako. Errepikapenek, errimek eta onomatopeiek jolaserako aukera ematen dute, abestiak kantatzeko gogoia pizten eta erraztasun batekin memorizatzen laguntzen.


Orrialdeen erabilera bikoitza da kasu gehienetan, baina orrialde bat soilik hartzen duten ilustrazioak ere aurki daitezke. Bi orrialde hartzen dituzten ilustrazioek eszena oso bat osatzen dute, jarraian sortutako marrazkiak dira. Bi kasuetan, ilustrazio eta hitzek orrialdearen espazio berdina hartzen dute (asoziazioa), bata besteak hartzen duen lekura moldatuz.

MOKOTXIKI (Bilbao eta Mutuberria, 2017)

Albumeko protagonistek osatzen dute azala, baita kontra-azala ere. Istorioan nagusiak izango diren pertsonaiak aurkezten dira, beraz, hasiera-hasieratik. Izenburua pertsonaietako batekin lotzen da, ematen zaien kolorea ere berdina izanik. Azala eta kontra-azalak pertsonaien pers-

pektiba desberdinekin jolasten dute, azalean pertsonaiak aurretik irudikatzen direlako eta kontra-azalean atzealdea erakusten delako. Ia album gehienak bezala honek ere forma karratua du. Barruko ilustrazio gehienek forma borobildua dute eta kontraste horrek bai irakurketan baita ilustrazioetan ere arreta gehiago jartzea eragiten du.

Albura osatzen duten irudien proportzio, bolumen eta formek egiazko erlazio bat gordetzen dute. Horrek irudiak sinesgarriak izatea eragiten du, transmititzen dituzten sentimenduak modu zuzenean jasotzen dituelarik irakurleak. Mugimendu sentsazioa transmititzen da plano desberdinen bitartez eta horrek efektu berezi bat transmititzen dio irakurleari, protagonistek burutzen duten bidaiari emozioa pizten baitio.



Mokotxiki (Bilbao eta Mutuberría, 2017)

Erabiltzen diren koloreak funtsezko elementu edo protagonista direla esan daiteke. Kontakizunean gertatzen denaren esentzia transmititzen dute, sentsazio desberdinak adierazten dituzte. Ia album osoa kolore urdinak osatzen du eta presente dago uneoro txikiena den pertsonaia nagusietako bati ematen zaio kolore laranja. Istorioa aurea doan bezala, animalia desberdinak agertuko dira, bakoitza kolore desberdin batekoa. Guztien konbinazioak magia, samurtasuna, itxaropena eta argitasuna transmititzen ditu.

Testu eta ilustrazioen arteko erlazioa simetrikoa da, hau da, testuak dioen berdina ilustrazioei soilik erreparatuta ere jaso daiteke, ilustrazioek testuak dioena erakusten baitute. Testua eta irudiak osatu egiten

dira, beraz, pertsonaiak aurkeztu eta istorioa kontatzeko ahots bakar bat proposatzeko. Tamaina eta kolore desberdinak baliatzen ditu ilustratzaileak marrazkiak irakurriaz bakarrik istorioa ulerkorra izateko. Testua esplizitua dela esan daiteke, kontaktzen dena argi ulertzen delako testuarekin. Narrazioa bere laburrean esaldi poetiko eta jostalariekin dago osatuta.

Orrialdearen erabilera bikoitza da, ilustrazioek bi orrialderen espazio osoa hartzen dutelako erdigunean inolako zatiketarik eman gabe. Testu eta irudiek espazio berdina hartzen dute (asoziazioa), bata bestearen espaziora moldatzen delarik. Testua ilustrazioen barruan ere aurki daiteke, baita zenbait irudiren tartean zatikatuta ere.

LOHIA (Mutuberria, 2018)

Liburu osoa zuri-beltzean doa, grisaren tonalitate guztiekin jolastuz. Kolore zuriarekin lotzen dira sentimendu eta nolakotasunak, eta horregatik, zuri horren gainean aplikatzen dira kolore beltzez egindako ilustrazioek transmititzen dute egilearen mina.




Lohia (Mutuberria, 2018)

Arkatzez eta grafitoarekin egindako ilustrazioak dira. Azalean irudikatzen den bihotzetik hasita, ilustrazio guztiek sentsazio eta emozio desberdinak transmititzeko gaitasuna dute, egilearen azalean murgilduta irakurtzen da liburua. Bildutako bozetoen bitartez, bizitako egoerak birsortzen ditu, une hartako emozio eta sentimenduak erakutsiz.

Azalari erreparatze hutsarekin iradoki daiteke liburu berezia dela, kontra-azalak erakusten duen bezala, egilearen bizipenetatik sortutako kontaketa bat delako. “Lohia” zikina edota desatseginarekin lotzen da,

horregatik liburu honen izenburua, egileak denbora batez bizitako egoera desatsegina definitzen duelako. Laukizuzen bertikal forma duen liburua da, baina bere tamaina ez da album ilustratuek izan ohi dutenaren antzekoa, gehiago gerturatzen da gazte edo helduentzako diren liburuen tamainara.

Istoria ilustrazioek kontatzen dute eta aurki daitekeen gutxieneko testua irudien osagarri dela esan daiteke. Irudi eta testuen harremana asimetrikoa da, testuak eta irudiek adierazten dutena ez delako berdina. Eraginkortasunez komunikatzen duten ilustrazioek istorioa, irudiak adierazgarriak direlako eta egileak min hori bere azalean pairatu zuen unean sortutako bozetoak direlako. Testua inplizitua da, aurretik aipatu bezala, hitz solteak, esaldi laburrak edota irudiekin doazen ohartxoak direlako. Ilustrazioak dira istorioa kontatzen dutenak. Marrazki eta bozetoek espresibitateko nahikoa indarra dute kontatzen denaren nondik norakoa osotasun batean transmititzeko.



Lohia (Mutuberría, 2018)

Orrialdeen erabilera bikoitza da gehienbat, bi orrialdeen espazioa elkartuz aplikatzen direlako ilustrazioak. Irudi txikiak dira orokorrean, bata bestearekin elkartuz ilustrazio handiagoak osatzeko. Orrialde batean daudenei hurrengo orrialdean daudenek ematen die jarraipena kasu gehienetan, eta horregatik liburua guztiz irekita edukitzera behartzen du irakurlea. Testua laburra izanagatik, ilustrazioek okupatzen duten espazio berdina hartzen du (asoziazioa); batzuetan ilustrazioen barruan, bestetan zenbait marrazkiren artean edota ertz desberdinetan kokatzen da.

MARTZELO ITSUA (Añorga eta Mutuberría, 2018)

Azaletik nahikoa informazio eskuratzen da liburuaren nondik norakoa jasotzeko. Izenburuak protagonista aurkezten eta bere ezaugarriak adierazgarriena kontatzen dizkigu, eta ilustrazioak ere modu berean erakusten du izenburuak dioena. Liburuaren formatua laukizuzen bertikala da, testu eta ilustrazioen proportzioak erabat egoki datoz liburuaren diseinuarekin, irakurketa atsegina bilakatuz.

Testu eta ilustrazioek erlazio osagarri bat mantentzen dute beraien artean. Hitzek kontatzen dutena protagonistaren barne sentipenetatik erakusten da ilustrazioen bitartez, testuaren informazioa modu zabalago batean transmitituz. Testua esplizitua da, hitzek nahikoa gaitasun baitute kontatu nahi dena azaltzeko. Protagonistaren bizitzan murgilarazten du irakurlea testuak, ematen duen informazioa zuzena eta gertaerak kontatzeko baliatzen den modua oso argia delako.

Orrialdeen erabilera sinplea da, eta, beraz, disoziatua kasu honetan. Ilustrazio guztiek eskuin aldeko orrialdea okupatzen dute. Orrialdearen espazio osoa betetzen dute, atzealdea kolore batek hartzen du eta gainean aplikatzen da protagonistaren irudia kasu guztietan.

Marrazkiak sinpleak izanagatik oso indartsuak dira. Protagonistaren irudia kolore beltzez agertzen da ia gehienetan, eta ikusmenaz aparteko zentzumen eta sentazioen indarra kolore desberdinen bitartez transmititzen da. Irudien elementuak integratu egiten dira protagonistaren giza irudiarekin eta kontakizunean gertatzen denaren zaletasuna transmititzen dute. Itzalak, lerroak edota borobil formako elementu txikiak erabiltzen dira, horiek elkarturik, elementu konposatu adierazgarri bat osatzeko.



Martzelo itsua (Añorga eta Mutuberria, 2018)

Ez dira kolore asko erabiltzen, gehienez bizpahiru (horia, urdina eta laranja batez ere), tonu desberdinetan. Azalean kolore horia eta laranja nagusitzen dira arrosa eta gorri apur batekin. Barrualdeko ilustrazioetan

berri tonu desberdinetako urdinak erabiltzen dira gehien. Laranja, horia eta berdea ere antzeman daitezke, baita zuria ere zenbait kasutan. Azalean protagonista kolore beltzez dago irudikatuta, pertsona itsua izanda egunerokotasunean bizi behar duen iluntasunagatik beharbada.

MUSUA. Pirritx, Porrotx eta Marimotots (Bilbao eta Mutuberría, 2019)

Azalean abestiak kantatzen dituzten Pirritx, Porrotx eta Marimotots ageri dira, izenburuak adierazten duen musua Pupu eta Lore eta beste pertsonaia batzuei bidaltzen. Izenburua eta azalean ageri diren ilustrazioak beraz lotura zuzena erakusten dute. Formatuari dagokionez laukizuzen bertikala da eta tamaina aldetik ohiko liburu baten antza du. Ez da oso handia baina ikaragarria da orrialde bakoitzean ageri diren ilustrazioen kantitatea testuak behar duen espaziorik inbaditu gabe.

Testu eta ilustrazioen arteko erlazioa osagarria da. Abestiek kontaktzen dutena askatasun batekin erakusten da ilustrazioen bitartez, zerbait zurruna izan beharrean, abstrakzio eta imajinaziorako bide ematen duten irudiak baitira. Erakusten da testuak eskaintzen duen informazioa, baina ilustrazioek haratago ematen dute kontaktzen den hori, informazio zabalago bat eskaintzen dute. Testua esplizitua da, disko-liburu bat izanik, ez dagoelako jarraitua den istorio baten kontaktetik. Hamabi abestik osatutako liburua da eta batak bestearekiko erabat desberdina izanagatik guztiak euskal kulturaren oinarritutako gai edota pertsonaien inguruan dihardute.



Musua. Pirritx, Porrotx eta Marimotots (Bilbao eta Mutuberría, 2019)

Orrialdeen erabilera bikoitza eta asoziatua da kasu guztietan. Bi orrialde oso hartuz, eszena oso bat eraikitzen dute ilustrazioek, testua ere irudien parte eginez. Bizirik daudela diruditen espazioak sortzen dituzte, abesti bakoitzak transmititzen duen atmosferaren arabera.

Liburua osatzen duten ilustrazio guztiak suertatzen dira erakargarriak, alde batetik sentsazio desberdinak transmititzen dituztelako, eta bestetik sentimenduak eta gogoeta pizteko gai direlako irakurlearengan. Pailazoen pertsonaiak egiteko, ilustratzaileak bere estilora ekarrita birsortu ditu, beti ere berezkoak dituzten ezaugarriak mantenduz. Liburu honetan ere, animalia eta pertsona errealean zuri-beltzeko argazkiak eskuz egindako marrazkiekin konbinatuz sortu dira zenbait ilustrazio. Teknika desberdinen erabilerak orrialde bakoitzeko ilustrazio multzoa aberasten dute.

Liburuaren kanpoaldea kolore arrosak osatzen du nagusiki. Musu batean maitasuna eta goxotasuna daude, kolore arrosaren baitan sentimendu positibo guztiak, sentiberatasuna eta sentimentaltasuna dauden bezala. Abesti bakoitzean kontatzen denaren arabera koloreak erabiltzen dira: euriaren inguruko abestian urdina, udaberriari dei egitean horia, gaua aipatzean beltza, basoan murgiltzean berdea...

LILLO (Garland eta Mutuberria, 2019)

Paratestuak helburu narratibo bat erakusten du, bai azalak baita kontra-azalak ere informazio esanguratsua ematen dutelako. Izenburua txakur protagonistaren izena da, eta ilustrazioak txakurra aurkezteaz gain, kontakizuneko pertsonaia nagusia ere erakusten du, istorioaren nondik norako baten ideia emanez. Forma laukizuzen bertikala du, tamaina aurreko liburuen antzerakoa, baina luzera aldetik, orain artean orrialde gehien dituen. Egia da, haurrentzat izanik testuaren tamaina helduen liburuetan erabiltzen dena baino handiagoa dela.

Testu eta ilustrazioen arteko erlazioa aldatzen doa liburuan zehar. Kasu batzuetan simetrikoa da, beste batzuetan osagarria eta beste zenbaitetan asimetria kasuak ere aurki daitezke. Testua esplizitua da erabat, ilustraziorik izango ez balitz, istorioa modu berdinean ulertuko litzatekeelako. Ez dago ilustrazio askorik. Ilustrazio kopurua mugatua izateak, hitzen artean irudiren bat agertzean arreta guztia ilustrazioetan jartzea eragiten du, eskertu egiten da irudi bidezko kontaketa.

Orrialdeen erabilera bikoitza da gehienetan eta testuarekin espazio berdin bat partekatzen dute ilustrazioek (asoziazioa). Zenbait kasutan,

orrialdearen alde batean testua eta bestean ilustrazioa bereizten dira edota ilustrazioek bi orrialde hartu ordez, alde batean aurki daitezke testua eta irudia.



Lilo (Garland eta Mutuberrria, 2019)

Testuaren izaerarekin erabat lotuta daude ilustrazioak, hitzen bidez deskribatzen diren egoera desberdinak irudien bitartez bizirik daudela diruditen espazioetan irudikatzen baitira. Xehetasun ugari dituzte eta pertsonaia bakoitza berezi egiten duten ezaugarri desberdinen bitartez egiten dira bereizgarri. Beren arteko eta ingurumenarekiko elkarreragina bisualki kontatzen edo deskribatzen dute kontatzen den bizimoduagatik.

Ilustrazioak zuri-beltzean daude nagusiki eginak, gero ilustrazioaren zenbait zatiri aplikatzen zaizkien koloreek girotzen dute irudi bidezko informazioa kontakizunean gertatzen denaren giroa transmitituz. Erabiltzen diren koloreak berdea, urdina, arrosa, horia, laranja eta bioleta dira. Gehien errepikatzen den kolorea urdina da, tonalitate desberdinetan.

JOEMAK ETA POLASAK (Astiz eta Mutuberrria, 2019)

Jolastuz eta jolaserako sortutako poema liburua da. Teknika mistoa-ekin egindako ilustrazioak eskaintzen zaizkigu (ur-margoa, tinta, estanpazioa...), kolorez ugariak. Abstrakzio puntu bat duten imajinaziorako izaki bitxiak sortu ditu. Kolore biziz eginak daude, eta bakoitzaren formak edo konposizioak eurekin jolasteko gogoia ematen dute.

Erabiltzen diren koloreek liburuaren zaletasuna girotzen dute, eta hori da irudiei bizitasuna ematen erakargarriak izatea eragiten duen beste arrazoi nagusienetakoa. Kolore ugari erabiltzen dira liburu osoan zehar eta guztien arteko konbinazio desberdinak baliatzen dira eszena koloretsuak sortzeko. Ilustrazioetan kolore hotz (urdina, berdea, ma-

rroia...) eta beroak (laranja, horia, gorria...) tartekatzen dira kolore tonu berriak sortzeko, elkarrekin nahastuz. Kolore horiek guztiek eta gehiagoren konbinazio eta elkarketak liburu honen alaitasuna eta dibertsiorako aukera zabaltzen dute.



Joemak eta polasak (Astiz eta Mutuberría, 2019)

Izenburuari eta azaleko ilustrazioei erreparatzea besterik ez dago, jolaserako gogo hori piztu eta barruan gordetzen dituen poema nahiz ilustrazioekin dibertitzeko. Izenburuak berak hizkien aldaketa batekin jolaserako intentzio hori transmititzen du, inguruan ageri diren gainera-ko ilustrazio guztiek asmo hori areagotzen dutelarik. Liburuaren formatuari dagokionez, laukizuzen bertikala da. Ez da oso handia tamainaz, baina barruan eskaintzen diren poema labur eta ilustrazioentzat egoki datorren proportzio bat mantentzen du.

Testu eta ilustrazioen artean simetria edota erlazio osagarri bat dagoela esan daiteke. Orokorrean, poemaren interpretazio librean ari dira ilustrazioak, batzuk mezuarekin lotuta, gehienetan letra baten forma edota itxura agertzen kolore berezitu-beltzean. Testua esplizitua da, poema bakoitzak irakurlea jolasera bideratzeko izugarritzko ahalmena duela-ko eta bakoitzean ematen den informazioa edo kontaktzen den istoriotxo ulertzeko, erabiltzen diren hitzak nahikoak direlako.



Joemak eta polasak (Astiz eta Mutuberría, 2019)

Orrialdeen gehiengo erabilera sinplea da. Bi orrialdeak hartzen dituzten ilustrazioetan ez dago testurik, orrialdeen espazio osoa irudiek hartzen dute. Gainerako marrazki txikiek poema banarekin partekatzen dute orrialdearen espazioa (asoziazioa).

ARBOLIDADES (Hernandez eta Mutuberría, 2020)

Azaletik jaso daiteke izenburu eta ilustrazioen bitartez basoan murgiltzeko gonbidapena. Izenburuak zuhaitz mota desberdinei egiten die erreferentzia eta azaleko ilustrazioak zuhaitz aniztasuna bete-betean erakusten du, liburuan zehar presente izango den pertsonaiarekin batera baso bat osatuz. Liburuaren formatua laukizuzen bertikala da, tamainaz ertaina, ideala barruko ilustrazioak eta poemak liburuaren diseinu edo formatura erabat egokitzen direlako.

Testu eta ilustrazioen arteko erlazioa simetrikoa da, gehienetan poemak kontaktzen duen hori irudiek ere kontaktzen dutelako. Egia da, testuak ematen duen informazioa ikuspuntu zabalago batetik komunikatzen dutela ilustrazioek, zenbait kasutan testuan aipatzen ez diren elementu edota pertsonaiak ere erakutsiz. Testua bera esplizitua da, hitzen bidez ematen den informazioarekin irakurleak kontaktzen den hori imajinazio bidez irudikatzeke aukera ematen duelako.

Orrialdeen erabilera sinplea eta disoziatua da. Testua eta ilustrazioak orrialde desberdinetan aplikatzen dira, bakoitzari bere espazioa eskain-



Arbolidades (Hernandez eta Mutuberría, 2020)

tzeko. Banaketa horrek, bi elementuen arteko tarte bat sortzen du, baina ez du eragiten inolako etenik bien artean sortzen den loturan.

Ur-margoaren teknika erabiliz sortutako ilustrazioak dira, *Joemak eta polasak* liburuan bezala, ingerada beltzik gabekoak. Sentsazio desberdinak transmititzeko gaitasuna dute, poemen erritmo eta tonuarekin bat datoz eta bizirik daudela diruditen espazioak sortzen dituzte, bereziki basoko paisaiak.

Liburuan erabiltzen diren koloreei dagokionez, kolore hotzak erabiltzen direla esan daiteke. Berdea nagusitzen da guztien artean, tonalitate guztietan. Urdina eta marroia dira gero berdearekin batera gehien erabiltzen direnak. Horien artean aurki daitezke kolore beroagoak direnak, laranja, gorria eta arrosa esaterako, baina ez dute liburu osoan mantentzen den giro edo atmosfera misteriotsuan eragiten.

ISTORIOEN ZOOA (Rodari eta Mutuberria, 2020)

Aurreko liburuetan erabilitako teknika berdinarekin jarraitzen du Mutuberriak liburu honetan ere, ur-margoarekin. Gorputzak zatikatuta egongo balira bezala daude osatuta, hau da, atal bakoitza (hankak, isatsa, besoak, burua...) non hasten eta amaitzen den erraz antzematen da.

Baliatzen diren koloreek istorio bakoitza girotzen, kontakizunean gertatzen denaren giroa transmititzen eta erabilitako tonalitate desberdinek aberastasun bat eragiten dute. Kolore urdina da gehien erabiltzen dena liburu osoan. Urdina da gehien aipatzen den kolorea sinpatuari, harmoniari, adiskidetasunari eta konfiantzari dagokionez, eta hori da liburu honek animalia eta gizakien arteko harremanean azpimarratu edo erakutsi nahi duena.

Izenburuak bete-betean jasotzen du liburuaren edukia eta azala osatzen duten ilustrazioek ere kontaktzen diren istorioetako animaliak eta bi pertsonaia aurkezten dituzte. Azala osatzen duten elementuek, beraz, informazio zabala ematen dute. Aipagarria da izenburu eta marrazkien arteko integrazioa, ilustrazioak izenburuko zenbait hizkiren barruan edota gainean kokatzen direlako. Liburuaren formatua, gehiengoena bezala, laukizuzen bertikala da. Ez da oso handia, baina nahikoa da eskaintzen diren ilustrazioak osotasun batean jasotzeko xehetasun guztiekin, baita testuari ematen zaion tamaina errespetatzeko ere.

Testu eta ilustrazioen arteko erlazioa osagarria da. Istorio bakoitzeko orrialde bat eskaintzen zaio ilustrazioei eta horietan kontakizunak biltzen duen egoera edo eszena oso bat irudikatzen da. Testua esplizitua



Istorioen zoota (Rodari eta Mutuberia, 2020)

da, nahikoa informazio ematen baitute hitzek istorio bakoitza osotasunean ulertzeko. Pertsonaia desberdinen arteko elkarrizketa baliatzen da gehienetan istorioa kontatzeko. Istorio guztiek lotura bat dute, bakoitzaren amaieran jarraian datorrenari ematen baitzaio hasiera.

Orrialdeen erabilera sinplea da liburu osoan, kasu batean izan ezik. Testuari hasiera ematen dien ilustrazio txikiak bakarrik partekatzen dute testuarekin orrialdearen espazio berdina (asoziazioa). Hasieran orrialde bikoitza erabiltzeak eta ondoren erabilera sinplera pasatzeak badu eragin bat kontaktaren erritmoan, hasierako ilustrazioak gainerako istorioetara pasatzeko zubia eraikitzen duelako.

IRRIMOLA (Mutuberia, 2021)

Album hau berezia egiten duen ezaugarri nagusia formatua da. Itxita dagoela borobil erdi bat da, ostadarra bezala, eta irekitzean borobil oso bilakatzen da, poza bezala. Albuma osatzen duten ilustrazioek liburu bi norabidetan irakurtzeko gonbidapena ematen dute. Alde batetik testuak irekitzen duena, eta bestetik ilustrazioek iradokitzen dutena. Bien arteko erlazioa osagarria dela esan daiteke, irudiek testuak eskaintzen duen informazioa zabalagoa egiten dutelako. Testua inplizitua da, albuma bere osotasunean ulertzeko irudiak beharrezkoak direlako.

Orrialdeen erabilera bikoitza denez, liburu erabat irekitzea ezinbestekoa da orrialde bakoitzeko irudia ikusteko. Ilustrazio eta testuak espazio berdina hartzen dute, baina bien arteko bereizketa bat ematen da. Horregatik, orrialdeen erabilera espazio zatikatu bidezkoa dela esan daiteke, nahiz eta komikigintzan bezala, ez diren binetak agertzen.



Irrimola (Mutuberria, 2021)

Izenburuak badu azalpen bat ezkutuan; poza biribila da, barruan darماغun zurrunbiloa, eta kanporatzen dugunean xirimolaka irteten zaigu. Pozetik irria datorkigu, eta irria xirimolaka kanporatzen dugunez, irrimola bihurtzen da. Izenburuak adierazi nahi duena azalak erakusten du, liburua itxita dagoenean zortzi kolorez osatutako borobil erdi bat delako, ortzadarra osatuz, eta ortzadarra, pozaren sinboloa delako.

Ilustrazioek transmititzeko duten gaitasunagatik testuak dioenaren atmosfera indartzen dute, kasu honetan poza transmititzeko, dibertigarriak diren iruditegiak sortuz. Protagonista bakoitza berezkoak dituzten ezaugarri, proportzio, mugimendu eta izaeragatik bereizten dira, erakusten dituzten aurpegiko keinu eta gorputz jarreragatik. Irudien antolamendua orekan egoteak liburua formatuari etekin handiagoa ateratzeko aukera ematen du. Ilustrazioak borobilean kokatzeak irakurlea leku pribilegiatu batean kokatzera eta xehetasun guztietan begiak finkatzera gonbidatzen du.

Erabiltzen diren koloreek istorioa girotzen dute. Esan bezala, ostadarraren koloreak dira nagusiki erabiltzen direnak: gorria, laranja, horia, berdea, urdina, bioleta eta arrosa. Ostadarrak kolore horiek guztiak biltzen ditu, eta pozak edo alaitasunak, kolore guzti horiekin batera, maitasuna, dibertimendua, baikortasuna, itxaropena, handitasuna, magia eta samurtasuna. Hori guztia da album honek transmititzen duena.

BARRUKO HOTSAK ETA BESTE SOINU TXIKI BATZUK


(Bilbao eta Mutuberria, 2021)

Izenburuak berak adierazten du liburuko poemak zeri buruz jarduten duten, gure barruko hots eta beste soinu txiki batzuei buruz, baina soinu horiek zeintzuk diren imajinatzea irakurlearen esku uzten du. Azpima-

rragarria da azalean aurkezten den izenburuaren eta ilustrazioen arteko integrazioa, izenburua ilustrazioaren barruan kokatzen baita. Azala osatzen duten ilustrazioek ere datozen orrialdeetan aurkituko dena aurreratzen dute, orokorrean giza gorputza baita protagonista. Liburuaren formatua laukizuzen bertikala da, sendoa eta tamainaz *Arbolidades* poema liburuaren antzerakoa. Elementuen banaketak etekin handiena ateratzen dio liburuaren formatuari, orrialdeen espazioa ilustrazio eta testuen beharren arabera okupatzen baita.

Testu eta ilustrazioen artean erlazio osagarri bat dagoela esan daiteke. Ilustrazioak testutik abiatzen dira, testuak dioen hori erakutsiz, baina askatasun eta modu zabalago batean. Mundu abstraktuago batera gerturatzeko dira marrazkiak errealtate gordinetik abiatuta. Hitzen bidez ematen den informazioa zabaltzen dute, ikuspuntu zabalago bat eskaintzeko ahalmena dutelako eta irudiak osatzen dituzten elementuen batasunak idazleak adierazi nahi izan duena bisualki kontatzen dutelako. Testua berez esplizitua izanagatik, ilustrazioek garrantzi handia dute liburu honetan, sarritan hitzekin ere irudiak egitera ausartu baita ilustratzailea. Hitzak nahikoak dira kontatzen dena ulertzeko, baina aipatu moduan, irudiek eragin zuzena dute irakurlearengan irakurketa haratago bideratzeko duten gaitasunagatik.

Orrialdeen erabilera denetarikoa da, ilustrazioak txikiak, orrialde batekoak, bikoak eta hizki artean ezkutatuak, denetarikoak uztartzen dire-



Barruko hotsak eta beste soinu txiki batzuk (Bilbao eta Mutuberría, 2021)

lako. Testu eta ilustrazioak elkarrekin doaz uneoro eta horregatik erabilerara asoziatu bat mantentzen dutela esan daiteke.

Azken lanetan erabilitako ur-margoaren teknika mantendu du liburu honetan ere. Ingerada beltzik gabekoak izanagatik, irudiak ongi definituak dira eta argi funtzionatzen dute. Orain arteko lanetan, lehen aldiz ikusi da hitzekin irudiak sortzearen teknika.

Kolore apaletan egindako marrazkiak dira, joera ilun xamarrarekin. Marroi-granate antzerako bat, urdin iluna eta tonu horixka bat dira orrialdeen espazio gehien hartzen duten koloreak. Gainerako ilustrazioetan laranja, berdea eta horiaren erabilerara nagusitzen dira, guztiak tonu apal batean. Erabiltzen diren kolore guztien konbinazioak atmosfera lasai bat sortzen du, irakurketa patxada batean gitera bultzatuz.

5. Ondorioak

Maite Mutuberria ilustratzaile lanetan hasi zenetik izandako garapena argi ikusi da bere lanen bitartez, 2013an ilustratu zuen *Gerrak ez du izenik* lanak ez baitu inolako antzekotasunik 2021ean berak sortu zuen *Irrimola* albumarekin. Antzematen da Mutuberriaren lan guztietan badela esentzia bat, pertsonala duen marrazkiak sortzeko modu bere berezi bat, nahiz eta bere estilo hori denborarekin aldatzen joan den.

Oinarrizko teknikak erabiliz sortu zituen hasierako lanetako ilustrazioak, errotulagailu edota arkatzez eta digitalki, esaterako. Aurreragoko lanetan collage teknikaren erabilerara nagusitzen da, zuri-beltzezko argazki erreal eta eskuz egindako marrazkien arteko konbinaketa eginez. Amaierako lanetan, berriz, ur-margoa erabiliz sortutako ilustrazioak nagusitzen dira nabarmen, abstrakziotik eta mundu fantastiko batetik gertuago dauden marrazkiak sortuz. Errotulagailua eta collage teknika erabiltzetik, ingerada beltzik gabeko ilustrazio edota hitzak baliatuz sortutako irudiak aurki ditzakegu, beraz.

Animalia eta gizakien irudiak dira Mutuberriaren lanetan aurki ditzakegun protagonista nagusiak. Horiez gain, natura bera eta naturako elementuak ere asko erabiltzen ditu, basoa eta itsasoa esaterako. Hasierako giza irudiak sinpletasun batetik egindakoak dira, ohiko giza irudi baten ezaugarriak mantenduz. Oso figura oinarrizkoak dira eta ez dute ezer berezirik transmititzen, ez dute izaera propiorik. Azken urteetako lanetan, berriz, giza irudiek askatasun gehiagorekin egindakoak dirudite, abs-

trakzio puntu batekin daude eginak eta horrek mundu fantastiko batera bidaiatzea eragiten dute.

Koloreen erabileran ere amaierako lanetan kolore biziagoen erabile-rari heldu diola ikus daiteke, hasierakoetan kolore aniztasuna urriagoa eta irakurleenganako eragina ere apalagoa izanik. 2017an Leire Bilbao idazlearekin sortutako albumetik (*Mokotxiki*) abiatuta, koloreek beste garrantzi bat hartzen dutela esan daiteke. Gertutasun bat transmititzen dute, leuntasun bat, liburuan sartu eta koloreekin nahastuta kontatzen den horretan murgiltzen da irakurlea.

Mutuberriaren ibilbidearen azterketak, ilustrazioaren munduak gor-detzen dituen sekretuak ezagutzeko aukera eman du, lerro, forma eta kolore desberdinekin egindako marrazkiak, haratago doazen ilustrazioak direla erakutsiz. Marrazki batek testuak dioena irudikatu dezake, baina baita sentimendu eta sentsazio desberdinak transmititu ere.

Sakontasunez begiratu behar zaie ilustrazioei haratago doan esanahi hori jasotzeko, ezkututzen duten mezu hori aurkitzeko. Mutuberriaren-tzat liburu bat ilustratzea konpondu beharreko enigma bat da, eta ba-tzuetan garrantzi gutxien duten marrazkiek ematen dizkiote aztarnak. Irakurleei, berriz, norbere buruarekin elkartu eta aldi berean galtzeko balio diete ilustrazioek, hitzen bidez adierazi eta ulertu ezin dutenaren ondorioz sortzen den enigma hori ebazteko.

Laburbilduz, ilustrazioak kolorearekin uztartzen direnean, irakurlea-enganako eragina bikoitza dela ikusi da, bien arteko indarrak sortzen duen haize zurrunbiloak irensten dituelako testua osatzen duten hitzak.

6. Bibliografia

- Aguado, M. & Salvador, M. (2020). La ilustración como recurso didáctico. *Dedica. Revista de educación e humanidades*, 17, 337-359.
<<http://dx.doi.org/10.30827/dreh.v0i17.15158>>
- Apalategi, U. (2011). Irakurzaletasuna hezkuntza sistemaren helburu? *Egan*, 3/4, 99- 119.
< <https://rsbap.org/ojs/index.php/egan/article/view/2733/2551>>
- Arroitajauregi, J. (2012). *Eguno euskal haur eta gazte literatura: katalogo bat*. Etxepare Euskal Institutua.

- Artium (d.g.). *Cuentos imaginados: el arte de la ilustración infantil*.
<<https://catalogo.artium.eus/dossieres/4/cuentos-imaginados-el-arte-de-la-ilustracion-infantil-en-construccion/introduccion/la-il>>
- Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Síntesis.
- Equipo Peonza (2001). *El rumor de la lectura*. Anaya.
- Etxaniz, X. (1997a). *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Pamiela.
- Etxaniz, X. (1997b). *Haur eta Gazte Literatura. Kontzeptuaren definizio baten bila*. Pamiela.
- Etxaniz, X. & López, J.M. (2011). *XXI. mende hasierako Haur eta Gazte Literatura*. Arabako Foru Aldundia. Euskara, Kultura eta Kirol Saila.
- Galarraga, H. & Alonso, I. (2018). Elkarrekintza didaktikoa eta album ilustratua hezkuntza literariorako giltzarri. Ezagutzak elkarrekin erakitzen. *Uztaro*, 106, 5-27. <[10.26876/uztaro.106.2018.1](https://doi.org/10.26876/uztaro.106.2018.1)>
- Heller, E. (2004). *La psicología del color. Cómo actúan los colores sobre los sentimientos y la razón*. Gustavo Gili.
- Larragueta Arribas, M. (2021). Orígenes y evolución del libro-álbum en Occidente. Una revisión entre el siglo XVII y el siglo XX. *Didáctica. Lengua y Literatura*, 33, 157-172. <<https://doi.org/10.5209/dida.77664>>
- Lluch, G. (2009). *Cómo reconocer los buenos libros para niños y jóvenes. Orientaciones de una investigación de Fundalectura* (Colombia). Fundalectura.
- Menza, V., Sierra, B. & Sánchez, R. (2016). La ilustración: dilucidación y proceso creativo. *Revista KEPE*, 13, 265-296.
<<https://doi.org/10.17151/kepes.2016.13.13.12>>
- Nikolajeva, M. & Scott, C. (2006). *How picturebooks Work*. Routledge.
- Olaziregi, M.J. (2005). Evolución y actualidad de la literatura infantil y juvenil en lengua vasca. *Lapurdum*, 10, 137-152.
<<https://journals.openedition.org/lapurdum/53>>
- Risquez, E. (2019). Analizando álbumes infantiles. [Grado Amaierako Lana, UPV- EHU]. ADDI artxibo digitala.
<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/42006/TFG_Risquez.pdf>
- Rodriguez, E. (2022, uztailak 22). Literatura ez da mundutik ihes egiteko modu bat, munduan egoteko modu bat baizik. *111 akademia*.

<<https://111akademia.eus/111-aldizkaria/albisteak/2022/07/22/eider-rodriguez-literatura-ez-da-mundutik-ihes-egiteko-modu-bat-munduan-egoteke-modu-bat-baizik>>

Zubeldia, I. (2006). *Haur literatura aztergai*. [Donostia]: Egan.

Aztertutako lanen bibliografia

- Alberdi, U. & Mutuberria, M. (2013). *Zure denboraren truke*. Elkar.
- Añorga, P. & Mutuberria, M. (2018). *Martzelo itsua*. Elkar.
- Astiz, I. & Mutuberria, M. (2019). *Joemak eta polasak*. Elkar.
- Bilbao, L. & Mutuberria, M. (2013). *Gerrak ez du izenik*. Pamiela.
- Bilbao, L. & Mutuberria, M. (2016). *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk*. Pamiela.
- Bilbao, L. & Mutuberria, M. (2016). *Piztipoemak eta beste xomorro batzuk*. Pamiela.
- Bilbao, L. & Mutuberria, M. (2017). *Pikondoaren balada*. Elkar.
- Bilbao, L. & Mutuberria, M. (2017). *Mokotxiki*. Pamiela.
- Bilbao, L. & Mutuberria, M. (2019). *Musua. Pirritx, Porrotx eta Marimotots*. Katxiporreta.
- Bilbao, L. & Mutuberria, M. (2021). *Barruko hotsak eta beste soinu txiki batzuk*. Pamiela.
- Garland, I. & Mutuberria, M. (2019). *Lilo*. Edelvives.
- Hernandez, D. & Mutuberria, M. (2020). *Arbolidades*. Kalandraka.
- Kazabon, A. & Mutuberria, M. (2017). *Gixela nire laguna da*. Ibaizabal.
- Meabe, M.A. & Mutuberria, M. (2017). *Maitte-maitte*. Elkarlanean.
- Mutiozabal, A. & Mutuberria, M. (2014). *Bizikleta lapurtu didate!*. Ibaizabal.
- Mutuberria, M. (2018). *Lohia*. Pepitas de calabaza.
- Mutuberria, M. (2021). *Irrimola*. Ikaselkar.
- Rodari, G. & Mutuberria, M. (2020). *Istorioren zooa*. A fin de cuentos.
- Ruiz, R. & Mutuberria, M. (2017). *Oihartzun isilak*. Erein.
- Suarez, C. & Mutuberria, M. (2014). *Zerua berun*. Ibaizabal.

Latinezko poesia bertsoan euskaratu eta musikatzeari buruzko gogoeta

*Reflection on the translation and musicalisation
of Latin poetry into Basque bertsos*

Jone MAKAZAGA

Graduondoko ikaslea
Konstantzako Unibertsitatean (Alemania)

Jasotze data: 2024.06.11 Onartze data: 2024.09.12

LABURPENA

Literatura unibertseko poesia neurtua bertsoan euskaratzeko saio bati buruzko hausnarketak biltzen ditu artikulu honek. Langintza horretan, gaur egungo bertsoaritzako eta pastoraletako moldeetara egokitu ziren Virgilioren, Ovidioren, Martzialen eta Senekaren idazlan hautatuak, eta musikaturik ere aurkeztu ziren itzulitako sei poemak, askotariko doinu eta neurriak erabilia. Artikulu honetan, itzulpen-saioan baliatutako estrategiak aurkeztu eta itzulpen-teorien esparru zabalagoan kokatzen dira, eta poemak zehazki bertso edo bertsetetan itzultzearen mugei buruz hausnartzen da. Horrez gain, xede-testuei esleitutako doinuek itzulpen-prozesuan izandako eragina ere aztertzen da, poesia neurtua literatura tradizioko neurrietan euskaratzeari buruzko hausnarketetan osagai horren garrantzia azpimarratze aldera.

Gako-hitzak: latinezko poesia; poesia-itzulpena; bertsoarritza; bertso-doinuak.

Abstract

This article examines a translation session focused on adapting metered poetry from world literature into Basque *bertsos*. Selected works by Virgil, Ovid, Martial, and Seneca were adapted to the contemporary metrics of the Basque oral traditions *bertsoarritza* and *pastorala*, and the six translated poems were also represented musically, with varied melodies and metrics. The article explores the translation strategies employed during this process, situating them within broader translation theories, and reflects on the challenges of adapting poetry to the distinct metrics of these oral traditions. Additionally, it analyses the influence of the melodies assigned to the target texts on the translation process, highlighting their significance in shaping reflections on the Basque translation of metered poetry into metrics of literary tradition.

Keywords: latin poetry; poetry translation; *bertsoarritza*; verse melodies.a

1. Sarrera. 2. Poesia-itzulpenari buruzko zenbait hausnarketa. 3. Itzulgaiak eta hautaturiko doinu eta neurriak. 4. Itzulpen-prozesua. 4.1. Zubi-testuen erabilera. 4.2. Poemetan etenak atzematea eta amaieratik hasita itzultzea. 4.3. Gure itzulpen-estrategia: “txiklearen teknika”. 4.4. Betelana eta sintesia. 4.5. Itzulpen fide-lak eta sortzaileagoak. 4.6. Itzulpena musikatzea. 5. Itzulpen-lagin bat eta bertsio musikatua. 6. Poesia bertsotan euskaratzea: ondorioak. 7. Bibliografia.

1. Sarrera

Poesia itzultzeko bide asko eta asko daude. Horietako batzuk estuak dira, besteak zabalagoak, eta badaude bide lau eta aldapatsuak ere. Latindar autoreen lan klasikoak bertsotan euskaratzeari buruzko hainbat hausnarketa biltzen ditu artikulu honek, itzulpen-saio praktiko batean oinarrituta¹. Langintza horretan, zubi-testuak erabilita, gaur egungo bertsolaritzako eta pastoraletako moldeetara ekarri zen latinezko poesia, askotariko doinu eta neurriekin, eta itzulgaiei doinu zehatzak esleitzeak itzulpen-prozesuan izandako eragina aztertu zen. Artikulu honek bi helburu nagusi ditu: itzulpen-saio praktikoan agertutako korapiloak eta topatutako irtenbideak mahai gainean jartzea, eta literatura unibertsaleko poesia neurtua bertsolaritzako eta pastoraletako moldeetara egokitzeak dakartzan irabaziei eta galerei buruzko gogoeta egitea.

Sarrera honen ostean, poesia itzultzeari (eta, zehazki, euskaratzeari) buruzko orain arteko ekarpenen laburpen bat egingo da. Jarraian, hirugarren atalean, itzulpen-saioko corpusa aurkeztuko da, itzulgaiei buruzko zertzelada batzuekin eta xede-testuen doinu eta neurrien hautaketari buruzko oharrekin. Laugarren atalak, berriz, itzulpen-prozesua izango du ardatz, eta alderdi praktiko zein teorikoak bilduko ditu: alde bate-tik, latinezko poesia bertsotara nola ekarri zen azalduko da eta, bestetik, itzulpen-teoriekin uztartuko da saio praktikoko jarduna. Ondoren, bosga-

[1] Artikulu honek *Latinezko poesia bertsotan euskaratzeaz: itzulpen musikatua eta gogoeta* (2023) lana du ardatz. Lan hori Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradu Amaierako Lan gisa aurkeztu zuen artikulu honen egileak, Gidor Bilbao Telletxea irakaslearen gidaritzapean, UPV/EHUko Letren Fakultatean. UPV/EHUren lan akademikoen gordailuan irakur daiteke GrAL osoa (<https://addi.ehu.es/handle/10810/67513>).

rren atalean, itzulpen-lagin bat aurkeztuko da, autoreari buruzko datuekin, ohar argigarriekin eta abestutako bertsiorekin grabazioarekin. Amaitzeko, artikulua azken atalean, latinezko poesia bertsiotan euskaratzearen abantailei eta desabantailei buruzko gogoeta plazaratuko da.

2. Poesia-itzulpenari buruzko zenbait hausnarketa

Poesia itzultzeari buruzko iritziak askotarikoak izan dira historian zehar. Teorialari batzuek esan dute poesia itzulezina dela; beste batzuek, aldiz, poesia itzultzearen alde egin dute, itzulpen-mota horrek muga nabarmenak dituela onartuta. Halaber, poesiaren itzulgarritasunaren aldekoek ikuspuntu dikotomikoak erakutsi dituzte: poesia hitz lauz itzuli behar dela esan dute batzuek, eta bertsoz egindako itzulpenak hobetsi dituzte besteek.

Poesia neurtua deitzen zaio metrika jakin bati jarraitzen dion literatura diskurtsoari. Neurri horiek, jakina, ez dira berdinak hizkuntza gutzietan. Latinaren kasuan, oina da unitate metrikorik txikiena, eta oin luze eta laburren konbinazioan oinarritutako silaba-patroiak errepikatzen dira. Euskal bertsiolaritzako metrika, berriz, gaur ezagutzen dugun moduan, erabat silabikoa da, hau da, silaba kopuruak baldintzatzen du diskurtso poetikoaren erritmoa, nahiz eta beste baliabide erritmiko bat ere erabiltzen den: bertso-lerroen amaierako fonemen arteko hosiaketa, hots, errima.

Blanco Leozek poesia neurtua historian zehar nola euskaratu den aztertu zuen eta, lan horren baitan, poesia-itzulpenari buruzko teorioren laburpena aurkeztu zuen (2015, 10-24. or.). Haren arabera, Holmesek (1969) lau erreproduzio mota proposatu zituen itzulpen metrikoak deskribatzeko: erreproduzio mimetiko (jatorrizkoaren metroa errespetatzen duen itzulpena), erreproduzio analogikoa (jatorrizko metroaren baliokide gisa xede-hizkuntzako tradizioko metroa darabilen itzulpena), erreproduzio organikoa (jatorrizkoaren zentzua jasotzeko erosoan suertatutako den metroaren bidezko itzulpena) eta erreproduzio bestelakotua (jatorrizko metroa edozein delarik ere, itzultzailearen gustuko metrora egokitutako itzulpena). Pamies Bertránek (1990), ostera, erreproduzio organikoaren eta bestelakotuaren arteko muga lausoa dela argudiatuta, bi itzulpen-mota horiek elkartzea proposatu zuen (*apud* Blanco Leoz, 2015, 18. or.). Horiek horrela, poesia neurtua itzultzeko hiru metodo nagusi aipatu zituen: hitz lauzko itzulpena, bertso aske bidezko itzulpena eta itzulpen metrikoa. Era berean, itzulpen metrikoaren baitan, hiru me-

tro mota bereizi zituen: metaforismo erritmikoa (jatorrizkoarekiko mendekotasunik ez duen metroa), forma analogikoa (xede-kulturan baliokidetasuna duen metroa) eta forma mimetikoa (prosodia antzekoa duen metroa).

Errimaren auzia ere eztabaidatsua izan da: teoriarari batzuen ustez, poesia-itzulpenetan ez da hoskidetasuna mantendu behar, jatorrizkoaren erritmoa baizik, baina beste batzuentzat ezinbestekoa da errima errespetatzea, jatorrizko poemaren estiloari eutsiko bazaio. Blanco Leozen (2015, 25-34. or.) arabera, euskal itzultzaileek poesiaren itzulgarritasunaren alde egin dute oro har, eta gainera, poesia neurtua euskaratu duten itzultzaileen artean bertso-neurriak erabiltzeko joera nagusitu da. Horrez gain, errima ere poesia-itzulpenetan gorde beharreko elementutzat hartu izan dute. Blancoren euskal itzulpenen azterketan, besteak beste, Xabier Payák (2013) euskaratutako Calderón de la Barcaren *Bizitza amets* lana eta Juan Garziak (2014a) itzultitako Shakespeareren sonetoak aipatzen dira horren erakusgarri.

Bi itzulpen horietan jatorrizko poemaren forma errespetatzen da, baina euskal literatura tradizioko moldeetara egokitutako itzulpenek ere izan dute tokirik euskal letretan. Adibidez, Shakespeareren *Uda-gau bateko ametsa* lanaren itzulpenean, jatorrizko bertsioan hitz neurtu bidez emandako pasarteak euskal tradizioko neurrietara ekarri zituen Juan Garziak (2014b), errima-jolasei eutsita.

Artikulu honen oinarrian dagoen itzulpen-saioan (ik. 1 oin-oharra), bertsolaritzako eta pastoraletako moldeak erabili ziren latinezko klasiakoak euskaratzeko. Itzultzailearen hautu pertsonala izan zen itzulgaiak euskal tradizioko formetara ekartzea, eta, beraz, Holmesek (1969) proposatutako erreprodukzio bestelakotuen artean kokatzen dira itzulpen horiek. Bestalde, Pamiesen (1990) sailkapenaren arabera, metaforismo erritmikoa izan zen itzultzailearen hautua, xede-testuen metrika ez baitzen sorburu-testuen metrikaren arabera hautatu. Dena den, sailkapenetan maiz gertatu ohi den bezala, artikulu honetan aztertuko diren itzulpenen artean ere bada salbuespenik, kasuren batean neurri bereziren bat hautatu baitzen, hain zuzen, jatorrizkoak ere neurri berezia zuelako (ikus Martzialen X, 47 epigramaren itzulpena).

Latinetik euskarara bertsotan eginiko itzulpenei dagokienez, Agustin Paskual Iturriagaren eta Jon Gotzon Etxebarriaren itzulpenak aztertu zituen Ruiz Arzalluzek (1987a). Iturriagak zortziko txikitari euskaratu zituen Virgilioren Bukolikoetako hexometro daktilikoak, eta Etxebarriak

Martzialen distiko elegiakoak hala zortziko nagusitan nola zortziko txikitan eman zituen, besteak beste. Hautu egokitzat jotzen ditu Ruiz A. iker-tzaileak, kontuan harturik Iturriagaren helburuak (Ruiz Arzalluz, 1987a, 55. or.) eta, epigramen kasuan, zortziko nagusiak eta zortziko txikiak euskaraz sorturiko ziri-bertsoetan duten tradizioa (Ruiz Arzalluz, 1987a, 65. or.).

Bestalde, Juan Garziak argitaratutako *Uda-gau bateko ametsa* itzulpe-naren harira, Jon Martin Etxebeste eta Miren Ibarluzea Santisteban bertsolariak obra horretako lagin batzuk bertsoara ekarri zituzten Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarteak antolaturiko “Shakespeare bertsolari: itzultzailearen sukaldea (II)” izeneko saioan². Ibarluzea Santistebanek (2015, 72. or.) aipatu zuen doinu biziak hautatu zituela jatorrizko bertsoan izaki miragarriek abestutako pasarteak itzul-tzeko, eta, aldiz, balada erako doinuak jauntxoek hizkera imitatze-ko. Xehetasun hori azpimarragarria da inondik ere, poesia neurtua bertsoan euskaratzeari buruzko aurreko ikerketetan doinua ez baita ageri azter-gaien artean.

Azkenik, Payá Ruizek (2012, 37. or.) ere nabarmendu zuen bertsoaren edukiaren eta doinuaren arteko lotura: aipatu zuen melodia minorrak baliagarri izan daitezkeela mezu tristeak indartzeko, eta melodia maio-rrak, berriz, entzuleari pieza alaiak iragartzeko. Halaber, bertsolaritza jakintza-arlo ezberdinetatik aztertze-ko beharra aldarrikatu zuen, eta ezinbestekotzat jo zuen ikerketa horietan bertsoa inguratzen duten ele-mentu ez-testualak ere kontuan hartzea.

3. Itzulgaiak eta hautaturiko doinu eta neurriak

Artikulu honen oinarrian dagoen saio praktikoan, estilo ezberdineta-ko sei poema itzuli ziren, itzulpen-prozesuan zehar efektu ezberdinak identifikatu, aztertu eta alderatu ahal izateko. Atal honetan, itzulgaiak aurkeztu eta euskarazko itzulpenetarako proposaturiko doinu³ eta neu-riak zehaztuko dira.

[2] Grabazioa eta informazio gehiago hemen: <<https://eizie.eus/eu/jarduerak/shake-seareren-ametsa-biziarazten/shakespeare-bertsolari-itzultzailearen-sukaldea-ii>>

[3] Artikulu osoan zehar, Dorronsoro Goikoetxeak (1995) liburu gisa argitaratu eta Xenpelar Dokumentazio Zentroak digitalizaturiko Bertso Doinutegirako estekak txertatu dira doinu-izenekin batera, irakurleak doinuak entzuteko aukera izan de-
zan.

Virgilio: Eneida, IV, 1-55

Virgilioren *Eneida* epopeia Eneas gerlari ahaltsuaren abenturei buruzkoa da. Kontakizunaren arabera, Kartagora heldu zen Troiatik ihes eginda, eta zeharo maitemindu zuen Dido, bertako erregina. Didori, orde, ezinezko zitzaion Eneasekin elkartzea. Deskribatzen ari garen itzulpen-saiorako hautatutako zatian erreginaren atsekabea hezurmamitzen da. Hexometro daktilikotan idatzitako pasartetxo hori euskaratzeko, bertsolaritzaren tradizioko zortziko handia erabili zen, eta *Goizian goizik jeiki ninduzun I* doinu malenkoniatsua proposatu zen sortaren bertsio abesturako.

Ovidio: Saminak, I, 3, 1-26

Izenburuak iradokitzen duen moduan, saminak ardaizen du *Tristia* idazlana. Herriminari buruzkoa da: erbestean bizi beharrak zer sentiarazten dion azaltzen du bertan Ovidiok. Saio praktikoko itzulgaia hexometro eta pentometro daktilikoen segida da, hots, distiko elegiakoen sorta, eta argudioari dagokionez, Ovidiok Erroman igarotako azken une ilun eta garratzak deskribatzen ditu. Pasarte honetarako *Haurtxo txikia negarrez dago I* melodia goibela hautatu zen saio praktikoa, eta zortziko handira ekarri zen kontakizuna.

Martzial: Ikuskizunen liburua, 26

Epigrama edo satira-olerki labur honetan, Erromako Koliseoko dantza-emanaldi bat deskribatzen du Martzialek, xalotasun handiz. Jatorrizko poema distiko elegiakotan idatzia da, eta itzulpenerako hamarreko txikia proposatu zen, bertsolaritzako neurri txikiak narrazio honen haria josteko egokiagoak direla argudiatuta. Bestalde, *Sagutxo batzuekin* doinu alaiaren alde egin zen itzulpenean, epigramaren ospakizun-kutsuagatik.

Martzial: Epigramak, I, 87

Olerki hau zakarra eta bortitza da gainerakoen aldean: emakume bat iraintzen da edanean aritzeagatik. Jatorrizko testua distiko elegiakotan idatzia da, eta itzulpen-saioan hamarreko txikitik itzuli zen. Doinuari dagokionez, jatorrizko poeman korroskadak aipatzen direnez, “Batetikan korrozka” doinua hautatu zen itzulpenerako (Bertso Doinutegian: *Antton eta Maria I*), 1986ko Bertsolari Txapelketa Nagusian Andoni Egañak Anjel

Mari Peñagarikanorekin egindako ofizioan botatako bertso ezagun honen harira:

Batetikan korrozka,
bestetik herrena,
ohia okupatu du
hori da txarrena,
ez da pinta kabala
honek dakarrena,
kantzontzilorik gabe
ohean barrena,
pixkat gutxio edan
ezazu hurrena.

Martzial: Epigramak, X, 47

Epigrama hau zorionari buruzkoa da: Martzialek zorientsu izateko gakoak harilkatzen ditu endekasilabo faleziotan idatzitako poema honetan. Edukiaren aldetik, xumea baina aldi berean iradokitzailea da. Euskarazko bertsoan neurri bereziren bat erabili nahi izan zen, jatorrizko olerkiak ere neurri berezia baitu: epigramen bildumako olerki gehienak distiko elegiakotan idatziak dira, baina epigrama hau endekasilabo faleziotan emana da. Horiek horrela, “Juana Bixenta Olabe” doinua proposatu zen itzulpena musikatzeko (Bertso Doinutegian: *Nagusi jauna hauxe da lana A*). Metrikari dagokionez, zazpi puntuko berezia da doinua.

Seneka: Fedra, 274-295

Izenburuak gardentasunez erakusten duen moduan, Fedra emakume maiteminduren ingurukoa da Senekaren *Fedra* tragedia. Itzulpen-saioan euskaratutako pasarteak Cupido du protagonista, maitasunaren jainkoa, alegia, eta haren geziek pasioa nola hedatzen duten kontatzen du. Euskaraturiko bertso-lerroak endekasilabo safikoak dira, lan horretako gainerrakoak baino laburragoak, oro har, eta Koruak abestueak. Jatorrizko lana antzerki-lana denez, Zuberoako pastoralaren moldera egokitu zen itzulpena (euskal tradizioko antzerki molde ezagunenera), nahiz eta batzuek dioten Senekak errezitatzeko idatzi zituela bere tragediak, eta ez antzezteko (Bilbao Telletxea, 2002, 224. or.). Euskarazko bertsoan, Oihartzabalek (1985, 83. or.) pastoralen ezaugarri metrikoei buruz dioenari jarraituz, lau bertso-lerroko ahapaldiak osatu ziren, lerro bakoitzean zortzi silaba ingururekin eta errima asonante edo bokalikoarekin bigarren eta laugarren lerroetan.

Laburpen modura, taula honetan bildu dira itzulgai bakoitzarentzat proposaturiko doinu eta neurriak:

I. taula: itzulgaien corpusa eta itzulpenetan erabilitako doinu eta neurriak

JATORRIZKO TESTUA				GURE ITZULPENA	
LATINDAR AUTOREA	IDAZLANA	GURE ITZULGAIA	NEURRIA	DOINUA	NEURRIA
Virgilio	<i>Eneida</i>	IV, 1-55 lerroak	Hexametro daktolikoak	<i>Goizian goizik jeiki ninduzun I</i>	Zortziko handia
Ovidio	<i>Tristia</i> 'Saminak'	I, 3, 1-26 lerroak	Distiko elegiakoak	<i>Haurtxo txikia negarrez dago I</i>	Zortziko handia
Martzial	<i>Liber spectaculorum</i> 'Ikuskizunen liburua'	26. epigrama	Distiko elegiakoak	<i>Sagutxo batzuekin</i>	Hamarreko txikia
	<i>Epigrammata</i> 'Epigramak'	I, 87. epigrama	Distiko elegiakoak	<i>Antton eta Maria I</i>	Hamarreko txikia
	<i>Epigrammata</i> 'Epigramak'	X, 47. epigrama	Endekasilabo falezioak	<i>Nagusi jauna hauxe da lana A</i>	Zazpi puntuko berezia
Seneka	<i>Phaedra</i> 'Fedra'	274-295 lerroak	Endekasilabo safikoak	Zuberoako trajerietakoa ⁴	Pastoraletako bertsetak

4. Itzulpen-prozesua

Hurtado Albirrek (2001), hainbat teoriarik itzulpen-estrategiak identifikatzeko eta sailkatzeko egindako proposamenak bilduta, itzulpen-tekniken sailkapen orohartzailerik bat osatu zuen. Lan horretan deskribatuta daude gure itzulpen-saioan erabilitako teknikak. Alde batetik, "anplifikazioa" deitzen dio xede-testuan sorburu-testuan ageri ez diren termino edo adierazpenak gehitzeari; aldiz, jatorrizko testuko adierazpenen bat itzulpenean gordetzen ez bada, "elisio" gisa deskribatzen du. Horrez gain, "zabaltze linguistikoa" eta "trinkotze linguistikoa" ere aipatzen ditu, alegia, itzulpenean sorburu-testuan baino elementu linguistiko gehiago edo gutxiago erabiltzea, hurrenez hurren. Atal honek latindar poeten lanak euskaratzeko erabilitako itzulpen-estrategiak izango ditu hizpide.

[4] Kasu honetan ez da Bertso Doinutegiko estekarik ipini, datu-base horretan "Pastoralak" atalean sailkatutarik agertzen den doinu bakarra Lehen eta Azken Pheredi-kue-takoa delako, ez trajedian erabili ohi dena. Doinua entzun nahi izanez gero, guk aurkezturiko grabazioetan topa daiteke.

4.1. Zubi-testuen erabilera

Itzulpen-saio praktikoan gaztelaniazko itzulpenak erabili ziren zubi-testu gisa, baina latinezko bertsoak ere kontsultatu ziren, jatorrizko aha-paldien eta bertso-lerroen egiturak kontuan hartzeko. Garrantzitsua da hemen aipatzea gaztelaniazko itzulpenak ez zirela abesteko eginak, ez eta hitz neurtutan ere, lerrotan aurkeztu arren, latineko bertso-lerroen antzera. Zehazki, hauek dira erabilitako zubi-testuak:

Virgilioren *Eneida* (IV, 1-55): Eugenio de Ochoa y Montelen (1869) itzulpena.

Ovidioren *Saminak* (I, 3, 1-26): Eulogio Baeza Anguloren (2005) itzulpena.

Martzialen epigramak: José Guillén Cabañeroren (2004) itzulpenak.

Senekaren *Fedra* (274-295): Leonor Pérez Gómezen (2012) itzulpena.

Horrez gain, *The Latin Library* bildumako testuak baliatuz, gaztelaniazko itzulpenetan mantendu ez zituzten xehetasun batzuk berreskuratu ziren jatorrizko testuetatik. Hona hemen, adibide gisa, Ovidioren *Saminak* idazlanetik itzulitako pasarteko bigarren bertsoa:

Ausoniatik joan beharra
ekarri zidan biziak,
hala agindu zidalako behin
garaiko zesar handiak.
Aldarte txarrak guztiz baldartu
zizkidan erabakiak
eta guztia nahaspilatu,
aldiz, itxaronaldiak.

Alde batetik, latinezko *Iam prope lux aderat, qua me discedere Caesar / finibus extremae iusserat Ausoniae* (I, 3, 5-6) bertso-lerroen gaztelaniazko itzulpenean “ya estaba cerca el día en que Augusto me había ordenado partir desde las fronteras de la más remota Italia” ageri zen, baina euskaratze-saioan “Ausonia” erabili zen “Italia” beharrean, Ovidiok izen hori erabiltzen baitu jatorrizko bertsoan (nahiz eta penintsula italiko osoari egiten dion erreferentzia). Arrazoi beragatik, “Augusto” izena erabili ordez “garaiko zesar handi” eman zen euskarazko itzulpenean, latinezko *Caesar* haren ordain gisa.

Halaber, sorta bereko bosgarren bertsoan “Libia” erabili zen, eta ez “Afrika”, nahiz eta gaztelaniazko bertsoak “no estaba presente mi hija;

estaba lejos, en las tierras de África” darabilen latinezko *Nata procul Libycis aberat diuersa sub oris* (I, 3, 19) itzultzeko:

Emaztearen esku nituen
bihotza eta burua,
baina hark ere merezi gabe
negarrez zuen barrua;
alaba, berriz, Libian zenez
bizilekua hartua,
urrutikoa zitzaion nire
zorigaiztoko patua.

4.2. Poemetan etenak atzematea eta amaieratik hasita itzultzea

Zalantzarik gabe, itzulpen-prozesuaren alderdirik konplexuenetako bat jatorrizko poemak bertso edo bertsetetan banatzea izan zen. Poemak “hauste” horren arriskuaz jabetuta, garrantzi handia eman zitzaion itzulgaietan eten posibleak identifikatzeari. Jatorrizko poemak distiko lokabetan bereizita zeuden kasuetan, eten horiek baliatu ziren bertso batetik besterako jauziak egiteko, baina beste kasu batzuetan erabaki egin behar izan zen jatorrizko poema non ebaki. Horretarako, alde batetik, jatorrizko poemaren edukari erreparatu zitzaion eta, bestetik, sintaxiari. Hala-ber, bertsolaritzaaren tradizioari jarraituz, bertsoei ahalik eta amaiera biribilenak emateko saiakera egin zen, eta horrek ere baldintzatu zuen aiztoaren kokapena poemak zatitzaerako garaian.

Zehaztasun handiagoarekin aztertuko dugun Virgilioren *Eneidako* pasartean, kasurako, edukizko eten bat dago 30. bertso-lerroaren ostean. Ondorioz, etenaren aurreko testu-zatiaren itzulpena bertso baten amaieran ematea erabaki zen. Azken zati hori, 30. lerroa, hain zuzen, Virgilioren *sic effata sinum lacrimis impleuit abortis*, honela dago emanda gaztelaniazko itzulpenean: “habló así, y llenó su regazo de impetuosas lágrimas”. Artikulu honen oinarrian dagoen itzulpen-prozesuan, bertsolaritza egin ohi den moduan, amaieratik hasita sortu ziren bertsoak. Goiko esaldia itzultzeko, esaterako, lehenik eta behin, baliokide posibleak bilatu ziren xede-hizkuntzan, bertso-neurriak errespetatuz eta errimari erreparatuz. Hau izan zen itzulpen-saioko lehen proposamena:

eta negar-malko oldarkorrek
hartu zioten magala

Jarraian, oin posibleak bilatu ziren (*ahala, berehala, bezala, itzala...*). Dena den, bertsoa osatzen hasi aurretik beste aukera batzuk ere aztertu ziren, honako hau kasu:

eta negar-malko oldarkorrek
hartu zioten altzoa

Ondoren, bigarren aukera horrentzat ere oin-zerrendatxo bat osatu zen (*gogoa, osoa, iaioa, giroa...*), eta itzulgaia aztertu zen berriz, ikusteko ea zerrendatutako oinak balia zitezkeen jatorrizko poeman lerro horren aurretik esaten zena adierazteko. Honela dio 29. bertso-lerroak: [*abstulit;*] *ille habeat secum seruetque sepulcro* (eta honela gaztelaniazko itzulpenak: “que los tenga consigo y los guarde en su sepulcro”). Esaldi hori irakurri genuen, *-ala* eta *-oa* errimak buruan, eta ideia hau bururatu zitzaigun: “hilobian gorde ditzala”. Beraz, bertsoaren amaiera gisa lehen aukera hartu eta bertsoa osatuz joan ginen pixkanaka-pixkanaka.

Prozesu hori luze samarra izan zen, noski, jatorrizko poemako ideia bakoitzarentzat bilatu behar izan baikenituen baliokideak eta oinak. Hona hemen nola geratu zen bertso hori, sorta horretako bederatzigarrena, hain zuzen, prozesuaren amaieran:

Kontuan hartuz gero Sikeok
bihotza ostu zidala,
nahiko ninake ehorztokian
berekin gorde nazala.»
Halaxe jardun zuen hizketan
hondoa jota bezala,
negar-malkoek oldarkor hartu
zioten arte magala.

Dena den, kasu askotan, bertsoaren amaiera berehala otu arren, tratatuta gelditu ginen aurreko puntuak lotu ezinik, eta baztertu egin behar izan genuen lehen proposamen hori, errima behar bezain emankorra ez zelako edo, besterik gabe, amaiera horrekin ez guelako jatorrizko poema berreraikitze modurik ikusten.

4.3. Gure itzulpen-estrategia: “txiklearen teknika”

Jatorrizko poemak bertsoan banatzeko zailtasuna, aurreko atalean dagoeneko aipatu duguna, are nabarmenagoa izan zen esaldi luzeekin: nola itzuli sintaxi bihurridun esaldiak, itzulgaia hor nonbait ebakitzea komeni bada? Atal honetan, lehenik eta behin, Senekaren *Fedra* tragedia-

ko bertso-lerroentzat proposaturiko itzulpenean oinarrituko gara, saio praktikoan Zuberoako pastoralaren moldean itzultitako lan bakarrean, hain zuzen ere. Ondoren, bertso-neurrietara egokitutako itzulpenei helduko diegu, eta Virgilioren *Eneida* eta Ovidioren *Saminak* lanentzat proposaturiko itzulpenen zati batzuk aztertuko ditugu.

4.3.1. Itzulpena pastoralaren moldera egokitzea

Senekaren tragedia Zuberoako pastoralaren moldera ekarri zen artikulu honen oinarrian dagoen itzulpen-saioan. Oihartzabalen (1985, 83. or.) arabera, pastoraletako bertset edo ahapaldi bakoitzari mezu-unitate bat dagokio, oro har, eta ahapaldiaren erdiko hausturak “ebakitze sintaktiko bat” markatzen du.

Fedra lanetik itzultitako pasarteko hiru zatitxo aztertuko ditugu jarraian:

A adibidea: *Fedra*, 276-278 lerroak

impotens flammis simul et sagittis
iste lascius puer et renidens
tela quam certo moderatur arcu!

Gure zubi-testuan honela:

¡con qué certero arco dirige sus saetas
ese niño caprichoso y sonriente,
tan despótico con sus llamas como con sus flechas!

Itzulpen-saio praktikoan, esaldia luzeegitzat jo zen ahapaldi baka-
rrean itzultzeko, baina laburregitzat bi ahapaldi oso betetzeko. Azke-
nean, bi ahapalditan itzultzea erabaki zen, bigarrean betelan pixka bat
eginda:

Horko haur apetatsu
eta zoragarriak
arku artetsu batekin
zuzentzen ditu geziak;

irribarre zabala
ahotik kendu gabe,
tiranoa geziekin,
baita sugarrekin ere!

Jatorrizko poemako *lasciuus puer et renidens* (“niño caprichoso y sonriente”) “haur apetatsu eta zoragarria” gisa itzuli zen, baina hurrengo bertseteko “irribarre zabala ahotik kendu gabe” ere itzulpenaren zati da; bigarren ahapaldia nolabait bete behar zelako gehitu zen. Esaldi luze hori bi ahapalditara egokitzeko mila modu zeuden, jakina. Bigarren ahapaldiko lehen bi lerroak osatzeko erabil genezakeen, esaterako, “irribarretsu baina arduraz eta trebe”, edo “irribarrez, guztiak maitemintzea xede”, edo “maitasunezko gezi jaurtiketan errege” edo “irriñoaz haratago badu nahiko botere”. Prozesu hau, beraz, itzulpena bezainbeste sormen-lana izan zen, batzuetan jatorrizko poemaren egokitzapen irudimentsu bat.

B adibidea: *Fedra*, 285-290 lerroak

quaeque nascentem uidet ora solem,
 quaeque ad Hesperias iacet ora metas,
 si qua feruenti subiecta cancro est,
 si qua Parrhasiae glacialis ursae
 semper errantes patitur colonos,
 nouit hos aestus [...]

Gure zubi-testuan honela:

Todas las regiones que ven nacer al Sol,
 todas las regiones que están junto a los confines de Hesperia,
 las que se hallan bajo el ardiente Cáncer,
 las de la gélida Osa parrasia
 que soportan colonos siempre errantes,
 todas conocen este fuego [...]

Kasu honetan ere, jatorrizko esaldia luze samarra zenez, mezua ahapaldi ezberdinetan bereizi behar izan zen, ahapaldi bakoitzari mezu-unitate bat dagokiola dioen araua hautsi arren. Hona hemen nola birsortu zen ideia hori ahapalditan:

Hesperiarekin mugan
 dauden eskualdeek,
 eta eguzkia jaiotzen
 ikusten duten horiek,

Cancer bero-beroaren
 behealdean kokatuek,

Parrasiako hartz izoztuko
kolono alderraiek,
eskualde denek dute
bero hau ezaguna,
eta gazteen sugarrak
pizteko duen gaitasuna.

Jatorrizko poemaren sintaxi bereizgarri horrek atzerakarga moduko bat iradokitzen du, irakurlea atezuan daukana; beraz, itzulpenean efektu horri eusteko, esaldiaren predikatua berariaz utzi zen ezkutuan hirugarren ahapaldira arte. Bestalde, irakurlearengan emozio horiek pizteko errepikapenak erabiltzen direnez jatorrizko poeman (*quaeque... quaeque... si qua... si qua...*), itzulpenean ere baliabide estilistiko horren alde egin eta lehen eta bigarren ahapaldietan errima mantendu zen, horrek jatorrizko esaldiaren osotasunari heltzen lagundu dezakeela iritzita. Horrez gain, hirugarren ahapaldiaren bigarren erdia osatzeko, sorburu-testuko hurrengo esaldiko edukiak erabili behar izan ziren (aukera gehiago ere ba- zeuden, jakina, besteak beste, betelana egitea).

Hona hemen jatorrizko poemaren jarraipena:

C adibidea: Fedra, 290-293 lerroak

[...] iuenum feroces
conciat flammis senibusque fessis
rursus extinctos reuocat calores,
uirginum ignoto ferit igne pectus

Gure zubi-testuan honela:

[...] atiza
las llamas fogosas de los jóvenes y a los viejos cansados
trae de nuevo los calores extinguidos;
hiere con un fuego desconocido el corazón de los jóvenes

Eta guk honela eman genion jarraipena itzulpenari:

Adineko nekatuei
itzultzen dizkie pozak;
su ezezagunez zauritzen
neska gazteen bihotzak.

Kasu honetan, beraz, betelanaren ordeztasuna egin zen *senibusque fessis / rursus extinctos reuocat calores* “a los viejos cansados trae de nuevo los calores extinguidos” ideia- ren itzulpenean. Eta garbi dago arrazoia

zein den: beste behin ere, esaldi horretan informazio gehiegi zegoen ahapaldi bakarrerako, baina gutxiegi bi ahapaldi sortzeko.

Orain artekoak laburbiltzeko, esan daiteke jatorrizko poemetako esaldi luzeak hainbat ahapalditan banatu behar izan zirela itzulpenetan eta, horretarako, mezua txikle baten moduan hedatzen eta konprimatzen ibili ginela etengabe.

4.3.2. *Itzulpena bertso-neurrietara egokitzea*

Dagoeneko aipatu dugu pastoraletako ahapaldi bakoitzari mezu-unitate bat dagokiola. Gure iritiz, bertsolaritzan are zurrunagoa da arau hori: bertsoak osotasuna behar du, bai edukiaren bai sintaxiaren aldetik. Gainera, sorta bereko bertsoen artean loturak egin daitezkeen arren, bertso bakoitzeko azken puntuan aurreko bertso-lerroetan esandakoa biribildu ohi da, bat-bateko bertsolaritzan behintzat. Bestalde, iruditzen zaigu pastoralaren kasuan ahapaldiak bertsotan baino gertuago daudela elkarrengandik, besteak beste, pastoralaren doinuak berak ahapaldi batetik besterako zubia eraikitzen duelako. Bertso-doinuekin ez dugu uste halakorik gertatzen denik; zer esanik ez errepikadun doinuekin (gure ustez, doinu horiekin are handiagoa da ahapaldi batetik besterako jauzia).

Antzinateko poesia latindarra bertsotan euskaratzeko ere “txiklearen teknika” erabili behar izan genuen, beraz. Kasu honetan, gainera, azaldu berri dugunagatik, aurreko atalean baino gehiago tenkatu eta zanpatu behar izan genuen txikleak.

Hori erakusteko, lehenik eta behin, Virgilioren *Eneida* lanetik itzulitako zatian oinarrituko gara. Atal honetan ere hiru adibide jarriko ditugu mahai gainean.

A adibidea: *Eneida*, IV, 15-19 lerroak

si mihi non animo fixum immotumque sederet
ne cui me vinclo vellem sociare iugali,
postquam primus amor deceptam morte fefellit;
si non pertaesum thalami taedaeque fuisset,
huic uni forsant potui succumbere culpae.

Gure zubi-testuan honela:

Si no estuviera en mi ánimo, fijo e inconmovible,
el propósito de a nadie unirme en vínculo matrimonial,
luego que mi primer amor me engañó, frustrada, con la muerte;

si no me hubiera hastiado del tálamo y la antorcha nupcial,
a esta sola infidelidad habría podido tal vez sucumbir.

Esaldi osoa bertso berean jasotzeko beharra ikusi genuen, bestela hartzaileak kontakizunaren haria galduko lukeelako eta jatorrizko poemaren zentzua galdu egingo litzatekeelako. Hona hemen itzulpena:

Senarra galdu ninan ueña
ederki dinat gomuta,
eta ordutik zintzotasunez
plazer oro dinat uka.
Baina oraintsu burutapen hau
hasi zaidan mehatxuka:
hil arte iraun behar al dinat
ilunpean haztamuka?

Garbi dago bertso hau, itzulpena baino gehiago, jatorrizko poemaren euskarazko bertso libre bat dela. Jakina, horren atzean ez daude sintaxi-kontuak bakarrik, baita olerkia zortziko handiaren mugetara bortxatu beharra ere. Horrek esan nahi du, alde batetik, itzulpeneko bertso-lerro bikoitiak zortzi silabara egokitu behar izan zirela eta bakoitiak hamar silabara (bost silabako bi hitz-multzora, zehazki) eta, bestetik, bertso-lerro bikoitiei errima gehitu behar izan zitzaizela. Laburbilduz, itzulpen honetan formari eman zitzaion garrantzia edukiari baino gehiago, eta ondorioz itzulpen oso libre sortu zen, ideia nagusiak birmoldatuta.

B adibidea: *Eneida*, IV, 23-27 lerroak

[...] agnosco veteris vestigia flammae.
sed mihi vel tellus optem prius ima dehiscat
vel pater omnipotens adigat me fulmine ad umbras,
pallentis umbras Erebo noctemque profundam,
ante, pudor, quam te violo aut tua iura resolvo.

Gure zubi-testuan honela:

[...] Reconozco las huellas de una vieja llama.
Mas antes querría que la tierra profunda se abriera ante mí,
o que me lanzase el padre omnipotente a las sombras con
su rayo,
a las pálidas sombras del Erebo y a la noche profunda,
antes, Pudor, que profanarte o romper los juramentos
que te hice.

Zati honetan ere bertso bakarrean eman nahi izan zen esaldi osoa eta, horretarako, mezua zortziko handiaren metrikara egokitzeaz gainera, sintesi-lana egin behar izan zen, bestela ezinezko baitzitzaigun jatorrizko poemako informazio guztia bertso bakarrean biltzea:

Su bero-bero baten aztarna
piztuta zagon oraindik,
baina behinola prometatua
zintzo bete nahi dinat nik.
Leialtasuna traizionatzeko,
ja ez zeukanat indarririk,
beraz, betiko geldituko naun
alargun eta bakarrik.

C adibidea: *Eneida*, IV, 50-55 lerroak

tu modo posce deos veniam, sacrisque litatis
indulge hospitio causasque innecte morandi,
dum pelago desaevit hiems et aquosus Orion,
quassataeque rates, dum non tractabile caelum.⁷
His dictis impenso animum flammavit amore
spemque dedit dubiae menti solvitque pudorem.

Gure zubi-testuan honela:

Pide sólo la venia de los dioses, con sacrificios adecuados
cuida la hospitalidad y trenza motivos para que se quede,
mientras las tormentas y Orión lluvioso descargan su ira
en el mar
y las naves están aún sin reparar y el cielo tempestuoso.»
Estas palabras su ánimo encendieron con amor desmedido,
dieron esperanza a un corazón en duda y su pudor liberaron.

Kasu honetan arazoa ez zen sintaxia izan; kontua da bertso hau sortako azkena dela, eta azken bi lerroak, aiputik kanpo dauden bakarrak, ez direla aski zortziko handi bat osatzeko (gure iritziz, betelan gehiegi egin beharko litzateke horretarako). Ondorioz, aurreko lau lerroak sintetizatzea proposatu zen, hurrengo biekin elkartuta bertso bat osatzeko:

Giroa zakar dagoenean
eta Orion negarti,
gelditu dadin arrazoi bana
eman jainkoei, temati.»

Hitz goxo eta maitekor haiek
hain emankorrek izaki,
segurtasuna eman zioten
bihotz zalantzati bati.

Atal hau biribiltzeko, Ovidioren *Saminak* idazlanetik euskaraturiko zatia izango dugu hizpide. Itzulpen horretan ere “txiklearen teknika” erabili zen: kasu batzuetan betelana egin behar izan zen bertsoak osatzeko, eta beste batzuetan edukia laburtu, bigarren bertso bat sortzeko adina informazio ez zegoenez, bertso bakarrean guztia bildu behar zelako. Oro har, zortziko handi bat osatu zen distiko elegiako biren lekuan. Sortako azken bigarren bertsoa salbuespena da: bi bertso-lerroren itzulpenarekin zortziko handi oso bat bete behar izan zen sorta osatu ahal izateko.

Jarraian, gure itzulpeneko azken bigarren eta azken bertsoak aztertuko ditugu, jatorrizko testuekin batera. Adibide hauekin erakutsi nahi dugu kasu batean distiko elegiako bakarra euskaratu genuela zortziko handi batean, eta bigarren kasuan bi distiko, euskarazko zortziko handi bakarrean. Ziur aski beste inon baino hobeto ikus daiteke hemen nola ibili ginen zabal lehenengo kasuan, eta bigarrean, berriz, hauta-lanean.

A adibidea: *Saminak*, I, 3, 21-22 lerroak

quocumque aspiceres, luctus gemitusque sonabant,
formaque non taciti funeris intus erat.

Gure zubi-testuan honela:

Doquiera que mirases, llantos y gemidos se oían y el aspecto del interior de la casa era el de un nada silencioso funeral.

Eta gure itzulpena:

Negar-intziri ozenak eta
auhenak han eta hemen;
aiene eta zizpuru haiek
edonon entzun zitezkeen.
Etxe barruko bilkura hura
hileta bilakatu zen,
eta balizko hileta hartan
erostak agintzen zuen.

B adibidea: *Saminak*, I, 3, 23-26 lerroak

femina uirque meo, pueri quoque funere maerent,
 inque domo lacrimas angulus omnis habet.
 si licet exemplis in paruis grandibus uti,
 haec facies Troiae, cum caperetur, erat.

Gure zubi-testuan honela:

Mujeres y hombres, también los criados, lloran en mi entierro,
 y no hay rincón en la casa que no se vea anegado por las
 lágrimas.

Si es lícito servirse de los grandes ejemplos en los incidentes
 menores, tal era el aspecto de Troya en el momento de su
 caída.

Eta gure itzulpena:

Mirabe eta gonbidatuen
 negarraldien ostean,
 malko-jausiak busti gabeko
 txokorik ez zen etxean.
 Alderatzea zilegi bazait
 jarriko dut mahai gainean
 itxura hori bera zuela
 Troiak erori zenean.

4.4. Betelana eta sintesia

Atal honetan azalduko dugunak lotura zuzena du goian “txiklearen teknika” deitu diogunarekin edo, Hurtado Albirren (2001) sailkapenaren arabera, anplifikazioa (itzulpenean jatorrizko testuan ageri ez diren adierazpenak gehitzea), elisioa (sorburu-testuko adierazpenak xede-testuan ez gordetzea), zabaltze linguistikoa (itzulpenean jatorrizko testuan baino elementu linguistiko gehiago erabiltzea) eta trinkotze linguistikoa (itzulpenean jatorrizko testuan baino elementu linguistiko gutxiago erabiltzea) etengabe tartekatzearekin. Bereiz azaldu nahi izan dugu, ordea, kasu honetan itzulgai osoa delako hedatu eta konprimatu duguna, eta ez poema bateko pasarte jakin bat.

Horretarako, Martzialen bi epigramaren itzulpenak alderatuko ditugu: ikuskizunen liburuko 26. epigramarena (ikuskizun koreografikoari buruzkoa) eta epigramen I. liburuko 87. olerkiarena (emakume hordiar

buruzkoa). Jatorrizko bertsioetan, lau distiko elegiakotan emanda daude biak; itzulpenean, ordea, lau hamarreko handi ditu lehenak eta bi besterik ez bigarrenak.

Alde batetik, dantza-emanaldiari buruzko poemak adjektibo ugari ditu, islatzen duen giro alaiaren erakusgarri, eta itzulpenean mezua puztu nahi izan zen ospakizun-kutsu hori iradokitzeko.

Hona hemen, adibide gisa, epigramaren hasiera (*Ikuskizunen liburua*, 26, 1-2):

Lusit Nereidum docilis chorus aequore toto
et uario faciles ordine pinxit aquas.

Gure zubi-testuan honela:

Un entrenado coro de Nereidas se puso a jugar por toda la superficie del mar y decoró las plácidas aguas con variadas tablas.

Eta hemen gure itzulpena:

Ondo trebatutako
koru bat behin bazen
olatuen artean
gustura jostatzen;
nereidak ur gainean
barreiatu ziren,
irudi dotoreak
antzeztuz han-hemen,
hala ur garden haiek
apaindu zituzten.

Epigramaren zentzua ustez aldatu ez genuen arren, goian ikus daiteke “behin bazen”, “han-hemen” eta “hala” balio lexikorik gabeko terminoak gehitu zirela bertso hau osatzeko. Hurtado Albirren (2001) sailkapenaren arabera, anplifikazioa da erabilitako itzulpen-teknika.

Martzialen I, 87 epigraman, aldiz, kontrako bidea hartu eta itzulgaia pixka bat laburtu zen. Horretarako, sintaxiak hala ahalbidetzen zuenez, epigrama bi zatitan banatu eta zati bakoitzaren mezua hamarreko txiki baten bidez berreraiki zen.

Hona hemen epigramaren bigarren zatia (*Epigramak*, I, 87, 5-8):

Quid quod olet grauius mixtum diapasmate uirus
atque duplex animae longius exit odor?

Notas ergo nimis fraudes deprensaque furta
iam tollas et sis ebria simpliciter.

Gure zubi-testuan honela:

¿Es que no huele peor ese veneno mezclado con perfumes y el duplicado olor de tu aliento no llega más lejos? Así pues, déjate ya de artimañas de todos conocidas y trucos descubiertos y sé simplemente una borracha.

Eta gure itzulpena:

Pozoi perfumatua?
Zakurraren putza!
Hatsak kirats bikoitza
ezin desenkusa.
Engainu ezagunak
ez gehiago luza,
azpijokoetatik
libratu gorputza,
eta besterik gabe
izan mozkor hutsa.

Kasu honetan ere ez zen jatorrizko poemaren edukia horrenbeste aldatu, sintetizatu baino. Hurtado Albirrek (2001) deskribatutako trinkotze linguistikoa erabili zen, esaterako, “pozoï perfumatua” gisa eman baitzen *mixtum diapasmate uirus* “veneno mezclado con perfumes”.

4.5. Itzulpen fidelak eta sortzaileagoak

Itzulpen-prozesuari dagokion atal honetan orain arte ikusi ditugun itzulpenak libreak izan dira. Jarraian, apur bat fidelago itzuli ahal izan genituen bi poema aztertuko ditugu, kasu bakan horietan literalitateari zergatik eutsi ahal izan genion azaltzeko.

Saio praktikoko itzulpenik fidelena Senekaren *Fedra* tragediako pasartearena izan zen, zalantzarik gabe. Garrantzitsua da hemen azpimarratzea, alde batetik, pastoraletako bertseten silaba-kopurua ez dela bertotan bezain zurruna eta, bestetik, ahapaldi bakoitzak bi oin baino ez dituela (zortzikoaren kasuan lau dira, eta hamarrekoaren kasuan bost). Gure iritziz, bi ezaugarri horiek erraztu zuten itzulpen fidelagorako bidea.

Hona hemen Senekaren *Fedra* antzezlaneko pasarte bi:

A adibidea: Fedra, 279-282 lerroak

[labitur totas furor in medullas
igne furtiuo populante uenas.]
non habet latam data plaga frontem,
sed uorat tectas penitus medullas.

Gure zubi-testuan honela:

[La locura se desliza por toda la médula
cuando el fuego furtivo devasta las venas]
La herida que asesta no tiene una superficie amplia
pero devora hasta el fondo la oculta médula.

Eta gure itzulpena:

Ezkutuko suak zainak
hondatzen dituenean,
eromena muin osoan
zabaltzen da bat-batean.

Ez da handia zauriak
betetzen duen gaina,
barruraino irensten du,
ordea, barne-muina.

Itzulpena fideltzat jotzen da, pastoralaren errima-jolasa eta ezaugarri metrikoak errespetatzen baititu. Kasu honetan, bigarren ahapaldiko bigarren eta laugarren lerroek zazpina silaba dituzte, eta ez zortzi. Malgutasun horrek ahalbidetu zuen fideltasunari eustea.

B adibidea: Fedra, 294-295 lerroak

et iubet caelo superos relicto
uultibus falsis habitare terras.

Gure zubi-testuan honela:

y ordena a los dioses que dejen el cielo,
y habiten las tierras con falsos rostros.

Eta gure itzulpena:

Jainkoei agintzen die
zerua utz dezaten
eta aurpegi faltsuekin
lurrean ager daitezten.

Kasu honetan, zazpi silaba ditu itzulpeneko bigarren lerroak, eta berderatzi hirugarrenak; hain zuzen tranpatxo horri esker egin ahal izan genuen ia-ia hitzez hitzeko itzulpena.

Jarraian, Martzialen *Epigramak*, X, 47 olerkiari helduko diogu. Epigrama honetan, zoriotsu izateko baldintzen zerrenda moduko bat eskaintzen du autoreak. Itzulgaiak aditzik gabeko esaldi nominalak biltzen ditu erabateko parataxian, eta orain arte aipatu ditugun itzulpen-teknikak ez dira baliagarriak halako testuak itzultzeko. Kasu honetan, beraz, jatorrizko olerkiaren ezaugarri sintaktikoen ondorioz egin ahal izan zen itzulpen fidela. Metrikari dagokionez, lehenago aipatu dugun moduan, bertsolaritzaren tradizioko zazpi puntuko berezia erabilita itzuli zen epigrama. Neurri horrek hiru errima ezberdin konbinatzen ditu bertso berean, eta hori gure alde izan genuen itzulpenean, soilik bi edo hiru hitz hoskide bilatu behar izan baikenituen errima bakoitzarekin (gogora dezagun, berriz ere, zortzikoaren kasuan lau zirela eta hamarrekoren kasuan bost). Bestalde, jatorrizko poemako elementuak multzokatuta daude, eta itzulpen-saioan ahalegina egin zen multzo horiek errespetatzeko. Hain zuzen ere, bertsoaren barruan, errima bereko zati bakoitzean mul-tzo horietako bat eman zen, salbuespenak salbuespen.

Hona hemen epigramaren amaiera (*Epigramak*, X, 47, 8-13):

Convictus facilis, sine arte mensa;
 Nox non ebria, sed soluta curis;
 Non tristis torus, et tamen pudicus;
 Somnus, qui faciat breves tenebras:
 Quod sis, esse velis nihilque malis;
 Summum nec metuas diem nec optes.

Gure zubi-testuan honela:

un trato afable, una mesa sin lujo; una noche sin borrachera,
 pero libre de preocupaciones; una alcoba movidita pero
 también casta; un sueño que haga breves las desgracias;
 querer ser lo que eres y no preferir nada más; no temer el día
 de la muerte ni desearlo.

Eta jarraian itzulpeneko azken bi bertsoak:

Luxurik ez du behar mahaiak
 rudikatzeko une alaiak.
 Gauak horditu gabe igaro,
 baina kezkarik gabe nahiago.

Izan atsegin
 eta lasaitasunez lo egin,
 zorigaitz oro leundu dadin!

Logelatxoan jolasbidea,
 kastoia eta garbia, ordea.
 Zaren hori maitatzea hobe
 gehiagorik desiratu gabe;
 ongizatea;
 heriotzak ez ikaratzea,
 baina haren zain ez egotea.

Goian ikus daitekeen moduan, itzulpenean ez zen sorburu-testuko elementuen ordena errespetatu, baina itzulpena fidela da aurreko atalekoen aldean. Pasarte honetarako hautaturiko errima batzuk (*egin-dadin*, *hobe-gabe* eta *ikaratzea-egotea*, besteak beste) ez dira aberatsak edo hoskidetasun-maila altukoak, eta horrek ere zabaldu zuen fideltasunerako bidea. Dena den, aipatzekoa da “ongizatea” lerroa: epigramaren zentzua aldatzen ez duen arren, ez da jatorrizko poeman ageri, baina ezinbestean txertatu behar zen adierazpenen bat azken bertsoa osatze aldera.

Atal hau amaitu aurretik, beharrezko zaigu ohar bat egitea. Itzulpen-saioan landutako antzinateko poemek erreferentzia mitologiko eta geografiko ugari dituzte, eta horiek itzulpenetan mantentzen ahalegindu ginen, nahiz eta, atal honetan askotan aipatu dugun moduan, edukia bertsoara egokitu beharrak sarritan baldintzatu gintuen. Erreferentzien galerak, beraz, ez ziren nabarmenak izan, baina aipatu behar dugu Virgilioren *Eneida* lanaren itzulpenean ez genuela modurik ikusi Libia, Sirte eta Tiro leku-izenak mantentzeko.

4.6. Itzulpena musikatzea

Bertsotan itzultzea, metrika zehatz batekin itzultzea ez ezik, doinu jakin batekin itzultzea ere bada. Horrek itzulpena baldintzatzen du, jakina, baina aldi berean ekarpena egiten dio. Gure ustez, itzulpenak bertso-doinuekin musikaturik aurkeztea bide bat izan daiteke latindar poesia klasikoa bestela oso urrutiko zaion publiko bati aurkezteko. Akaso edukiaren fideltasunean galdu denak merezi du Virgilio inoiz irakurri ez duen bertsozalea, Virgilio bertsotan entzutean, Virgiliorengana gerturatzeko balio badu.

Virgilioren *Eneida* lanetik itzulitako zatian hiru pertsonaiaren ahotsak nahasten dira, hain zuzen ere, Dido protagonistarena, Ana ahizparena eta narratzailearena. Hona hemen sorta horretako bi bertso:

Kontuan hartuz gero Sikeok
bihotza ostu zidala,
nahiko ninake ehorztokian
berekin gorde nazala.»
Halaxe jardun zuen hizketan
hondoa jota bezala,
negar-malkoek oldarkor hartu
zioten arte magala.

«Ahizpa maitea, hementxe naukan,»
ihardetsi zion Anak;
«ezin hau horren gogor estutu
joandako iraganak.
Ez nizkinake aintzat hartuko
beste batzuen esanak;
utzi errautsak, maneak eta
heriotzak eramanak!

Lehen bertsoaren hasieran Dido ari da hizketan, eta erditik aurrera narratzaileak hartzen du hitza. Bigarren bertsoan, berriz, Anaren ahotsa nagusitzen da, baina bigarren lerroa narratzaileari dagokio. Ahizpen pasarteak emakume-ahotsekin grabatzea hobetsi zen, eta grabazioan ahotsak elkarrengandik bereiztea errazagoa izan zedin, gizonezko narratzailea hautatu zen. Zalantzarik gabe, alde horretatik grabatutako bertasioak ekarpen handia egiten dio idatzizko itzulpenari.

Bestalde, Ovidioren *Saminak* idazlanaren itzulpenerako ere gizonezko-ahotsa hobetsi zen; izan ere, sorta lehen pertsonan dago idatzita eta, protagonista gizonezkoa denez, xehetasun horrek sinesgarritasuna ematen dio sortari, poemaren edukia eta garaiko testuingurua kontuan hartuta.

5. Itzulpen-lagin bat eta bertasio musikatua

Atal honetan, itzulpenetako bat aurkeztuko da adibide gisa⁵. Autorea-ri eta haren idazlan nagusiei buruzko datu batzuk emango dira lehenik, eta sorburu-testuari buruzko xehetasunak aletuko dira jarraian. Itzul-

gaiari buruzko datuak Bilbao Telletxearen (2002) *Latin-literaturarako sarbi-dea: idazleak eta idazlanak* lanetik eta entziklopedia orokorretatik hartuta-koak dira, eta gure helburua ez da irakurleari latindar literaturari buruzko informazio xehea eskaintzea, itzulpena bere testuinguruan kokatzea baino.

Virgilioren *Eneida*

Publio Virgilio Maron (Andes, K.a. 70 – Brindisi, K.a. 19) latindar poetak, familia aberatsekoa izan ez arren, erretorika-ikasketak egin ahal izan zituen Cremonan, Milanen eta Erroman. *Bukolikoak* poema-bilduma argitaratu zuenean, hainbat egileren babesa izan zuen, besteak beste Horaziorena eta ondoren Augusto enperadorea izango zen Oktaviorena. Obra horretan, Teokrito egile grekoaren *Idilioak* lanean oinarrituta, landa-eremuko eta mendiko gertakizunak izan zituen hizpide, baina bere garaiko pertsonaiei buruzko erreferentziak ere tartekatu zituen. Geroago, *Georgikoak* lana idatzi zuen Mezenasek bultzatuta. Bertan, Italiako nekazarien bizimodua deskribatu zuen, landa-eremuaren xarma goratuz eta giro tradizional hura berrezartzeko beharra azpimarratuz.

Virgilioren lanik ezagunena da *Eneida*, Homeroren epopeien ildotik idatzia. Augusto enperadoreak eskatuta, herri erromatarren handitasuna goraiatzeko da lan horretan, eta bertute jainkotiarra esleitzen zaio Augusto berari, Venus jainkosaren eta Eneas Troiako heroia-aren seme gisa aurkezten baita. Argudioari dagokionez, lehenik eta behin kontatzen da nola heldu zen Eneas Afrikako kostaldera, suak hartutako Troiatik ihes egin eta Kreusa emaztea galduta. Kartagon, Dido, bertako erregina, Eneasekin maitemintzen da, baina Eneasek alde egitean bere buruaz beste egiten du haren ezpatarekin. Istorioaren amaieran, Lazorra, Italiako kostaldera, heltzen da Eneas, eta bertan Latino erregeak bere alaba Lavinia emaztetzat har dezan esaten dio. Lavinia, oster, Turno erregearekin ezkontzekoa zenez, Turnoren eta Eneasen arteko borroka pizten da, eta Eneasek irabazten du. Hil aurretik, Virgiliok bere lana erre zezaten eskatu zuen, berak bilatzen zuen perfekzio-mailara iritsi ez zela argudiatuta, baina Augustok entzungor egin zion.

[5] Gainerako itzulpen musikatuak helbide honetan entzun daitezke, Irene Ruiz de Austri, Hur Sarasua, Ixak Sarasua eta Maddi Zabalok abestuta:
<https://soundcloud.com/jone-makazaga>

Gure itzulgaia: Eneida, IV, 1-55

Neurria: Hexametro daktilikoak

At regina, gravi iamdudum saucia cura,
 vulnus alit venis, et caeco carpitur igni.
 Multa viri virtus animo, multusque recursat
 gentis honos: haerent infixi pectore vultus,
 verbaque; nec placidam membris dat cura quietem. 5
 Postera Phoebea lustrabat lampade terras,
 humentemque Aurora polo dimoverat umbram,
 cum sic unanimum alloquitur male sana sororem:
 Anna soror, quae me suspensam insomnia terrent!
 Quis novus hic nostris successit sedibus hospes! 10
 Quem sese ore ferens! quam forti pectore et armis!
 Credo equidem (nec vana fides) genus esse deorum.
 Degeneres animos timor arguit. Heu! quibus ille
 iactatus fatis! quae bella exhausta canebat!
 Si mihi non animo fixum immotumque sederet, 15
 ne cui me vinclo vellem sociare iugali,
 postquam primus amor deceptam morte fefellit:
 si non pertaesum thalami taedaeque fuisset;
 huic uni forsant potui succumbere culpae.
 Anna (fatebor enim), miseri post fata Sichaei 20
 coniugis, et sparsos fraterna caede Penates,
 solus hic inflexit sensus, animusque labantem
 impulit: agnosco veteris vestigia flammae.
 Sed mihi vel tellus optem prius ima dehiscat,
 vel Pater omnipotens adigat me fulmine ad umbras, 25
 pallentes umbras Erebi, noctemque profundam,
 ante, pudor, quam te violo, aut tua iura resolvo.
 Ille meos, primus qui me sibi iunxit, amores
 abstulit; ille habeat secum, servetque sepulcro.

 Sic effata, sinum lacrymis implevit obortis. 30
 Anna refert: O luce magis dilecta sorori,
 solane perpetua moerens carpere iuventa?
 Nec dulces natos, Veneris nec praemia noris?
 Id cinerem aut manes credis curare sepultos?
 Esto: aegram nulli quondam flexere mariti; 35
 non Libyae, non ante Tyro: despectus Iarbas,
 ductoresque alii, quos Africa terra triumphis
 dives alit: placitone etiam pugnabis amori?
 Nec venit in mentem quorum consederis arvis?
 Hinc Getulae urbes, genus insuperabile bello, 40

et Numidae infreni cingunt, et inhospita Syrtis:
 hinc deserta siti regio, lateque furentes
 Barcaei. Quid bella Tyro surgentia dicam,
 Germanique minas?
 Dis equidem auspibus reor, et Iunone secunda, 45
 huc cursum Iliacas vento tenuisse carinas.
 Quam tu urbem, soror, hanc cernes, quae surgere regna
 Coniugio tali! Teucrum comitantibus armis,
 Punica se quantis attollet gloria rebus!
 Tu modo posce deos veniam; sacrisque litatis, 50
 indulge hospitio, causasque innecte morandi;
 dum pelago desaevit hiems, et aquosus Orion,
 quassataeque rates, et non tractabile coelum.
 His dictis incensum animum inflammavit amore,
 spemque dedit dubiae menti, solvitque pudorem. 55

Artikuluaren hasieran aipatu den moduan, *Eneida* obraren laugarren liburuko 1-55 bertso-lerroak euskaratu ziren itzulpen-saio praktikoan. Lerro horiek Didoren eta Ana ahizpa gogaidearen arteko elkarriketa bat islatzen dute: Dido Eneasekin amodioz itsututa dago, baina Sikeo senarra hil zitzaionetik ez da ausartu gerturatu zaizkion gizonekin elkartzera. Ahizpak diotso Eneasekiko duen pasioari jarraitzeko.

Gure itzulpena: *Eneida*, IV, 1-55

Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

Neurria: Zortziko handia

Bertsio musikatua: entzun [SOUNDCLOUDen](#)

Ahotsak: Irene Ruiz de Austri, Hur Sarasua eta Maddi Zabalo

Gitarra: Ixak Sarasua

Aspaldidanik du erreginak
 atsekabe lazgarria;
 min horrek guztiz estaltzen dio
 gorputz eta aurpegia;
 bere odolez elikatzen du
 maitasunaren zauria,
 nahigabetuta dago, su-lama
 itsu batek irentsia⁶.

[6] IV. liburuaren hasieran, Didoren pasiozko maitasuna sinbolizatu nahi da zauriaren eta suaren irudien bidez. Elementu horiek behin eta berriz errepikatzen dira IV. liburuan, eta kontakizunari nolabaiteko osotasuna ematen diote.

Neurrigabeko indarra dauka,
 borrokarako ahalmena,
 leinu osoan ezaguna da
 gerlari honen izena⁷;
 keinu zein hitzez⁸ lapurtzen dio
 Didori bihotz-barrena
 eta horrexek ebasten dio
 behar duen atsedena.

Hurrengo goizak egunsentian
 ekin zion bideari,
 Feboren⁹ argi distiratsuak
 lehia itzal hezeari.
 Ahizpa ondoan zuen orduan
 horren zintzo, horren adi,
 eta zirrarez hitz egin zion
 bidelagun maiteari:

«Ana, irrika ezingo dinat
 niretzat gorde luzaro;
 gerlari honen garra ez ninan
 inon ikusi lehenago!
 Haren eitea berezia dun,
 trebezia din oparo,
 pozarren nagon, haren indarraz
 liluratuta zeharo.

Ikarak aise seinalatzen din
 koldar jokutzen duena;
 garaiezina dun, hala ere,
 gerlari honen kemena.
 Patu bihurri ororen aurka
 lortua din garaipena;
 ene begiek garbi zaukaten:
 jainkotierra din sena.

-
- [7] Zati honetan, Didoren ikuspuntutik deskribatzen da Eneas. Helburua, beraz, Troiako heroia deskribatzeaz haratago, Didoren obsesioa agerian uztea ere bada.
- [8] Didok ostatu eman zion Eneasi, eta ongi-etorriko oturuntzan Eneasek kontatu zuen nola egin zuen alde Troiatik, Ankises aita bizkarrean hartuta eta seme Askaniori eskutik helduta. Kontakizunak txoratuta utzi zuen Dido.
- [9] Eguzkiaren epitetoetako bat da Febo.

Senarra galdu ninan unea
ederki dinat gomuta,
eta ordutik zintzotasunez
plazer oro dinat uka.
Baina oraintsu burutapen hau
hasi zaidan mehatxuka:
hil arte iraun behar al dinat
ilunpean haztamuka?

Ana, Sikeo galtzea izan
hunan benetan gogorra,
gure anaiak hil zinan eta,
hara, betiko zigorra¹⁰.
Nahiz penateek¹¹ zakar astindu
ene destino doilorra,
behingoz norbaitek irabazi din
nire bihotz labainkorra.

Su bero-bero baten aztarna
piztuta zagon oraindik,
baina behinola prometatua
zintzo bete nahi dinat nik.
Leialtasuna traizionatzeko,
ja ez zeukanat indarrik,
beraz, betiko geldituko naun
alargun eta bakarrik.

Kontuan hartuz gero Sikeok
bihotza ostu zidala,
nahiko ninake ehorztokian
berekin gorde nazala.»
Halaxe jardun zuen hizketan
hondoa jota bezala,
negar-malkoek oldarkor hartu
zioten arte magala.

«Ahizpa maitea, hementxe naukan,»
ihardetsi zion Anak;
«ezin hau horren gogor estutu

[10] Pigmalionek, Dido eta Anaren anaiak, Sikeo hil zuen haren altxorra eskuratzeko.

[11] Etxea babesten zuten jainkoak dira penateak.

joandako iraganak.
 Ez nizkinake aintzat hartuko
 beste batzuen esanak;
 utzi errautsak, maneak¹² eta
 heriotzak eramanak!

Hi limurtu nahi izan hauenak
 onartua din porrota,
 desberdina dun, ordea, orain
 daukanan gatazka-mota:
 desio dunan zerbaitengatik
 daukan barrua orroka;
 hire ametsa zapuztu arte
 egingo al dun borroka?

Hik ez al dakin noren lurretan
 ipini haizen bizitzen?
 Hemen liskarrak etenik gabe
 ari ditun biderkatzen:
 Bartze, Getulia eta Numidia¹³
 zakarki zaizkin oldartzen.
 Guztiak gosez eta egarriz
 ari ditun hiltzen hemen.

Ontzi ugari Junoni esker,
 jainkoen babesarekin¹⁴,
 Troiatik bizkor heldu hitunan,
 hegan, haize-boladekin.
 Hi, Dido, honek ekarriko din
 ziur nahikoa etekin;
 dena loria bihurtuko dun
 horrelako ezteiekin.

Giroa zakar dagoenean
 eta Orion negarti¹⁵,

[12] Maneak hildakoen arimak dira. Penateen moduan, etxea babesten zuten.

[13] Afrika iparraldeko eskualde gerlariak, Kartagoren (Didoren erresumaren) lehiakideak.

[14] Junonek eragin zuen Eneas Kartagora eraman zuen ekaitza, eta gero ere Junonek eta Venusek lagundu zuten Dido eta Eneas elkartu zitezen.

[15] Poseidon itsasoaren jainkoaren semea da Orion. Hemen esan nahi da Orionek euri-jasa eragin zezakeela itsasoaren gainean.

gelditu dadin arrazoi bana
eman jainkoei, temati.»
Hitz goxo eta maitekor haiek
hain emankorrek izaki,
segurtasuna eman zioten
bihotz zalantzati bati.

6. Poesia bertsotan euskaratzea: ondorioak

Artikulu honek bi helburu nagusi zituen: latindar autoreen lan klasi-koak bertsotan euskaratzeko prozesuan izandako zailtasunen eta topatu-riko irtenbideen berri ematea, eta latinezko poesia zehazki bertso eta bertsetetara egokitzearen abantailak eta desabantailak balantzan jartzea. Horrez gain, itzulpen-prozesuan doinuek izandako eragina nabarmendu da eta musikatuta aurkeztu da bertso-neurrietara egokitutako itzulpenetako bat, poesia neurtua literatura tradizioko neurrietan euskaratzeari buruzko orain arteko hausnarketetan (Ruiz Arzalluz, 1987a; Ruiz Arzalluz, 1987b; Blanco Leoz, 2015) ez baita aldagai hori aztertu.

Lan honen oinarrian dagoen itzulpen-saio praktikoan, itzulgaiei forma aldatzen ibili ginen etengabe, eta sorturiko itzulpenak libreak izan ziren, hain libreak ezen, batzuetan, sormen-lanaren mugara iritsi baitziren. Zalantzarik gabe, latindar autoreen idazlanak bertsolaritzako eta pastoraletako moldeetara bortxatzearen eragozpen nagusia jatorrizko poemen edukia bere osotasunean erreproduzitzeko zailtasuna izan zen.

Sorburu-poemen edukia zehaztasun osoz berreraikitzeke ezintasun hori bertso-neurriei men egin izanaren albo-ondorio da, jakina: saio praktikoaren xedea jatorrizko poemen literalitateari eustea izan balitz, ziur aski prosan idatziko genukeen gure itzulpena, xede-testuaren forma horrenbeste baldintzatu gabe, edukiari lehentasuna eman eta itzulpen fidelagoa sortzeko. Baina, ordain gisa, gure ustez lortu genuen literatura unibertsaleko poesia neurtua euskal irakurle edo entzulearentzat atsegingarri izan litekeen moduan aurkeztea. Hau da, itzulpen libre eta sortzaileago baten bidez, poemen berreraikitze hori baliatu ahal izan zen publiko zabalagoaren eta latindar autoreen poema klasikoaren artean zubiak eraikitzeke, hautaturiko itzulbideak aukera eman baitzuen xede-testuak, ahots artetsuz abestuta eta musika-tresnekin lagunduta, beste era batean jendarteratzeko.

Bertsotan itzultzea doinu batekin itzultzea ere bada, eta bertso-neurriak ezinbestean itzulpena baldintzatzen duen arren, ekarpena ere egi-ten dio. Azken finean, baliteke, itzulpenaren desleialtasuna gorabehera, bertsozaleren batek Ovidioren herriminen atzean zer dagoen jakin nahi izatea, doinu goibeekin giroturiko kontakizunaren garratzak harra-patu duelako edo, agian, baliteke doinu alaiekin aurkezturiko sorta baten xalotasunak erakarrita, literaturazaleren batek Martzialek deskribaturi-ko ur gardenetan murgildu nahi izatea.

7. Bibliografia

- Baeza Angulo, E. [itzul.] (2005). *Ovidio. Tristezas*. Consejo Superior de Investigaciones Científicas.
- Bilbao Telletxea, G. (2002). *Latin-literaturarako sarbidea: idazleak eta idazlanak*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Blanco Leoz, A. (2015). *Lazarragaren poesia-itzulpenetatik Juan Garziaren soneto itzulietara: poesia neurtuaren euskal itzulpenen azterketa* [Argitaratu gabeko Master Amaierako Lana]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- De Ochoa y Montel, E. [itzul.] (1869). *Obras completas de P. Virgilio Marón*. Madrid. Imprenta Manuel Rivadeneyra.
- Dorronsoro Goikoetxea, J. (1995). *Bertso Doinutegia*. Euskal Herriko Bertsolari Elkarte. [Xenpelar Dokumentazio Zentroaren BDB Bertsolaritzaren datu-basean eskuragarri]
<<https://bdb.bertsoszale.eus/web/doinutegia/bilaketa>>
- Garzia Garmendia, Juan [itzul.] (2014a). *William Shakespeare: sonetoak. Zeru horren infernuak*. Hernani: Aztarna.
- Garzia Garmendia, Juan [itzul.] (2014b). *Uda-gau bateko ametsa. William Shakespeare*. Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte. [Online soilik argitaratua]
<<https://eizie.eus/eu/argitalpenak/argitalpen-bereziak/ugba2014>>
- Guillén Cabañero, J. [itzul.] (2004). *Epigramas de Marco Valerio Marcial*. Institución «Fernando el Católico».
- Holmes, J.S. (1969). Forms of Verse Translation and the Translation of Verse Form. *Babel*, 15(4), 195-201.
- Hurtado Albir, A. (2001). *Traducción y Traductología. Introducción a la Traductología*. Ed. Cátedra.

- Ibarluzea Santisteban, M. (2015). Shakespeare bertsolari: literatura itzulpena bertsoan. Itzulpen-saio bateko gogoetak. *Senez*, 46, 63-78.
- Oihartzabal Bidegorri, B. (1985). *Zuberoako herri teatroa. Ohiko pastoralak*. Donostia: Haranburu.
- Pamies Bertrán, A. (1990). Métrica y traducción de textos poéticos. In M. Raders, eta J. Conesa (arg.), *III Encuentros Complutenses en torno a la Traducción* (197-202. or.). Editorial Complutense.
- Payá Ruiz, X. (2012). *Towards a taxonomy for Basque oral poetry* Bertsolaritza [Master Amaierako Lana. Birminghameko unibertsitatea]. University of Birmingham Research Archive eTheses Repository. <<https://etheses.bham.ac.uk/id/eprint/4185/>>
- Payá Ruiz, X. [itzul.] (2013). *Pedro Calderón de la Barca. Bizitza amets*. Alberdania, Erein, Igela.
- Pérez Gómez, L. [itzul.] (2012). *Séneca, Lucio Anneo. Tragedias completas*. Ed. Cátedra.
- Ruiz Arzalluz, I. (1987a). El metro en las traducciones de los clásicos latinos al euskara. I. Metros dactílicos y yambo-trocaicos. *ASJU*, 21(1), 41-79.
- Ruiz Arzalluz, I. (1987b). El metro en las traducciones de los clásicos latinos al euskara. II. Los metros eolios. *ASJU*, 21(2), 389-407.

Alexander Tapia Perurenaren
Kattalin Umezurtza antzezlanaren azterketa

Study of the play Kattalin Umezurtza
by Alexander Tapia Perurena

Edurne GARDE MARTINEZ
Euskal Filologian lizentziaduna

Jasotze data: 2024.07.30 Onartze data: 2024.09.27

LABURPENA

Hurrengo lerroetan Alexander Tapia Perurenaren *Kattalin Umezurtza* antzerki lanaren azterketa proposatzen da. Antzerki misiolariarekin antzekotasuna duela esan da eta baieztapen hau aitzakia bihurtuko da testuaren azterketa egiteko, bai eta antzerki misiolariarekin antzekotasunik duen ala ez ikusteko. Horretarako, antzerki misiolarien puntu garrantzitsuenak azalduko dira, semiotikaren inguruan testuaren azterketarako baliagarria izango den laburpentxoia egingo da, eta horren harira testua bera aztertuko da. Bukatzeko, garaiko antzerkiaren garrantziaren zergatiak hitz egingo da eta Martin Ugalderen obra pedagogikotzat hartzeko irizpideak gurera ekarriko ditugu testua didaktikoa den ala ez baieztatzeko.

Gako-hitzak: Alexander Tapia Perurena; antzerki misiolaria; lan didaktikoa; kristau doktrina; euskal gizartea eta euskara.

ABSTRACT

Subsequently, the study of the play *Kattalin Umezurtza* by Alexander Tapia Perurena will be addressed. It is said to have a background in missionary theatre, which is intended to justify a thorough analysis of the text to see if it has any connections with missionary play. To do so, a concise explanation of the key concepts in semiotics and missionary theatre is offered. This will be useful for offering an insightful analysis of the content. Finally, the importance of theatre /drama in that time will be dealt with. As well as this, the arguments why Martin Ugalde's work is considered a pedagogical work will be applied to this work. And this will allow us to assert that *Kattalin Umezurtza* is a didactic work.

Keywords: Alexander Tapia Perurena; missionary theatre; didactic assignment (work); Christian doctrine; basque society and basque language.

1. Sarrera. 2. Antzerkiaren oinarritzko ezaugarriak. 3. Alexander Tapia Perurena. 4. Antzerki misiolaria. 5. *Kattalin Umezurtza* testua. 5.1. Espazio eszenikoak. 5.2. Zeinu ez-linguistikoak. 5.2.1. Tonua. 5.2.2. Mimika. 5.2.3. Jantzkerak. 5.2.4. Osagaiak. 5.2.5. Musika. 6. *Kattalin Umezurtza* lan didaktikoa. 7. Ondorioak. 8. Bibliografia.

1. Sarrera

Alexander Tapia Perurenari buruz oso gutxi hitz egin da, gehien egin duena Joxemiel Bidador izan da, baina batez ere bere olerkigintza izan du aztergai. Hala ere, hau ez zen izan jorratu zuen esparru bakarra. Olerkigintzan aritua zen arren, kazetaritzan ere jardun zuen, eta antzerki obra bat idatzi zuen, *Kattalin Umezurtza*, eta antzerki lan hau izango da, hain zuzen ere, hurrengo lerroetan aztergai, Iruñeko idazleari buruzko lanak osatze aldera.

2. Antzerkiaren oinarritzko ezaugarriak

Lan honen lanketa nola egingo den labur-labur azaltzea komeniko litzateke, antzerkia izanik desberdintasun nabarmenak baitaude orain arte ezagunagoak diren olerkigintzaren edo narrazioaren egiturazko ikerketa saioen artean.

Antzerkia antzezteko idatzi den literatura testua da. Idatzirik egonagatik, irakur daiteke, baina antzeztu ere antzez daiteke. Elkarrizketak egituratzen du antzerkiaren berbaldia, baina taulara daiteke, horrenbestez, eskakizun zehatzak bete behar ditu, alegia, elkarrizketa, aurrez aurre eman behar da eta orainaldian izan behar du, ez da elkarrizketa narrati-boa edo deskriptiboa (Bobes, 2004).

Antzerkian berbaldia egituratzen duten elkarrizketek gain, badira kontuan hartzeko eta eszenan erreferentzia bihurtuko diren antzeppen oharrak edo akotazioak, irakurleei zenbait ekintza argitzeko baliagarriak izango zaizkionak eta autoreak proposatutako espazio eszenikoa nahiz irudizkoa nola dagoen definituko dutenak. Akotazio hauek antzezlanaren taularatzeko orduan testu idatzi eta antzeztuaren zubia izango dira, ezin

baitugu ahantz antzerki lanak antzezpena bera helburu duela eta horretarako idazten dela (González Maestro, 1996).

Elkarrizketarekin bat, “zeinuak” ere aztergai izango dira, guretzat egindakoak, linguistikoak nahiz ez-linguistikoak eta hauek izango dira antzezlanari esanahiak gehituko dizkietenak. Eszenatokiaren testuinguruan kokatutako edozein objektuk berehala funtzio semiotiko bat gauzatzen du. Objektu guztiak antzerkiaren zeinuak dira, berdin dio benetako objektua den ala ez, ikusleek zeinu bezala ikusiko dituzte eta. Beraz, edozein objektu zeinu bihurtzen da eszenan sartu bezain laster, izan ere, batzuetan eszenatokian hortik kanpo ez lituzkeen ezaugarriak hartzen ditu (Garamendi, 1991).

Zeinu sistema zabala den arren, hemen antzezlanak berak eskaintzen dizkigunak soilik azalduko dira: tonua, mimika, pertsonaien janzkera, osagaiak eta musika.

3. Alexander Tapia Perurena

Itzul gaitezen, bada, Alexander Tapiarengana. Nor izan zen Alexander Tapia? Lehen esan bezala, Joxemiel Bidadorren eskutik iritsi zaizkigu idazlearen bizitzaren nondik norako gehienak, antzezlanak, olerkiak, eta hauen azterketa estilistikoa. Edonola ere, oraingo lan honetan bere antzerki lana aztergai izango denez, sarrera gisa laburpentxo bat egingo da.

Alexander Tapia Perurena nafar olerkaria izan zen, olerkari txukuna, gerra iritsi zen arte, behintzat. Poeta honi buruz gutxi idatzi da, eta baliteke Lauaxeta, Lizardi, Aitzol eta Orixe olerkari handiekin batera idatzi izanagatik, zaila suertatu izana bere ahotsa indarrez entzutea. 1899ko abuztuaren 11n jaio zen, Iruñean. Ikasteari ekin zion eta ez bakarrik Iruñean, baizik eta European ere; Parisen hiru urtez eta Alemanian bost urtez aritu zen. Gurasoak karlistak ziren, eta haiengandik jaso zuen Euskal Herriarekiko maitasuna; ez, ordea, euskara, gurasoek inoiz ez baitzioten euskaraz egin euskaldunak ziren arren. Ez dakigu euskara non edo noiz ikasi zuen, baina badakigu euskara irakasle aritu zela Lekarozko ikastetxean.

Bere olerki lanei dagokienez, lehenengo lanak atzerrian zegoela ezaugarri zituen. Maitasuna izan zen Alexanderrek jorratu zuen gai nagusia. Maitasun malenkoniatsua, sufrimenduzkoa. 1921ean *Euzkadi* egunkariko euskal orrian “Amatxo”, “Txori gaua” eta “Oñazez” olerkiak argitaratu zituen. Handik aurrera Kirikiñoren eskutik “egunekua” saila argita-

ratzen hasi zen. Kirikiñoren hutsunea Orixek bete zuen eta Orixerena Lauaxetak, eta azken hau Tapiaren kazetaritzako eredu bihurtu zen.

Nafarroako prentsa jeltzaleek, *Napartarra* eta *La voz de Navarra* egunkariak, euskarari bere tokia eman zioten. Azken honetan eta Joxe Agerre-ren zuzendaritzapean Alexanderrek “Egunekua” txokoa lortu zuen. *Ama-yur* astekarian ere kolaborazioak egin zituen eta aldizkari jeltzale askotan parte hartu zuen poesia eta prosa idatziz. Osotara, 50 bat olerki, 30 bat prentsa kolaborazio eta antzerki lan bat (Bidador, 2016).

Kattalin Umezurtza Alexander Tapiaren antzezlan da. Ez dakigu noizkoa den. Gerrak Tapiaren ekoizpena mututu bazuen ere, Bidadorren us-tean antzezlan gerra ondokoa izan daiteke, eta arrazoi hau ematen du:

Segurtasun osoz ziurtatu ezin bada ere, gerraosteko lana dela esanen nuke nik, ez baitu gerra aurretiko ohiko gaia erabiltzen, hau da, aberriarena; ez da propaganda jeltzalea egiteko lana beraz, lan morala baizik, antzerki misionalaren tankerakoa zenbaitetan (Bidador, 2016, 140. or.).

Ikertutako lanen artean presentzia gutxi izan duen gaia izango da hurrengo lerroetan nagusi: erlijioa. Halere, ez litzateke berezi suertatu behar, jakina baita, jeltzalea izanik, Jainkoarekiko sentimendu sendoa bazuela (Bidador, 2016). Fededuna zen. Oso. Eta ez bakarrik pentsatzeko eran, baizik eta portaeran ere; *Acción Católikako* kidea izan zen, hala nola *Solidaridad Cristiana de familias* elkartekoa (Satrustegi, 2000, 20. or.).

Bidadorrek aipatzen duen antzerki misiolaria zer den ulertzeko, denboran atzera egin behar dugu, nahikotxo, gainera. Mexikoko aro kolonialera, hain zuzen.

4. Antzerki misiolaria

Aro kolonialean eliz gizonak fede katolikoa zabaltzeko antzerkiaz baliatu ziren, eta antzerki mota honi misiolaria deitu zaio. 1521ean Tenochtitlan erori eta Mexikoko historia koloniala hasi zen. Garaipenak, beste gauza batzuen artean, kristau erlijioaren ezarpena ekarri zuen, herri menderatuak herri menderatzailearen kultura, ohitura eta sinismenak onartu egin behar izan zituen eta frantziskotarrak arduratu ziren prozesu hau aurrera eramateaz. Ez zuten gaizki egin, ez horixe. Lehenengo, lekuko kultura ezagutzeaz kezkatu ziren, eta, ondoren, lekuko hizkuntza eta hainbat eduki erabili zituzten kristau pentsamenduan moldatu ahal izateko (Ordiz, 1987; Aracil, 2008):

El llamado teatro misionero o evangelizador, que se concibe en principio como una forma de transmisión directa, en lengua náhuatl, de las verdades fundamentales de la religión cristiana para un público que no estaba preparado para discursos teóricos y moralizantes (Ordiz, 1987, 68. or.).

Konkista aurreko garaian nahuatl gizartean antzerki agerpenak egiten ziren, hainbat kronikarik adierazi zuten bezala: eszenatokia zegoen, bertan ospakizun erlijiosoekin lotura zuten festa adierazpen itxurako “joko” edo “aurkezpenak” egiten ziren, eta aktoreek eszenak antzezteko mozerrotzeko ohitura zuten. Horrenbestez, esan daiteke antzinako nahuatl kulturaren egiten ziren agerraldi hauetan antzerki gertakaria definitzen dituzten elementuak agertzen zirela; eszenatokian paper zehatz bat interpretatzen duten aktoreak, aurkezpen gai bat eta zaindutako eszenografia, besteak beste. “Para ellos se trataba de reactualizar el mito por medio del ritual como forma de sumergirse en el «tiempo sagrado» de los dioses y así implorar su ayuda o invocar su fuerza. Se trata de expresiones fuertemente ligadas al contexto religioso” (Ordiz, 1987, 70. or.).

Bertakoen kulturaren oinarriko ezagutza abiapuntu, eta, betiere, fraideen begiradapean, indigenek indigenentzat bere hizkuntzan aurkeztu zituzten lanak. Lan hauek ebanjelizazioaren helburuak lortzeko bitartekari garrantzitsuenetarikoak bihurtu ziren, antzinako jainkoen aldean Jainko kristauaren nagusitasuna, adibidez (Ordiz, 1987; Aracil, 2008).

5. *Kattalin Umezurtza* testua

Helburu bertsua aurreikus daiteke *Kattalin Umezurtza* antzezlanean, herriko hizkuntza erabiliz, euskara, eta herriko ohiturak uztartuz, kristau ikasbidea zabaldu nahi delako kutsua suma baitaiteke. Antzezlana irakurtzen hastean, lehenengo zatia Azkuek *Euskalerrriaren Yakintzan* bildutako *alaba eta alabaordea* ipuinaren tankera duela dirudi (Azkue, 1989, 18-23. or.); bestalde, antzezlanean irakurketan aurrera egin ahala uler daiteke zergatik hartzen zaion misiolari itxura antzezlariari. Ama hilda duen neska bati familia berriak eskaintzen dion maitasun eza eta mespretxuaren kontra indarrez erantzun ordez, “ongia” egitea erabaki eta horrek gauzak bere onera etortzea ekarriko du, familiaren maitasuna lortuz. Lan didaktikoa goitik behera, ez bakarrik gaian, baita garapenean ere.

Ezin zehatz daiteke antzerki obra hau antzezteko idatzi zen ala ez, ez dakigu inoiz antzeztua izan zen ere. Argi dagoena da eszena desberdine-

tan banatutako testu idatziak oharrak dituela eta antzezen forma horiek proposamen didaktikorako komunikazioa errazten dutela.

Obrak daukan alderdi didaktiko hori da, hain zuzen, azpimarratu behar dena, helburua hori baita, heztea, ikusleak edo irakurleak heztea; izan ere, Espainia Berriko arte dramatikorako antzezpenei buruz dauden ikerketetan hori bera azpimarratu dute:

El teatro funcionó como un recurso más para la evangelización de los nativos. Mediante dramatizaciones de historias basadas en las Sagradas Escrituras o en relatos hagiográficos, al indio se le mostraban, en principio, dos asuntos: por un lado, la misma Historia Sagrada o relatos cristianos y, por otro, una serie de actitudes convenientes propias de su educación dentro de la nueva doctrina (Rivera, 1993, 314. or.).

Kattalin Umezurtzak kristau doktrinako gaiak dakartza. Pertsonaia lau eta ekintza xumeko antzezlan honek Itun Berrian agertzen diren Talioiaren legearen garaipenaz ohartzera eramango gaitu. Dударik gabe, eta lehen aipatu bezala, balio didaktikoa helburu duen antzerki laburra, Itun Berriak berezkoa duen azaltze soila bezalakoa, baina euskaldunen hizkuntzan idatzia eta gerora azalduko diren euskal usadioez zipriztindua.

Bi ekitalditan banatzen da eta ekitaldi bakoitza hainbat eszenatan; lehenengoak zortzi eszena ditu eta bigarrenak hamabost:

1. ekitaldia

1. Kattalin negarrez ari da bere etxeko atarian eta maitasun faltaz kezaka. Zerurantz begira amari hitz egin dio. Berarekin joan nahi du. Aitak ekarritako ama berriak neskame bihurtu du eta ez berak, ez bere bi seme-alabek ez dute maite.
2. Joxek Kattalin negarrez aurkitu du eta bere kontra egiten du gupidarik gabe, iseka egin dio eta iraindu. Kattalinek aurka egin dio, bere burua defendatu du eta Joxe ere laidotu du. Joxek Kattalin jo du.
3. Patxiko, Kattalinen lehengusua, eta mutiko talde bat agertu dira eta iseka hasi zaizkio Joxeri, Kattalin jotzen erakusten duen “balentria” dela eta. Patxikok Joxe mehatxatu ondoren, Kattalinen-gana hurbildu da zer gertatu den jakiteko. Kattalinek gertatutakoa azaldu dio, eta errua bere gain hartu du. Patxikok Joxe jo du, nahiz eta Kattalinek ez egiteko eskatu dion.

4. Mutiko talde bat agertu da. Buruzagiak eskolara bidali ditu eta Joxek piper egin dezaten proposatu. Patxikok eskolara joan nahi du eta Erramunek sagarrak ebastera. Batzuek azken honen alde egin dute. Maisua imitatzen dute gaztelaniaz egiten dielako. Sagarrak ebastera joan- ez joan ari dira, badirudi baserriko zakurra arriskutsua dela; izan ere, Erramuni kosk egin zion sagarrak lapurtzera joan zenean. Patxikok merezita zuela esan dio, besteen etxean sartzeagatik. Erramunek gertatutakoa azaltzen du. Talde bakoitza norabide bat hartzen ari delarik, eskale bat agertu da.
5. Eskaleak erdaraz bedeinkatu du; umeez, ordea, trufa eta iseka egin diote. Kattalinez artaburu bat eman dio, eta eskaleak berarentzat alkandorarik izango ote duen amari galde diezaion eskatu. Kattalinez obeditu egiten du. Ez dute alkandorarik, ordea. Mutilez honen kontura eta erdalduna izateagatik iseka jarraitzen dute, eskalea haien atzetik makilaz jo nahian segituz alde egin duten arte.
6. Kattalin mutilen jokaera ankerraz kexatu da, eta, bitartean, Mikaela ugazama atera da. Etxeko hainbat lan egin dituen galdetu dio eta mehatxatu ere egin du eskatutako lan bat bukatzen ez badu. Mikaela ohartu da Kattalin negar egiten aritu dela, eta gertatutakoa azaltzera behartu du. Azken honek gertatutakoa azaldu dionean, jaso eta jasandakoa merezita dituela aipatu dio, Joxe zirikatzeagatik. Negar gehiago eginez gero etxetik botako duela mehatxatu du eta zartako bat ematen dio.
7. Irene agertu da eta Kattalini zer gertatu den azaltzeko eskatu dio, neskatza negarrez baitago, jo dutela eta etxean ez dutela maite bistan da. Kattalinez koskortuagoa balitz Iruñean neskame arituko litzatekeela dio. Irenez ezin du onartu nola Elizaldeko emakume bat neskame izan daitekeen. Irenez egoera honen aurrean Kattalini “ona” izan dadila eskatu dio, besteen bihotzak samurtzeko ez baitago hori baino bide hoberik, Jainkoak ez du atzendu eta, gainera, amak zerutik lagunduko dio. Kattalinez Ireneri bere tratu ona eskertzen dio, inork ez baitu berak bezain ongi tratatzen.
8. Kattalinez galtzerdiak konpontzen dituen bitartean, bere burua- rekin hitz egin du eta zein gaizki sentiarazten duten aipatu, bestalde, Irenez esandakoa beteko du eta amari laguntzeko eskatu dio.

2. ekitaldia

1. Lolita bere burua apaintzen eta goraiatzan ari da. Beste neska gazteez hitz egiten ari da, zer daukaten, nola doazen apaindurik... Bere burua goستن du, besteekin alderatzen da eta bera maila gorago batean dagoela uste du.
2. Kattalin sartu da Lolitarekin egotera. Kattalinek bere burua zarpailtzat hartu eta Lolitarena goraiatzan du. Lolitak Kattalin mespretxatu du eta bere goraiapamen horien atzean asmo bihurria duela uste du. Kattalin ez duela maite onartu du. Kattalinek, ordea, bere asmo ona adierazteko goizean Jauregiko etxekoandreak eman dizkion bi goxokietako bat berari emango diola esan dio. Goxokia har dezan erregutu dio. Lolitak eskertu, besarkada eman eta lagunekin alde egin du.
3. Amari zuzendu zaio, Irenek esan bezala “ongia” egin ondoren, ordaina jaso du, nahiz eta ez dakien beti gertatuko den.
4. Ugazamak ezin du sinetsi Lolitarekin haserretu gabe egon denik. Neska maltzurra dela uste du. Sarea janzteko eta garbiketa egitera bidali du. Kattalin joan da.
5. Ugazama Kattalinen aldaketaz ohartu da, senarrak ere askotan aipatu izan dio behin baino gehiagotan Kattalinenenganako duten gogorkeria. Baliteke iritsi izana bere seme-alabek duten eskubide berberak izateko unea.
6. Kattalin etxetik atera da sarea buruan eta arropa gainean, baina xaboia ahaztu du. Ugazamak iraindu du, berriz ere. Berriro mar-txa hartzen duelarik, fardel bat erori da.
7. Ugazamak paperean bildutako fardela hartu du eta Kattalinez erdeinuzko tonuan hitz egin du. Lapurretan aritu delakoan dago, aurkitutakoa ez baita etxekoa, Iruñean eresia baizik, eta berak ez du ezer erosi Iruñean.
8. Kattalin garbitzetik heldutakoan, ugazama zain du eta goxokiak lapurtu dituela esan dio. Kattalinek ezetz, “Yauregiko” andreak eman dizkiola esan dio. Ondoren, denak irentsi dituela eta bere anai-arrebei ez diela ezer gorde aurpegiratu dio.
9. Patxiko eta lagunak agertu dira, besteen zain dauden bitartean besteak salatzearen kontuaz dihardute. Patxik ez du inoiz laguna salatuko. Haiekin lapurretan aritu direlako beldurrez, batzuek sa-

latu nahi dute, Patxik ez, berak nahikoa du sagarrak ez dituela ebatsi jakitearekin. Mutilek hartu duten biderantz doaz.

10. Aita lanetik etorri da eta ugazamari Kattalinekin duten jarrera aurpegiratu dio, Lolitaren jarreraz ere kexatzen da eta Lolita lanean hasiko dela esan du. Hasieran berarekin, ohitu arte, Lolita neska on eta langile bihurtu nahi du. Ugazama ez dago ados.
11. Joxe eta lagunak iritsi dira. Joxek muturra odolez betea dauka, sagarrak ebasten ari zirela zakurra agertu baitzaie eta istripu bat izan du. Erramunek Joxeri gezur bat asma dezala eskatu dio, arazorik eduki nahi izan ezean. Beste mutiko batek Erramuni asma dezala eskatu dio, haren erruz gertatu baita dena. Gauzak lasaitzen joan dira eta Patxi eta lagunak agertu dira.
12. Erramunek joateko eskatu die. Patxi ez da alaitzen gertatutakoa-rengatik, baina ebastegatik gertatu dela aipatzen du eta errua Erramunena dela esan. Mutiko batzuek Erramunen alde egin dute, beste batzuek, ordea, Patxiren alde. Azkenean, B mutikoa eta Erramun eztabaidan hasi dira.
13. Kattalin eztabaida gelditzera agertu da. Joxe hurbildu eta erru guztia berea dela esan dio. Joxe eta Patxi elkar joka hasi dira eta Kattalinekin gelditzeko eskatu dio, Joxe anaia du eta. B mutikoak Kattalini joateko eskatu dio eta honek ezetz, ondorioz hortik atera eta jotzen hasi zaizkio. Kattalin oihuka hasi da.
14. Aita atera da, ugazama ere bai. Ugazama Joxerengana doa eta aita Kattalinengana. Mutikoen liskarrean jarraitzen dute.
15. Apaiza dator. Mutikoen apaiza ikusi orduko liskarra gelditu dute. Zer gertatzen den galdetu du. Amak Joxe kolpatu dutela aipatu du eta aitak Kattalin bospasei mutiltzarren artean zanpatzen ari zirela. Joxeri zuzendu zaio eta zer gertatu den azalarazi dio. Sagarrak ebastera joan direla aipatu dio eta Erramunen ideia izan dela. Erramunek bere burua defendatu du, bazutela ez joaterik, eta, joan badira haiek nahi izan dutelako izan dela. Apaiza iritzi berekoa da, Erramun errudun da, baina besteak ere bai, harekin joan direlako. Sagarrak ebastera nola joan diren azaldu du Joxek, xehetasunez. Baita Kattalin iskanbilan nola sartu den, nola berak Joxeri aurpegia ateratzearren egin duen. Ugazamak ezin du sinetsi, baina gerora Kattalin aingerutzat hartu du. Kattalinekin eta Joxek elkarri musu eman diote. Kattalinekin goxokia eman dio.

Ugazama Kattalini bizitza nola hondatu dioten ohartu da, baina kontra egiten jarraitzen du bere seme-alabak jipoitu dituztenen aurka. Aitak ere bai. Kattalinek, lasaitzeko eskatu du, haiek (berak eta Joxek) barkatzen dituztela. Apeza Kattalinek emandako ikasbidea azpimarratu du. Jainkoa Kattalinen ahotik arituko baltz bezala hartu du eta besteen eredu jarri du. Gai-nontzekoentzat zigorra, Jainkoaren zigorra jaso dute, Joxeren kopeta, kasu. Erramun eta gainerako mutilek damutzen direla adierazi dute, baina ausardia kontua dela eta, liskarrean hasi dira berriz. Erramunek gelditzeko eskatu du, bidenabar barkamena eskatuz. Apaiza aitari eta ugazamari zuzendu zaie Kattalinen jarrrera gorai patuz, “ongia” gorai patuz eta “txarkeriak” baztertuz. Kattalin amari mintzatu zaio, orain pozik dago eta Irenek arrazoi zuela aitortu.

Bi ekitaldi eta hogeita hiru eszenatan banatuta dagoen istorio hau hiru zatitan banatuko nuke, helburua kontuan hartuz. Hasierako egoera, Kattalinen bizimodu tristearen aurkezpena; Ireneren aholkua, hots “ongia” egin dezala eta hori egingo duelako erabakia, eta bukaerako egoera, Irenek esandakoa egin eta gerora izango diren aldaketak.

Hasierako egoera lehenengo zazpi eszenek osatuko lukete. Euskal gizartearen eredu da hasierako egoera hau, baserri batean bizi den familia: aita, Kattalin eta aitarekin ezkonduko ugazama-Joxe-Lolita. Ugazamaren papera ez zen arraroa, garai hartako ohiturei atxikirik familia bateko emakumea hiltzean, ohikoa izaten baitzen senarraren bigarren ezkontza bat.

La situación de viudedad era corriente en la sociedad pamplonesa de estos siglos [...] Los viudos contraían segundas nupcias frecuentemente [...] Los hombres se casaban con otra mujer para procurarse otra persona que les criara los hijos de su primer matrimonio, ya que a menudo las mujeres morían en los partos y dejaban una prole numerosa y necesitada (Fernández et al., 1998, 110. or.).

Familia berriak, ordea, ez du etxeko alaba maite; izan ere, etxeko alaba da etxean lan egiten duen bakarra. Mespretxua eta iraina da hari zuzentzean aurkitzen duena. Joxeren ahotik entzun daitezkeen artean, *obe unan lana egiten baun, aper handi orrek!, zarpail zikiña, Gaie emendik zerri bazka prestatzera, kitokime* (2. or.) bezalakoak aurki daitezke eta ugazamaren ahotik ateratzen direnak ez dira samurragoak: *ta, ta, ta... toteldu aiz ala! Ago ixilik!* (7. or.), *Nai dun sapaiko gela illunean sartzea?* (zartako bat ematen

dio) (8. or.). Eta hau da Kattalineek etxean aurkitzen duena, antzezlanaren ildo nagusia izango dena.

Hari nagusi honen osagarri, gizartearen parte diren mutiko taldeak agertuko dira, bi mutiko talde: batetik, mutil txintxoak, Patxiko lehengusua eta bere lagunak, kasu honetan eskolara joaten direnak, *¡Ez yauna! ¡eskolara joan behar gaituk!* (4. or.); eta, bestetik, bihurriak, sagarrak ebastera joaten direnak, Erramun eta Joxe, besteak beste, *¡zer eskola ta zer eskolondo! ¡egin dezagun piper!* (4. or.) *¡Guziak sagarrak ebastera! Goraintziak Don Restitutori* (6. or.).

Lehenengo eszena hauetan pertsonaien heziketa erakutsi nahi da eta heziketa kristauaren dohainak. Esaterako, Kattalin eta Patxiko onak dira, heziketa onekoak dira, eta horrela demostratzen da hirugarren eszenan Joxerekin borrokan ari delarik Patxiko hurbiltzen dela laguntzera eta Kattalineek ez sartzeko eskatzen dionean, gertatutakoaren errua bere gain hartuz: *Baño ez kasurik egin. Ni naiz erruduna; ez niokean orrelakorik esan behar* (3. or.). Bosgarren eszenan, kristau doktrinak aldarrikatzen duen bezala, Kattalineek gose den eskale bati artaburu bat ematen dionean, mutiko bihurriek arropa eskatzen aritzeagatik eskalearen kontura barreak egiten dituzten bitartean, *¿cuántas camisas necesitas pues tú, en todas las casas: una camisa, una camisa? Kamisica, belarrimotza, zarpalu, zorritzu* (7. or.), maisua imitatzen dute, *Mis queridos niños, gure maisu gaiztoak dioen bezala* (5. or.), eta helduenganako errespetu gutxi erakusten dute, sagarrak ebastera doazenean aitatxiri ere trufa eginez zuzentzen zaizkie eta: *Aitatxii... erran diogu -zertako dituzu sagarrak? Ortzik ezta, nola jan behar dituzu?* (20. or.). Hortaz, alde batetik, heziketa oneko pertsonaiak aurkeztuko dira eta, bestetik, heziketa gutxikoak, Erramun eta Joxeren modukoak.

Baina heziketa eman beharko luketenez ere badago zer esanik. Berehala antzeman daiteke nortzuk diren, haiek edo bere seme-alabek besteekiko erakusten dituzten portaerak ikusirik. Ugazama: eredu izan beharko lukeen baina alabaordea gaizki tratatzen duen bitartean seme-alabak erabat babesten dituen emakume gaiztoa dugu. Primeran gogoratzen ditu Kattalineek honen hitzak etxera iritsi berri: *Bein mutiltxoak magalean zeukala, urbildu nintzaion ni ere, ta esan nion: amatxo! Ta ark burua nereganantz itzuli ta esan zidan gogorki: i ez aiz ene alaba* (2. or.). Etxeko alaba bera neskame bihurtu du, *¡oixe dun patxada! ¡olaxen egoten dun alperkerian goiz guzian? ¡olloei eman dien bazka? galtzerdi oiek konpondu...*(7. or.), eta bere seme-alabekin dituen liskarretan beti errudun egiten du: *Oixen, ik deusere egin gabe yoka asi zain. ¡zein ederki antolatzen ditugun gauzak! Ik ere zerbait*

egingo ionan eta (8. or.). Beti erdeinuz mintzatzen zaio Kattalini eta ez bera bakarrik, lehen ikusi ahal izan den bezala, bere bi seme-alabek berdin jokatzeko baitute: *¡Nork izan bear din? ¡Ik, ik, alper alaena! ¡kito -kume zikina* (Joxe) (3. or.), *(Isekaz)- ¡Bai zera! ¡Ona etxeko aingeruñoa! ¡Utikan zatar hori!* (Lolita) (11. or.). Baina zer espero daiteke horrelako familia batengandik? Itun Berriak azaltzen duen parabola batekin primeran labur daiteke; “Zuhaitz bakoitza bere fruituetatik ezagutzen da” (Itun Berria, 1980, 95. or.). Emakume honen parean aita dugu. Alabak jasotzen duen tratua ikusita ere zenbaitetan kexatu besterik egiten ez den pertsonaia, baina ugazamaren seme-alabak primeran tratatzen dituena, adibidez, hamargarren eszenan Lolitaren bidea bestelakoa izatea nahi du: *Zure alabaz nexka on ta langile egin nahi dut. Orain arte yarraitzen ba du, alper arraila aterako da* (16. or.). Nahiz eta benetako aita ez izan, benetakoak egingo lukeen bezala, zuhaitz ona izan nahi du¹. Bere alabaren portaera ere eredugarria da, sufrimendua isilik daraman neskatoak errespetuz hitz egiten dio ugazamari, *-bai andre, bai, aspaldi* (13. or.), nahiz eta bere burua defendatzearen batzuetan lotsagabe erantzuten dion anaiari: *¡Berdin dek! ¡Ez nauk izituko ta ez nauk ezta ixildiko! ¡kito-kume! ¡Bareyale!* (3. or.). Beraz, hezitzaileen artean ere bi talde daude: hezitzaile onak eta hezitzaile txarrak.

Lehenengo zatiaren azkeneko bi eszenetan Ireneren proposamena eta Kattalinen erabakia datoz. Kattalin negarrez ari da berriz ere eta Irene adiskidea agertu da. Irenek Kattalinen bizimodua primeran ezagutzen du: *¡Gaxoa! Etxe ontan ez du gauz onik eginen. Olako neskatikoa apal, bigun, ta polita ta etxe ontan ez dute ikusi nai* (8. or.), eta bera da ezteki hitz egin dion bakarra. Proposamena egin dio, Kattalinen bizimodua aldatuko duen proposamena: *Kattalin, entzun ondo: ez geiegi larritu. Izan adi beti ona. Kalte egiten badikiten. ez kasorik egin; kalte-ordez, ik beti ongi egiten. Orixe bezelakorik ez dun besteen biotzak samurtzeko, ta Yainkoak ez du atzenduko. Uste diñat gauzka laister aldatuko ditunela etxe ontan* (9. or.). Hau da antzezlanaren gakoa eta egoerari buelta emanaraziko diona: *izan beti ona; kalte orde, ik beti ongi egin* (9. or.). Aholku bakar batean Itun Berriaren Lukasen ebanjelioan aurki daitezkeen “Ez egin gogor, gaitz egiten dizunari, Maitzazue zuen etsaiak”² bezalako mezuak antzeman daitezke (Itun Berria, 1980, 30. or.). Guztietan eskatzen da gaizki egiten digunari ez egiteko

[1] Ikus Itun Berria: “Ez da zuhaitz onik, fruitu txarrak ematen dituenik ezta zuhaitz txarrak ere, fruitu onak ematen dituenik” (Itun Berria, 1980, 185. or.).

[2] Ikus Itun Berria: “Entzuna duzue nola dagoen agindua: *Begiari begia; hortzari hortza*. Nik, ordea, hau diotsuet: Ez egin gogor, gaitz egiten dizunari. Baizik-eta norbaitek eskuineko masailan jotzen bazaitu, eskainiezazue beste ere. Auzitara eraman eta jantzia kendu nahi dizunari emaitza soingainekoa ere” (Itun Berria, 1980, 30. or.).

gogor, eta etsaiak maitatzeko gorrotatu orde. Nolabait, “ongia” eginez gero, ondorio onak izango direlako fededunen ustea eskaintzen da, eta hau izango da, hain zuzen ere, hurrengo eszenetan bermatuko dena.

Hirugarren zatiko eszenetan Kattalinekin praktikara eramango du Irenek eskatutakoa, eta eszena bakoitzean neskatxaren egoera nola joango den aldatzen ikusi ahal izango da. Maltzurkeria onberatasun eta maitasun bihurtuko da, eta hainbatetan eztitasun.

Lehenengo, Lolitarekin gertatuko da. Lolitak Kattalin mehatxatu egingo du, baina azken honek burua makurtu edo aurka egin orde maite duela aipatuko dio eta, gainera, dion maitasuna frogatzeko hari oparitutako goxoki bat eskainiko dio. Lolitak eskerrak eta poza agertuko dizkio eta Kattalinenganako lehenengo maitasun frogia gertatuko da, besarkada bat.

Ugazamarekin zailago suertatuko zaio. Hurrengo agerraldian, ugazamak ezin du sinetsi Lolita eta Kattalin mokoka aritu ez izana. Kattalinekin bai Lolita, bai Joxe maite dituela aipatu dio, baina ugazamak ez du sinetsi hasieran; gerora, berriz, pentsatzen jarri da, bere senarrak Kattalinenganako erabiltzen duen gogorkeriaz gogoratu da eta berarekin haserrealdia izan dezakeelakoan bere seme-alaben eskubide berak izango dituela erabakiko du. Bertan behera geldituko dira asmo hauek, ordea, Kattalin arropa garbitzera joaten den bitartean erortzen zaion goxokia aurkitzen duenean. Azalpenak eskatu dizkio eta Kattalinekin Joxerentzako dela erantzungo dio, baina ugazamak ez du sinistuko eta jarrera hau aurpegi-ra botako dio. Kattalinekin ez du oraingoan negarrik egingo, ez eta gogor erantzungo: *(Zalantzan gelditzen da zerbait erran nai balu bezela, baño irensten du). Agur ba, gero arte (15. or).* Geroago, mutilen iskanbilaren erdian sartuko da Kattalin, Patxiren aurrean Joxe salbatzeagatik, eta honek Kattalini berea jasotzera eramango du. Zalapartaren erdian aita eta ugazama aterako dira, eta orduan jakingo du amak Joxe laguntzarren zanpatu dutela beste mutilek. Une honetan gertatuko da ugazamaren aldaketa: *O, neskatiko au aingeruñoa da. Zatoz, maitea, nere besoetara. Gaurdanik, nere alaba kuttuna izango zara. (Kattalin badoa, ugazamarengana, ta onek gogotik laztantzen du. Gero Joxe eta Kattalin laztantzen ditu) (20. or.).*

Ondorio gisa eta gertatutakoaren ideia garbi gelditu ez balitz bezala, apaizak hartuko du hitza: *Arrigarria da emen gertatzen dena. Neskatiko onek ikasbide ederra eman digu. Arrigarria da, benetan, ain neskatiko gaztea orren ederki ekitea. Guziak badakigu etxe ontan ez zela ain ongi ikusia. Ala ere, Kattalin'ek errarik ez du iñoendako, guziak maite ditu, ez da ala kuttuntxoa? (maiteki*

egiten dio) (20. or.). “Una variante más, empleada en estas piezas suele ser la introducción de un personaje de jerarquía moral elevada, que explica directamente, no sólo el tema de la pieza, sino también el modo en que se deben entender las ideas” (Rivera, 1993, 318. or.).

Eszenetako pertsonaien ekintzek jarrera aldaketak ekarriko dituzte, ez bakarrik Kattalinenganako jarrera aldaketa, baizik eta beste pertsonaia batzuen portaera aldaketa ere.

Aita. Ez da aitaren gaitzespenik ikusten bigarren zatiko hamargarren eszenara arte, non ugazamarekin hizketan Kattalinen egoeraz kexatzen hasten den: *Bere: Orain arte ixilik egon naiz! baño ikusten dut gero eta gogorkiago egiten diozuela Kattalin'i. Ori akitu da ahatik. Emen guziak berdin bear da. Biar etxeko andereñoa, bere ezpain gorri, betazal urdin, azazkal me polit ta guzi, nerekin artayorran ariko da. ¿Ezta ba yoaten kalerietara, moda dela-ta aurpegi ta beso eguzkitan beztera? Alorrean beztuko da ederki pertza bezenbat ere, naiez gero* (15. or.). Eta ez da ulertzen zergatik egin duen hain berandu. Garai hartan seme-alaben heziketa etxeko emakumearen esku uzten zen eta akaso, honengatik, edo “etxekoandreak” aginpidea errespetatzeagatik? Edozein baserritan bizi den orekaz, etxeko lanen banaketan eta hainbat esparrutan etxekoandreak duen aginte ahalmenaz argi mintzatzen da Caro Baroja:

Cualquier persona que vaya a un caserío corriente, notará sin embargo, la armonía que en él reina en la repartición del trabajo y uso de la autoridad, pues si bien es cierto que el amo, el padre o cabeza de familia, ejerce en determinadas circunstancias una autoridad suprema, la de la “etxekoandre” no es menor en otros (Caro Baroja, 1974, 256. or.).

Mutilen jarrera. Ez da inolako jokabide aldaketarik sumatzen egin beharrekoak betetzen duen mutil kuadrillarengan, Patxiko eta bere lagunengan. Oso jarrera gardena dute, heziketa oneko mutilak dira. Patxik Kattalinen alde egiten du, Joxe Kattalin jotzen hasten denean: *Banekikan “balentria” itzela bañan ongi aski zekusat, ire “balentria” guztiak neskatiokoak izitzeko gordetzen dekala. Mutikuekin, ez augu ikusten orren ausarta, aatik; Zer egin diok Kattalini?* (3. or.). Gainontzeko mutikoei sagarrak ebastera joatea aurpegiatzen die: *¿Ederki egiña! ¿zertaz sartu bear intzen besteen sagarrak ebastera?* (5. or.). Besteen erabakiaren kontra eskolara joatea erabakitzen du: *Ez, ni eskolara* (6. or.). Eskolatik atera ondoren, Patxik bere lagunengana aurrean gainerako mutilak ez dituela salatuko onartzen du: *¿Ez ta...! Besteen gaiztakerik ez dik beñere salatu bear* (15. or.). Eta bukatzeko, gainerako mutilekin elkartutakoan eta Joxe zauriturik dagoela ikustean aurre egi-

ten die: *Besteen makurrengatik ez nauk alaituko, baño errain nitek ongi egin zaitzuela. Gaizki dabillena gaizki amaituko. Eskolara etorri baziñete ez zitzaizuekean ori gertatuko* (17. or.).

Bestetik, eta mutiko hauen parean, heziketa ona ez dutenen jokabidea dugu. Joxek Kattalin ikusi bezain laster iraindu besterik ez du egiten eta astindu ere egiten du: *Norbaitegatik izain dek ... zarpail zikiña. Gaie emendik zerri bazka estatzera. Ez aiz lotsatzen olako (soñe) zikiñokin etxeko atean egoten. ¡Jendeak zer esan bear duten ere, alako kitokume ate ondoan ikusi-ta! (yoka asten zaio. Neskatikoa(k) bere burua zaintzen du)* (3. or.). Sagarrak lapurtzera joaterakoan harrokeria erakusten dute: *¿ni bildurra? tira guazen ikusiko diagu nor dauken “balentria” (Joxe), ¡Marchen! gure maisuak dion bezala. ¡guziak sagarrak ebastera!* (Erramun) (6. or.), eta haien artean elkar jotzen dute, baita Kattalin bera ere: *¿Ezetz? ikusko diñagu. (Bultzada batez bien artetik ateratzen du. Beste mutikoak inguratu dute ta zanpatzen dute gogorki)* (18. or.). Hauen artean gertatuko da, bai horixe, jokabide aldaketa, Joxek izandako istripuaren ondoren harrapatuak izan baitira eta egia esatera behartuak, aita, ugazama eta apaizaren aurrean: *Yauna damutu zait gaiztakeri ortaz, neri beintzat, ta uste det horiek ere nerekin bat direla. ¿Ez da ala?* (Erramun) (21. or.).

Mutil hauen portaeran kristau ikasbidea ez jarraitzeagatik zer ondorio suerta daitezkeen oso agerikoa da. Bibliak³ erakusten dituen hamar mandamentuetatik hiru behintzat ez dituzte betetzen: Larraldeko sagastiko sagarrak nahi izatea (*ez dituzu besteen ondasunak desiratuko*), lapurtzera joan izana (*ez duzu lapurtuko*) eta bueltan agerian gera ez zitezen gezurra pentsatzera eskatzea (*ez duzu testigantza faltsurik egingo, ez eta gezurrik esango ere*).

Interesgarria da mutil “bihurriak” irudikatzeke eskolara joan ordez sagarrak ebastera doazen kuadrilla batekin parekatu izana eta eskolara joaten direnak mutil zintzoekin. Eskola bizitzarekin parekatzen al du Tapiak? Hau da, eskolara joan nahi ez izatea bizitzan ezer ikasi nahi ez izatearekin parekatu nahi al da? Izan daiteke, eskolara joatea garrantzitsua zen eta.

La suma de ideas suministradas por las madres, abuelas, etc, se une a las de las que se adquieren en las escuelas, donde, aparte de nociones elementales de matemáticas y alguna otra cosa más, el niño comienza su aprendizaje del español o del francés (Caro Baroja, 1972, 236. or.).

[3] Exodo 20, 2-17 edo Deuteronomio 5, 6-21.

Mutiko batzuk joan ez, ordea, eta hara zer gertatu zaion Joxeri, eskolara joan izan balitz ez baitzitzaion halakorik gertatuko, Patxikok azpimarratzen duen bezala. Gertaera hau oso lotua omen dago garai hartako pentsatzeko erarekin. Horri buruz hona hemen zer dioskun Julio Caro Barojak:

No cabe duda de que las partes que ejercen mayor influencia sobre el campesino son la parte moral de la religión y la que gira alrededor de los castigos “en vida” y “post-mortem”.

La idea de que las malas acciones o las infracciones de los deberes religiosos son con frecuencia sancionados en vida, está siempre presente en la moral del campo. [...] Desde pequeños emplean a los chicos la amenaza de este castigo para vedarse mutuamente las acciones más insignificantes. Cuéntanse casos como el siguiente, que recuerdo de cuando yo lo era:

“Un chico subió a un árbol a coger nidos el día de San Juan; se cayó del árbol y se rompió una pierna. Castigo de Dios, porque ni en el día de San Juan ni el día de San Pedro es libre subir a los árboles” (Caro Baroja, 1974, 287. or.).

Caro Barojak azaltzen duenaren eta Joxek sagarrak ebastera joateagatik izan duen istripuaren istorioaren artean antzekotasun handia suma daiteke. Hala ere, mutikoek gertatutakoarekin ikasbide nahikoa izan ez badute, apaiza arduratuko da azpimarratzeaz: *Ortaz, bertzalde, gaur txarke-ri itxusi bat egin duzute. Zigorgarriak egin zarete, ta egia errateko, Yausi zaitzue Yainkoaren zigorkada. Ara Joxe kopeta zilatua. Guziak zarete errudunak, baño, i, Erramun, andiena; bestiak ik bultzatu bai dituk gaiztakeri ori egitera* (21. or.).

Eskolara joatearen garrantziaz mintzatzen deneko baieztapenera itzuli nahi nuke, hain zuzen ere, hizkuntzez hitz egiten denekora. Julio Caro Barojak aipatzen du eskolan gaztelania edo frantsesa ikasteko aukera ematen zitzaiela, adiera positibo batekin, nolabait ikasleak gaztelania ikastera behartuta egongo ez balira bezala, gaztelania jakin beharra inposaketa izan ordez beste hizkuntza bat gustuz ikasteko aukera paregabea balitz bezala, baina badira bestelako testigantzak euskarak garai hartan bizi zuen egoera erakusten dutenak, gaztelania goraiatzan dutenak, gaztelania erabiltzeko derrigortasuna argi eta garbi azaltzen dutenak, bai kalean, bai mezetan, bai eta eskoletan ere. Adibide bat ematearren:

El maestro que en todas partes deberá sentirse español con orgullo –porque es una de las cosas serias de que uno puede envanecer este mundo (Jose Antonio)– lo habrá de ser, y calificado, en las tierras bilin-

gües, para que pongan todo el empeño aprendan con mayor perfección posible, no sólo la teoría gramatical de la lengua castellana, sino su uso racional y conveniente, procurando establecer, incluso la costumbre de que los alumnos se comuniquen en castellano dentro y fuera de clase (Torrealdai, 1998, 145. or.).

Mutikoak ez dira erdararen aldekoak, eskolan ikastea ez dute gustuko: *¡Bego erdera zatar hori! ¡Nahikoa diagu eskolan!* (5. or.). Eta eskaleari iseka egingo diote euskaraz hitz egiten ez jakiteagatik: *Kamisika, belarri-motza, zarpalu, zorritzu* (7. or.). Mezaren aipamenik ere ez da egiten, baina egunerokotasunean apaizarekin duten harremana euskaraz bada, pentsaraz diezaguke mezak ere euskaraz izango zirela. Badirudi Tapiak mutikoen ahotan bere hitzak jarri zituela, baserri giroan mendez mende bizirik iraun zuen hizkuntza poliki-poliki baliorik gabeko tresna bihurtzen ari zen eta. Tapiak biziki maite zuen euskara. Bere gurasoek ez zioten erakutsi, eta hutsune hau argi utzi zuen bere izkribuetan: “O, au tamal aundia! –dio halako batean–. Nere gurasoak euzkotar eta euzkeldunak izan arren etzidaten euskera erakutsi. Bai ordia nere aberria maitatzen” (Satrustegi, 2000, 2. or.).

Pertsonaien izenek ere badute zer esanik: Kattalin, Irene, Patxiko, Joxe, Erramun, mutikoak, aita, Mikaela ugazama eta apaiza. González Maestoren arabera (1996, 49. or.), hierarkia adieraz dezake izen bereziaren adiera hartzen duen izen arruntak. Eta hala gertatzen da nire ustez apaizarekin, eliza kristauaren ordezkari denarekin; ez, ordea, aitarekin, ugazamarekin eta lagunekin. Aita eta ugazamaren izendatzea familia harremana adierazteko dira, izan ere, azken hau seigarren eszenan Mikaela izenez ezagutarazten da. Mutikoak lagun kuadrilla izendatzeko erabili da, taldea adierazteko eta, akaso, adin-tartea ere bai?⁴

Eta izen berezi hauetako batzuetan pixka bat gehiago harramazkatuz gero, ikus daiteke informazio asko ematen dutela. Alegia, ohar gaitezen Kattalin izenak zer esan nahi duen Xarles Bidegainen arabera: garbia; eta Irenek, baketsu. Bete betean asmatu da bi pertsonaia hauen papera osatzeko erabili diren izendapenekin. Asko sufritzen duen arren gaizkirik egiten ez duen pertsonaia da lehenengoa, Kattalin, eta bestea, sufrimen-

[4] Caro Baroja nahikotxo hurbiltzen dela esango nuke nik, “Llegando a los doce años, el chico comienza a despreciar los juegos establecidos. Quiere dar curso a su propia imaginación, creyendo que con la experiencia obtenida ayudando a su padre, escuchando a su abuelo, la naturaleza que le rodea le podrá proporcionar en los ratos de ocio diversiones más grandes. Pero, a pesar de que cree haber roto con un molde, sigue obrando como a la más clásica de las rutinas” (1974, 231. or.).

du honetatik gatazka batean bizi orde z ongia egin dezala modu bake-tzuan eta egoera zuzen dezala aholkatzen dion laguna, Irene (Bidegain, 1999).

5.1. Espazio eszenikoak

J. M. Satrustegik jasotako eta *Egan* aldizkarian plazaratutako antzezlan kontuan hartuz gero (ikus Tapia, 1985), hasieran eszenatokiaren aipamena ematen da “(Escenario) Portalón de entrada de un caserío”. Hau da espazio eszeniko bakarra⁵. Dena den, lehenengo eszena hastera-koan eszenatokia nolakoa den gehiago zehazten da, hainbat elementu eszenografiko agertuz⁶: “Gure mendietako xoko polit bat. Belai mardul bat zenbait sagarrondorekin. Ezker aldera baserri bateko atari galanta. Pareta (orma) ondoan zumbil handi bat, aren gañean yarria, Kattalin” (Tapia, 1985, 221. or.).

Kontuan hartu behar da etxea bizitokia baino gehiago dela. Etxea garrantzitsua da eta etxearen izena gehiago: *Kattalin, i aiz etxe ontako erre-ña, ta egun batez i izanen aiz Larralde’ko etxeko andrea* (9. or.).

Euskal gizartean etxea bizitoki hutsa baino askoz gehiago izan da. Etxea gure bizitzaren oinarri eta ardatza zen; etxea eta bere ondasunak –etxaldea– gauza guztien gaineratik zeuden, eguneroko lanen helburu nagusia [...] Etxeak bere nortasuna dauka, badu izena, etxekoek hartzen dutena. Etxekojaun edo etxekoandrea izatea garrantzitsua zen gizartean eta titulu horrek herriko bizitzan parte hartzeko eskubidea ematen zuen (Etxegoien, 2001, 28. or.).

Hain garrantzitsua den euskal etxearen atarian gertatzen da ekintza guztia, etxetik kanpo. Jimeno Juriok etxearen garrantziaz mintzatzean, honela dio: “... la cocina residencia habitual, taller y templo familiar. En torno al fuego del hogar se vivían las jornadas más íntimas de convivencia” (Jimeno Jurio, 2013, 313. or.).

Etxe barruko zehaztasun gutxi ematen dira, ordea; soilik bat, Kattalinek bakarrik hitz egitean etxe barruan gertatzen denaren aipamen txiki bat besterik ez: *Supazterrean ari direla, ni zoko batean aaintzia bezela egon bear*

[5] “Es un recinto especial [...] cuando A representa a X, denota función de uso, para poder dar a entender sitios distintos. Todo lo que se hace, se relaciona con presencia de los espectadores” (Fischer-Lichte, 1999, 29. or.).

[6] “La presencia semántica de los objetos en el escenario [...] están en el escenario no sólo por lo que son, sino también por lo que significan en el conjunto de la representación” (González Maestro, 1996, 50. or.).

[...] Egia errateko, aitatxo ere, noizbeinka belaunetan artuta, laztantzen nau; baño abudo aski etorriko zaizkio bertzek bekaizkeriz “aitatxo, musu bat neri” ta ni, yakiña, alde egin bear” (10. or.), etxean maitasunezko giro babeslea sentitu ordez, kanpotik etorritakoen etxekoa den alabarenganako bihozgabekeria soma daitekeeneko aipamena. Gainontzeko ekintza guztiak etxetik kanpo gertatzen dira, tenplutik kanpo, nolabait eta ohikoa ez den bezala, etxeko trapu zikinak kanpoan garbitzea axola ez balitzai bezala.

Espazio eszeniko bakar honetara pertsonaiak sartu eta ateratzen joango dira, binaka nahiz taldeka. Kattalin da ia obra osoan zehar base-riaren atarian dagoena, eta baserriko atari honetara joango dira hur-biltzen pertsonaia guztiak egoera desberdinak antzetzuz, baina, betiere, ildo nagusiari jarraiki.

Eszenatokian bi elementu eszenografiko topa daitezke: sagarrondo bat eta Kattalin jesarria dagoen zumbila. González Maestrok argi azaltzen duen bezala, “la presencia semántica de los objetos en el escenario [...] están en el escenario no sólo por lo que son, sino también por lo que significan en el conjunto de la representación” (1996, 27. or.). Elementu eszenografikoek espazio eszenikoetan esanahia gehitzeko balio badezaketere, badirudi honetan soiltasuna adierazteko baizik ez dutela balio. Garaiko baserri xume bat, luxurik gabekoa, herriko gizarte xaloaren erakusgarri, ziurrenik.

Zeinu ez-linguistikoak arestian argudiatuiko guztia berrestera datoz.

5.2. Zeinu ez-linguistikoak

5.2.1. Tonua

Lehenengo eszenetan pertsonaiek erabiltzen duten tonuaren bidez neskatoarekiko jarrera gaiztoak azpimarratuko dira: Joxerena burlatia, *iseka eginez* (2. or.) eta ugazamarena zitala, *irriz, arrunt aserre* (8. or.). Baina maitasunezkoak ere bai, Irene azaltzen denean, *samurki* (8. or.).

5.2.2. Mimika

Mimikaren bidez sendoago indartuko da istorioaren garapena⁷. Bate-tik, Ireneren maitasun besarkadez eta muxuz adieraziko da: *Irenen besar-*

[7] Erika Fischer Lichtenen arabera aurpegiak beti ematen du informazioa, aktorea atsendaldian egon arren, haren aurpegiren bidez beti jasoko dugu informazioaren bat. Antzerkian mimika zeinuak ikusleagoari zuzenduta eratzen dira, ikusleek zeinu hauek modu zehatz batez interpretatzeko gai izan behar direlarik (1999, 65. or.).

katzen du, eskua artzen diola zutitzen da, musu bat ematen dio (9. or.). Bestetik, lehenengo eszenetan ugazama eta bere semearen portaera zitala mimikaren bidez oso agerikoa izango da, Kattalinekin zigor fisikoak ere jaso ditu eta: *joka asten zaio (Joxe)* (3. or.), *zartako bat ematen dio (ugazamak)* (8. or.). Azkenekoetan bestelakoak badira ere: *Kattalin badoa ugazamarengana, ta onek gogotik laztantzen du, Gero Kattalin ta Joxe besarkatzen ditu, Elkar musukatzen dute (Joxe eta Kattalin)* (20. or.). Eta ez hori bakarrik, mutikoen heziketa txarrak ere indarra hartuko du eskalearekiko erabiliko duten iseka mimikaren bidez: *mutikoak irriz aja asten dira* (7. or.).

Aipagarria benetan hirutan zerura begira eta hitz egiten hasi izana (amari zuzentzen-edo): lehenengoan, neskatxaren bakarriketa dugu eta amari zein zoritxarreko sentitzen den aipatzean; bigarreanean, Lolitaren jarrera aldaketaren ostean, lehenengo frogan gaintu duela ikustean; eta azkenekoan, ongia egitearen ondorioak sentitzean, familia osoaren maitasuna sentitzen duenean.

5.2.3. Janzkera

Fischer Lichteren hitzetan, janzkera ikusleek pertsonaiarekiko egiten duten lehenengo identifikazioa da. Janzkerak pertsonaiaren nortasuna adierazteko funtzioa dauka, arropak bizitzan erabiltzailearen rol soziala ulertaraztera ematen duen bezala (1999, 173-177. or.). Antzezlan honetan janzkerak pisu gutxi du, janzkeraz ezer zehazten ez bada ere, aipu batzuk ematen dira bi pertsonaiaren elkarrizketan eta oharretan. Kattalin: (*Mantalkin begiak idortzen ditu* (2. or.), *Zarpail-zikiña. Gaie emendik zerri-bazka prestatzera. Ez aiz lotsatzen olako (soñe) -mantal zatar- zikiñokin etxeko atean egoten* (3. or.). Baina Lolita: *Ederkisko nago soñeko berri onekin. Oñetakoak ez dira nolanaikoak* (10. or.), (*Kattalin'i soñekotik iraitzi-ta*) (18. or.). Janzkeraren aipamen urri horiekin baserriko gizarte xumea islatu nahi izateaz gain, Kattalinen eta Lolitaren arteko desberdintasunak mahaigaineratu nahi ditu Tapiak, etxean jasotzen zuten tratu desberdina.

5.2.4. Osagaiak

Osagaiak garrantzitsuak dira edozein antzezlanetan, pertsonaiei dagoen nortasun ezaugarrien inguruan esanahia gehi baitezakete⁸. Antzezlan honetan badira osagaiak aztergai, ez asko baserriko gizarte

[8] “El accesorio puede interpretarse como signo de la actividad que X puede realizar en o con él, es decir, como referencia a gestos potenciales intencionales” (Fischer-Lichte, 1999, 173-177. or.).

apala islatu nahi baita, baina badaude, gaiaren ildoari begira esanguratsuak izan daitezkeenak, gainera:

- Neskataxa etxeko lanez arduratzen dela ohartarazten dutenak: galtzerdiak edo Kattalineak buruan daraman sarea.
- Eraztuna. “Pultsera” (eskumuturrekoa), kollarea (lepokoa). Lolitak ezkutuan janzten dituen osagaiak, Kattalinen soiltasunaren parean Lolitaren itxura, aitak neska on eta langilearen kontrakotzat hartzen duen jarrera.
- Ispilua. Atera baino lehen itxuroso apaindua dagoen ikusteko balio duen objektua, nola ez, etxeko señoitaren esku, Lolitaren esku.
- Sakelatoa (*sakeltaoa*). Aitak onartzen ez dituen objektuak ezkutatuturik mantentzen lagunduko duen poltsatxoa.
- Goxokiak. Baserrian aurkitzen zaila den luxua eta kasu honetan Kattalineak “ongia” egiteko erabiliko dituenak, hari oparitu dizkieten goxoki hauek Lolitari eta Joxeri eskainiko baitizkie maitasun froga gisa.

5.2.5. *Musika*

Musikari dagokionez⁹, ez dago testuinguruarekiko lagungarri suerta daitekeen musikarik, hasieran neskak eresi neurria oinekin markatuz kantatzen duen abestitxoa ez bada, Euskal Herrian ezaguna den eresi neurria. Galdutako amari eskainitako abestia, datorrenaren aurrerapen gisa. *Zapia altxatzen delarik, abesten ari da, zangoekin eresi neurri eramanez* (1. or.).

“Ene amatxo biotzekoa,
gogoan zaukedazana:
urrunago eta indartsuago
maitatzen zaituztedana”.

[9] Ia kultura gehienetan, ekitaldi, eguneroko zeregin, ospakizunetan... musika zehatza erabili ohi da. Hots, egoera bakoitzean egoera zehatz horri dagokion musika entzutea espero da; alegia, elizkizun batean ez dugu dantza musika espero (Fischer-Lichte, 1999, 240. or.).

6. *Kattalin Umezurtza* lan didaktikoa

Kattalin Umezurtza antzezlanaren analisiak, berbaldiaren analisiak, hala nola espazio eszeniko, mimika, tonu, osagai eta musikarenak asmo didaktikoz eginiko obra bat dela baieztatzera eraman gaitzake. Euskaraz euskaldunontzat eginiko obra da, non euskal gizartearen islak, portaerek, ohiturek eta abestiek kristau jakinbidea ikasteko gertaera bat biltzen duten.

Mezu nagusia “ongia eginez zoriona lortuko duzu” izan badaiteke ere, antzerkian zehar kristau doktrinak onartzen dituen portaera egokiak tartekatzen dira: eskean datorrenari ematea (Itun Berria, 1980, 31. or.), zentzuduna izatearen ideia¹⁰ edo Lolitak janzkera, oinetako, margo eta bitxi ederretan oinarritutako itxuraren ideiarene parean euskal gizarteak begi onez ikusten duen soiltasuna (Itun Berria, 1980, 33-34. or.), besteak beste. Gainera, badaezpada, azkeneko eszenan apaizaren honako hitz hauek argituko dute antzerkiaren helburua zein den: *Enetxoa, Yainkoa mintzatu zaigu zure aoz. Ikas dezagun ongi ikasgai au (mutikoei). Ta zuek mutikotzar oiek emen duzue eredua. Zuek, bela pizten duzue iskanbila ta zalaparta. Den gauzarik xumena-rengatik zartakoka ta ostikoka asten zerate. Ikasi, ikasi Kattalin'engandik. Ortaz, bertzalde, gaur txarkeri itxusi bat egin duzute. Zigorgarriak egin zarete, ta egia errateko, yausi zatzue Yainkoaren zigorkada. Ara Joxe kopeta zilatua. Guziak zarete errudunak, baño i, Erramun, andiena; bestiak ik bultzatu bai dituk gaiztakeri ori egitera (21. or.). Eta hauetan: (Aita ta ugazamari) Zuen neskatikoak eman digu ikasbidea. Barka ditzagun, damaturik bait daude mutil koxkor oriek. Gaur egun aundia da guretako. Kattalin bere biotzeko edertasunaz, benetako amatxo aurkitu du. Lolita eta Joxen biotzak irabazi ditu. Orobat, gure mutiltxo oiek asmo onaren bidean sartzeko asmotan daude. Bozkarioz bete bitez gure biotzak. Goraldu dezagun txarkerietatik ongiak ateratzen dituen Yainko ona, eta eman dezagun elkarri gentza ta maitasunezko besarka bat (21. or.). Apaizak beste edozein momentutan egingo lukeen sermoi baten antza dauka, Kattalinen egoeraren garapena eta mutikoen portaerak dituen ondorioak primerako aitzakiak izan dira kristau ikasbidea zintzoki betetzen bada bizimodu ona izango delako ideiaz konbentzitzeko.*

Apaizak hartzen duen protagonismo hau azpimarratzekoa da, antzerki misiolarian ez baitzen oso ohikoa izaten. Ruiz Bañulsek (2010) Isaaken sakrifizioan misiolari lanaz hitz egitean aipatzen duen bezala, lana bera sermoi bat da, izan ere, misiolariak testuak haiek zeritzoten

[10] Hamar neskatxen parabola: Itun Berria, 1980, 86. or.

irizpideetara eraldatu zituzten aurkezpena misiolari asmorako kaltegarri suerta ez zedin; adibidez, indigenek poligamia gaia gogora ez zezaten, Abrahamek Agarrekin izandako ahaidetza ez zen aipatu eta antxumearen sakrifizioa ere ez, indigenen sineskerietan errotuak zeuden poligamia edo giza hilketa bezalako gaiak ekiditeko:

Esta pieza dramática refleja de modo privilegiado el anhelo franciscano de edificar e instruir a través del lenguaje común del teatro. Estamos ante una representación que es un fiel reflejo de la actitud y el comportamiento de los primeros evangelizadores, una pieza que en su conjunto, como ha señalado Robert Ricard, se puede considerar como un prolongado sermón “ora dogmático, ora moral” (Ruiz Bañuls, 2010, 288. or.).

Egoera oso desberdinen aurrean gaude, antzerki misiolariaren bidez indigenak ebanjelizatu nahi zituzten; XX. mendeko euskal gizartea katolikoa zen¹¹, ordea, eta fedea hertsiki mantentzea zen helburua. Horregatik, antzeztutakoaren ondoren hamabosgarren eszenan apaiza da ongia egitearen onurak eta gaiztakerietan aritzeak ekar ditzakeen kalteez ondorio gisa kontzientziatzera datorrena.

7. Ondorioak

Kattalin Umezurtza antzerki misiolaria denik ez nuke esango, nahiz eta antza izan dezakeen, hasieran aipatu den bezala, helburu didaktikoa duen obra bat besterik ez dirudi. Eta obraren alderdi pedagogikoa ondorioztatzera ekarri gaituen azterketa osatzeko helburuarekin, Larraitz Ariznabarretak Martin Ugalderekin *Ama Gaxo Dago* antzezlanaren alderdi pedagogikotik aztertu ahal izateko planteatzen dituen hainbat irizpide *Kattalin Umezurtza* antzezlanean iruzkinduko dira, errepikakor suerta badaiteke ere (Ariznabarreta, 2009, 427-445. or.):

- Euskal tradizioan askotan izan du literatura dramatikoak herri eskola papera, ziurrenik elizaren eraginez (garai bateko pastora-lek egiten zuten antzera). *Kattalin Umezurtza* antzezlanak baserriko giro txarrean hazitako neskatxa baten bizipen gogorak aurkeztu ditu gai dramatiko gisa, baina hartu duen erabakia bide

[11] “El catolicismo impera, y estos últimos años parece que el fervor religioso de algunos, al menos exteriormente, se ha exacerbado, tal vez con la idea de la lucha y de la persecución, que parecían amenazar a los católicos” (Caro Baroja, 1974, 286. or.).

izango da on egiteak zer nolako saria ekar dezakeen ondorioztatzeko.

- Hizkuntza: Tapia jeltzalea zen eta garbizalea. Hala ere, hizkuntz herrikoa erabiltzen du, euskara ulerterraza, herriaren bihotz-bihotzera heltzeko behar duen euskara.
- Antzezlanak ikuslearekiko konplizitatea bilatu nahi du eta zeinu sistemaren anbiguotasuna saihestu. Tapia abertzalea izanik kristau sutsua zen, eta, horrenbestez, ez gintuzke harritu behar kristau ikasbidea bultzatzeko antzezlan bat prestatu izana. Satrustegik aipatzen duenez, erlijioaren ikuspegi hertsia zuen, izan ere, “zientziak baino hizkuntza unibertsalagoa mintzo duela erlijioak” (2000, 19. or.). Tapiak garaiko gizartea agertu nahi du, ikuslegoak ulertzen duena. Konplexutasun psikologikorik gabeko pertsonaia lauak eskaini ditu: Kattalin, aita, ugazama, Lolita, Joxe, mutikoak, Irene (adiskidea) eta apaiza. Gaiari dagokionez, onberatasuna eta gaiztakeria berehala antzemango dituzten egoerak aurkeztu dira eta ongia egitearen, nahiz txarkeriak egitearen ondorioak zeintzuk izan daitezkeen ezagutarazi. Metaforak aurkitzea zaila da, nahiz eta bakarren bat antzeman daitekeen. Erdaraz hitz egiten duen eskale kanpotarra. Gaztelania poliki Euskal Herrian sartzen ari deneko metafora?¹²

Antzerkiak, ez dirudien arren, funtzio sozial apartekoa egiten zuen, literatura herritarrengana iristeko biderik egokiena bihurtu baitzen. Abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna zabaltzeko bitarteko garrantzitsua bihurtu zen eta euskara etxetik antzokietara mugitu zuen, herri xeheak eta letra gizonak bat egin zezaketen gunera (Gereñu, 2018; Gil, 2009).

Egoera hain mesedegarri bazitzaion antzerkiari, nola da posible *Kattalin Umezurtza* antzetzu ez izana? Tapiak olerkiak idatzi eta ezagutaraztera eman zituen bezala, pentsa daiteke gerra garaiak eta gerraosteak ekarritako zentsura zela eta ez zuela taularatu. Orduan, pentsatzekoa da

[12] Euskara elebitasun nahiz elebakartasunaren bidea hartu zueneko uneaz argi mintzatzen da Jose Ramon Zabala: “Los golpistas erradicaron toda demostración pública de la lengua: hablar en público, escribir, publicar en lengua vasca eran actividades prohibidas, perseguidas y castigadas. De manera paralela, la migración de miles de españoles hacia las zonas industriales de Euskal Herria diluyó las comunidades vascoparlantes, forzándolas al bilingüismo y más tarde, en muchos casos, al monolingüismo” (Zabala, 2016, 101. or.).

Kattalin Umezurtza idatzi zeneko euskal gizartearen isla izan daitekeela, zergatik ez?

Ostera, mugimendu kultural berritzaile eta aberatsak etena jasan zuen 1936an, Hegoaldean Gerra Zibila hasi zenean. Izan ziren salbuespenak Bizkaiko kostaldean, baina tropa nazionalak gobernura heltzearekin, festa giroko elkarretaratzeak amaitu ziren urte batzuez eta, euskal teatroaren eginkizunerako bederen, antzokiak itxi egin zituzten.

Euskal antzerkigintzak gerraurrean ezagututako hazkundera eta zaletasuna errotik moztu ziren, eta galera bai soziala, bai artistikoa, gertatu ziren teatroan (Gereñu, 2018, 736-737. or.).

Kattalin Umezurtza taularatu ez izanak gerraostean idatzitako lana dela pentsaraz diezaguke, baina hori hipotesi bat besterik ez da. Eskuar-tean daukaguna idatzizko bertsioa da, eta egindako azterketaren arabera ondoriozta daitekeena da garaiko gizarte euskaldunarentzat euskaraz idatzitako antzezlan dela, Tapia abertzale eta fededunarentzat hain garrantzizkoa den kristau ikasbidea jarraitzearen garrantziaz ohartarazi nahi duen obra.

8. Bibliografia

- Aracil Varón, B. (2008). Teatro evangelizador y poder colonial en México. <https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/21519/1/Aracil_Varón_Teatro_evangelizador.pdf>
- Ariznabarreta Garabieta, L. (2009). Pedagogia xede Martin Ugalderean antzerki lanean. In I. Beti Sanz & M. K. Gil Fonbellida (arg.), *Exilio y Artes escénicas. Arte eszenikoak erbestean* (427-445. or.). Saturraran.
- Azkue, R. M.^a (1989, 3 ed.). *Euskalerrriaren Yakintza : Literatura popular del País Vasco*. Bilbao: Euskaltzaindia; Madrid: Espasa-Calpe.
- Biblia de Jerusalén* (1975). Bilbao: Desclee de Brouwer.
- Bidador, J. (2016). Alexander Tapia Perurena, Iruñeko olerkaria. Bere lanaren azterketa estilistikoa. *Príncipe de Viana*, 77(264), 131-198.
- Bidegain, X. (1999). *Izendegia : diccionario de nombres vascos*. Elkarlanean.
- Bobes Naves, M. D. C. (2004). Teatro y semiología. *Arbor*, 177(699/700), 497-508. <<https://doi.org/10.3989/arbor.2004.i699/700.591>>
- Caro Baroja, J. (1972). *Los vascos* (vol. 9). Ediciones Akal.

- Caro Baroja, J. (1974, 2. ed.). *De la vida rural vasca (Vera de Bidasoa)*. San Sebastián: Txertoa.
- Carrasquero González, Á. & Finol, J. E. (2007). Semiótica del espectáculo: contribución a una clasificación de los elementos no lingüísticos del teatro. *Revista de Artes y Humanidades unica*, 8(18).
<https://www.researchgate.net/publication/237469251_Semiotica_del_espectaculo_contribucion_a_una_clasificacion_de_los_elementos_no_linguisticos_del_teatro>
- Etxegeoién J. C. —Xamar— (2001). *Orhipean. Gure herria ezagutzen*. Iruñea: Pamiela.
- Fernández, S., Roda, P., Díez de Ure, A. & Pinillos, S. (1998). *Ellas, Las mujeres en la historia de Pamplona*. Ayuntamiento De Pamplona.
- Fischer-Lichte, E. (1999). *Semiótica del teatro*. Arco/Libros.
- Garamendi, M. A. (1990). El teatro popular vasco (semiótica de la representación) (I). *ASJU*, 24(2), 525-614.
<<https://ojs.ehu.eus/index.php/ASJU/article/view/8587/8810>>
- Gereñu Odriozola, I. (2018). Teatroaren mututzea XX. mendean: Frankismoaren zentsuraren eragina euskal teatroaren bilakaeran. *Euskera*, 2-2, 731-763.
- Gil Fombellida, C. (2009). Antzerkia eta nortasuna. Gerra Zibilaren aurreko euskal erbesteko fenomeno dramatikoa. In I. Beti Sanz & M. K. Gil Fombellida (arg.), *Exilio y Artes escénicas. Arte eszenikoak erbestean* (417-425. or.). Saturrarán.
- González Maestro, J. (1996). *Didáctica y teoría del teatro: signo y método*. Oviedo: Servicio de Publicaciones del Principado de Asturias.
- Itun Berria (1980). Euskal Herriko Elizbarrutietako Gotzaiak.
- Jimeno Jurio, J. M.^a (2013). *Navarra. Síntesis histórica y geográfica*. Iruñea: Pamiela; Udalbide: Euskara Kultur Elkargoa.
- Ordiz, F. J. (1987). El teatro evangelizador franciscano en Nueva España. *Estudios Humanísticos. Filología*, (9), 67-76.
<<file:///C:/Users/USER/Downloads/Dialnet-ElTeatroEvangelizadorFranciscanoEnNuevaEspaña-104690.pdf>>
- Rivera, O. (1993). Texto y representación en el teatro misionero: El sacrificio de Isaac y El juicio final. *Literatura Mexicana*, 4(2), 313-325.
<<https://doi.org/10.19130/iifl.litmex.4.2.1993.867>>

- Ruiz Bañuls, M. (2010). Cuando el sermón se vuelve teatro: El sacrificio de Isaac en el contexto evangelizador novohispano.
<file:///C:/Users/USER/Downloads/udl,+32+ARRABAL+7-8%20(1).pdf>
- Satrustegi, J. M. (2000). *Alexander Tapia (1899-1957)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
<<http://www.euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/ALEXANDER%20TAPIA.pdf>>
- Tapia, A. (1985). *Kattakin Umezurtza*. *Egan*, 3/4, 221-260. [Arg.: Satrustegi, J. M.].
<<https://www.rsbap.org/ojs/index.php/egan/article/view/3691/3448>>
- Torrealdai, J. M. (1998). *El libro negro del euskera*. Donostia: Ttartalo.
- Zabala, J. R. (2016). Contra el silencio impuesto: las publicaciones en lengua vasca del exilio de 1936. In I. González-Allende (arg.), *El exilio vasco. Estudios en homenaje al profesor José Angel Ascunce Arrieta* (99-116. or.). Deustuko Unibertsitatea.

IKERMATERIALAK

Joxemiel Bidador poesia taldea: hobe kandela bat piztea iluntasuna madarikatzea baino

Josu JIMENEZ MAIA

Garai txarrak lirikarako

Ez omen dira garai onak lirikarako; nik neure buruari egiten diot galde: inoiz izan al dira garai onak lirikarako? Batzuk bederen sinetsita gaude hobe dela, iluntasuna urratzeko, poesiaren aldeko kandela bat piztea iluntasuna madarikatzea baino, eta horregatik sortu genuen poesia talde bat Iruñean.

Irakurle taldeetan urrats bat aitzina

Zeren eta narratiba irakurle taldeak baziren eta badira Iruñean, eta Iruñerrian, baita Leitzan, eta Tuteran, eta Agoitzen, eta Aurizberrin, eta Zaraitzun eta Erronkarin ere... Ia-ia berrogei talde Nafarroa Garaian; baina polita litzateke irakurle talde espezifikoak antolatzea, adibidez, Nobela Beltza irakurle talde bat, talde beltza dei genezakeena, non Nobela beltza baino ez litzatekeen irakurriko, hilabetean behin edo bi hilabetean behin; lekua eta bestelako zehaztapenak ez dagozkit niri, baina proposamena hor dago. Jakina, talde espezifikoak sortzeak ez luke ekarri beharko martxan daudenak kaltetzea eta hondoratzea: oreka bilatu behar da.

Poesia talde aitzindaria

Poesia talderik ez zegoen, ez hemen —Nafarroa Garaian— ezta EAEn edo Iparraldean, euskaraz bederen. Nafar Ateneoan bazen eta bada poesia talde bat erdaraz. Bada euskarazko poesia jorratzeko asmoz, euskaraz-

ko poesia talde bat sortu genuen Nafar Ateneoaren alartzean. Hilero egun batez biltzeko konpromisoa hartuta, 2019ko apirilaren 2an bildu ginen estreinakoz.

Nafar Ateneoaren babespean jarri genuen ekimen hau abian, eta lehen bileran, Barañain etorbideko Nafar Ateneoaren egoitzan, dozena erdi bat lagun bildu ginen; urte hauetan aldaketak egon diren arren, kopuruari eustea lortu dugu; taldea anitza eta askotarikoa, poesia bera bezain anitza. Pandemiaren ondorioz online hasi ginen eskaintzen lotura poetikoa; harrezkero, Nafar Ateneoaren egoitzara bertaratzetik ez due-nak badu aukera online konektatzeko eta saioari jarraipena emateko. <https://meet.jit.si/JoxeMielBidadorPoesiaTaldea>

Irizpide zenbait

Hasieratik beretik asmoa izan zen hilabete batean hemengo poeta bat aukeratzea, eta beste hilabete batean euskarara itzulitako poeta baten lana, lagin bat bederen. Izan ere, hemen sortutako poesiaz landa, azken urte hauetan euskarari ekarritako poetak asko eta askotarikoak izan dira, batez ere, Munduko Poesia Kaiarak bildumaren bitartez.

Olerkari anitz eta anitzak

Joxemiel Bidador zenaren omenez poesia taldeak haren izena hartu, eta aztertu genuen lehen poeta, ezin bestelakorik izan, Joxemiel Bidador bera eta bere liburua *Hutseaniko hazkurria* izan zen, Pamiela etxeak argitaratua. Joxemiel zenaren poesia-liburuan bereizi genuen bi zati, lehen zati existentziala, nolabait esatearren, eta beste parte bat, jostalari xamarra, Joxemiel bera bezainbeste eta, bietan, hizkuntzaren aldetik, bihurri eta trinkoa, haren izaeraren adierazgarri.

Arestian erran bezala, euskaraz sortutako poesia lantzeaz landa, euskarari ekarritako egile bat tartekatu ohi dugu eta, hori horrela, **Idea Vilariño** izan genuen protagonista gero, zeren eta beste irizpide bat izan da emakumezko poetak ez ahaztea eta beti izatea emakumezko olerkariak, gizonetzkoak bezainbeste. Idea Vilariñoaren dozena bat poema euskaratu nituen eta *Maiatz* aldizkariaren 67. zenbakian argitaratu zirenez gero urte pare bat lehenago, horiek izan genituen oinarri eta, baita garai horretan Garazi Arrula tafallarrak egindako itzulpena ere Munduko Poesia Kaiara bildumarako, aukera eman ziguna alderatzeko poema zenbaiten itzulpena.

Orobat, Nafar Ateneoaren programazioan profiritatu ditugu ekitaldi zenbait Iruñera etortzen zen poetaren lana ezagutzeko. Horixe egin genuen **Jose Luis Otamendiren** poesiarekin bera Iruñeko Kondestablearen Jauregian egon zelarik.

William Blake izan genuen protagonista beste saio batean. Blake artista totala zen: olerkaria, ilustratzailea, grabatzailea... eta oroz gain, askatasunaren maitalea izanik, Elizaren, Inperioaren, estatu oligarkikoaren kontrakoa; espetxea ere ezagutu zuen, Erregeri traizioa egiteagatik kondenatuta izan eta gero: “Espetxeak legearen adreiluz eginak dira; pute-txeak, erlijioaren adreiluz.” Utzi zuen idatzia, baita hau ere: “Zatoz hona, seme; esadazu zer ikusten duzun hor. Badakusat ergel bat, erlijio-tranpa batean gatibu.”; eta “Emakumearen biluztasuna Jainkoak egina da”.

Castillo Suarez, Georke Trakl, Hasier Larretxea, Emily Dickinson... **Beñat Sarasola** izan genuen gonbidatu berezia Karrikiran egindako aurkezpenean Munduko Poesia Kaierak bildumaren kontura, horren aurkezpen orokorra egin genuelarik. Era beran, *Menades* Iruñeko liburu-dendan ere egin zen beste saio bat, Mari Luz Estebanekin. Halaber, izan dugu mintzagai Joan Margarit, Amaia Lasa, Pako Urondo eta Nezahualcōyotl.

Nezahualcōyotl poeta eta Nahuatl hizkuntza bide batez. Huichol hizkuntzaz gure taldeko Anttonek kontatu zigunez, Huichol hizkuntza Nayarit eta Jaliscoaren inguruan mintzo den hizkuntza gutxiagotu bat dela, eta berak han ezagutu zuela bera bezalako ingeniari bat, eta ingeniari horrek bazuela amona bat huichol hizkuntzaz mintzo zena, eta Anttonek galdetu egin zion “Eta ez duzu ikasi zuk huicholeraz?” eta hango ingeniariak esan zion: Zertarako, hizkuntza horrek ez du ezertarako balio eta”. Eta Nahuatl-en poesia puska bat gorde denez, ikasi genuen “Soilik zorretan hartzen genion guk lorea munduari”, eta Nahuatl-en eta euskararen historiaren arteko paralelismoak ikusi genituen, zeren eta Nahuatl-en egoera ez da xamurra: ez du inolako laguntzarik Gobernutik, Ikastola modukoak, ttiki-ttikiak dira, analfabetismoa, txirotasuna, hiztun gutxi-koak eta beste hizkuntza batean itoak, arrazakeria oldarkorra pairatzen dute eta ez dago arnasgunerik...

Auxtin Zamoraren Su hatsa erakusketa Nafarroako Liburutegian egin zen eta Joxemiel Bidador taldekideok ezin genuen horrelakorik galdu; horren alartzean antolatu zen Nafar Ateneotik ekimen bat non Miren Agur Meabe, Amaia Lasa, Itxaro Borda eta Juan Luis Zabala bertan egon ziren. **Miren Agur Meabe** lekeitiarra *Nola gorde errautsa golkoan liburu* berriaren haritik mintzo zen, eta idazkuntza baratzearekin alderatu

zuen: “literatura ortuko lanarekin erkatu daiteke” haren hitzetan adierazita. **Itxaro Borda** lapurtarrarengandik ikasi genuen poesia eskuzabaltasuna dela, jendearekin partekatuta nahi dugun zerbait, eta **Juan Luis Zabalen** txandan *Mina hartzeko ere* liburu atera berria izan genuen entzun-gai. Nafarroako Liburutegi Nagusiaren erakusleihoan, Auxtin Zamora senperrak dohaintzan emandako aluminio urtuzko eskultura, oroigarri, ikusgai dago oraino.

Era berean, Nafar Ateneoaren abaroan badago erdarazko poesia talde bat, **Angel Urrutia** izenekoa, eta haiekin batera saio bat egin genuen Iruñean, emakume-poetak ardatz hartuta, “Emakumezko poesia, gatazka egoerako poesia” lelopean eta parte hartzeko baldintza bakarra izan zen emakumezko poeta baten olerkia izatea errezitatu beharrekoa. Besteak beste, **Wisława Szymborska**-ren poema zenbait errezitatu genituen, *Maiatz* aldizkariaren 67. zenbakian argitaratu eta batzuk, non osotara olerkari poloniarren berrogei olerki jarri ziren lagun poesia-zalearen eskura, irakurgai.

Berebat, bi erraldoi izan genituen bisitari Liburutegi Nagusian, **Txomin Peillen** eta **Joseba Sarrionandia**, bien arteko elkarriketa aberatsa sortu zelarik. Iurretakoa miresmenez mintzo zen Txomin Peillenek egindako lan bakartiarengatik eta, zuberotarrak ez zuen aukera galdu aldarrikatzeko literatura bizia eta heterodoxia zeren eta, haren hitzetan, “euskaldunok puritanismo ideologiko batean idazten omen dugu, eta heterodoxiak umorea ematen dio literaturari”. Ordurako zuberotarra osasunez makal zebilen, eta handik gutxira zendu zen; zorionez, jendaurreko azken emanaldi hori jasota gelditu da.

Saio berezietan landa, Nafar Ateneoko bileretan hemengo eta hango poetak ezagutu ditugu: Ione Gorostarzu, Yannis Ritsos, Marina Tsvetaeva, Peter Handke, Fito Rodriguez, Alda Merini, Mandelstam, Lizar Begoña eta bere *Gepardo japoniarrak*, Alejandra Pizarnik argentinarra, duela gutxi hil den Louise Glück amerikarra... Banaka-banaka aipatzeak luze joko lukeenez, egile bati baino ez natzaio lotuko.

Aitor dezadan **Alda Merini** italiarra guttiz ezezaguna zela niretzat bederen. Milango emakume hau XX. mendearen bigarren erdiko poeta italiar laudatuenetakoa da. Bere poesia lirikoa da funtsean, nahiz sinbolismorako eta are mistizismorako joera nabaria duen. Poesiaren tradizioan jorratutako funtsezko gai gehienak landu zituen eta maitasuneko poema bikainak ditu, *Ez, ez itzuli*, horren adibide eder bat delarik.

Eta poeta garaikideak ez ezik, klasikoak ere izan ditugu: **Lizardi**, Zaurutzekoa baina 10 urterekin Tolosara joan zena, jelkidea, gazterik hil zena... Irati Jimenezek 2021eko bere saiakeran “poeta totala” deitzen zion. Lizardiren poesia *Bihotz begietan*, berrargitalpenaren kari aukeratu genuen. Bere poema klasikoak kantuen bidez heldu zaizkigu *Ondar gorri*, *Bizia lo*, *Otartxo utsa*, *Bultzi-leiotik*, *Asaba zaarren baratza*, *Euskal Pizkundera*...

Azken aleak

Hasieran nioen gisara, ez omen dira garai onak lirikarako, baina guk argi poetiko bat piztu egin dugu iluntasunean; eta gure asmoa da iluntasuna urratzen jarraitzea. Hori horrela, ikasturte honetarako plana zehaztu dugu irailan egin ohi dugun gisan, ikasturte honen lehen bileran; bertan atera ziren izenak, honako hauek izan ziren: Bertold Brecht, Harkaitz Cano, Itziar Uhartea, Maite Lopez Las Heras, Ernest Hemingway.

Bertold Brecht-en gaineko saioa egin berri dugu eta sekulako pagotxa izan dugu Munduko Poesia Kaierak bilduman ateratako Bertold Brechten poemak euskaratu dituen itzultzailea bera, Irati Majuelo, gurekin egon zelako Nafar Ateneoan... Hori benetan, sekulako zortea da gure txikian, horrelako itzultzaile gazte bat izatea, alemanieratik euskarara egindako itzulpenaz mintzatzeko eta, bidenabar, poesiaren itzulpenaz ere mintzatzeko parada izatea saio gogoangarri batean.

Bestalde, **Ernest Hemingway** Nobel saridunaren poesia jorratu egin dugu. Izan ere, aurten bete dira ehun urte Iruñera estreinako z etorri zela eta narratzaile ona ez ezik poeta ere bazen, bere poesia ezezaguna izanagatik. Duela ehun urte etorri zenean Hemingway kazetari gazte bat zen, 24 urtekoa, artean ezezaguna, baina ordurako ibilia zen Lehen Mundu Gerran Italiaren eta Austriaren arteko frontean, anbulantzia gidari, eta bere poemek adierazten dute ez zela burugabeko mozkor ergel bat, erakusten diguten irudi interesatua eta manipulatuaren kontrara, berak idatzi zituen poemek bestelako **Hemingway** bat erakusten digute:

Armada guztiak berdinarak dira
 Publizitatea ospea da
 Artilleriak betiko zarata zaharra du sortzen
 Adorea, mutilei egozten zaien ezaugarria
 Soldadu zahar guztiak begi abailduak dituzte
 Borrokalari zahar guztiak
 betiko gezur zaharrak dituzte entzuten
 Gorpuak euliz estaliak beti

Parisen idatzi zuen poema hori, 1922an, Euskal Herrira etorri aitzin, gaur egun esango genuke poema antimilitarista zela... Iruñean eta Iratin ibili zen Ernest gazteak ez du zerikusirik erakutsi ohi diguten Hemingway estereotipatuarekin. Ernest Hemingwayren dozena bat poema argitaratu dira estreinakoz euskaraz *Maiatz* aldizkariaren 2023ko azaroko zenbakian, 77an. Poema horiekin errezitaldia egin genuen iragan den uztailan Irati ibaiaren inguruan, Hemingway berak arrantza egiten zuen tokian bertan.

Laster *Pantouma* lantzeko saio bat eskainiko dugu; *pantouma* errepikapena oinarri duen forma poetiko bat da, Victor Hugok Europara ekarritakoa eta euskaraz ere egin nahi duguna. Beste izen batzuk baditugu etorkizun hurbilean jorrazteko asmoz: Txomin Peillen, Anjel Erro, Bernard Manciet, Castillo Suarez, Beatriz Chivite, Hedoi Etxarte, Angulemako Margarita, Liman Boisha poeta sahararra, eta, Gazako egoerak akuilaturik, Palestinako poesia ere jorratu nahi izan dugu.

“Hitza da ekintza” (Piarres Aintziart)

Nafarroako Euskal Irakurle Taldeen Biltzarrean, eta Gazako hilkin-tzak hartaratuta, tarte berezi bat nuen poeta palestinar batzuk aipatzeko, zeren eta Piarres Aintziart heletarrak dioenez, “Hitza da ekintza”. Hasteko, **Hiba Abu Nada** olerkaria.

Hiltzen bagara,
jakizue harro eta irmo hil garela,
eta Munduari jakinarazi,
gure izenean,
pertsona zintzoak garela,
zuzenak.
Oi, Jainkoa.

Hiba Abu Nada emakume olerkariak, eraila izan zen egunaren bezperan idatzia zuen beste poema bat: Israelgo Indar Armatuaren bonbardaketen ondorioz hil zen, urriaren 20an. Hau izan ziren bere azken hitzak, Gazako Zerrendan idatzia:

Gaua iluna da, ezpada misilen distiragatik;
isila, ezpada bonbardaketen zaratarengatik;
beldurgarria, ezpada otoitzaren promes lasaigarriagatik;
beltza, ezpada martiren argiarengatik.
Gabon.

Era berean, **Marwan Makhoul** poeta palestinarra idatzitakoa irakurri genuen, geure hizkuntzaz ere jasota gera dadin:

Idazterakoan poesia politikoa izan ez dadin
Txoriak txioka entzun behar ditut
Baina txoriak txioka entzun ahal izateko
Bonbardaketa bertan behera gelditzea beharrezkoa dut.

Azken eleak

Duela sei urte, 2018ko azaroan Nafarroko Euskarazko Irakurle taldeen lehen biltzarra ospatu zen Nafarroako Liburutegian; irakurle, liburuzain, dinamizatzaile eta idazleak izan ginen bertan, hirurogei lagun osotara, *ahobizi* eta *belarriprest*.

Mahai-inguruan Jose Angel Irigarayk liburuaren eta irakurlearen arteko zubigintza, bitartekarien garrantzia azpimarratu zuen, alegia irakurle taldeen dinamizatzaile, edo koordinatzaile edo arduradun, nahi duzun bezala deituta. “Ausartu, sartu eta sortu” egin zuen aldarri auriztarrak.

Jon Atxega irakasle eta dinamizatzailek eskatu zien bertan zeuden arduradun politikoei liburu sareko liburu-sortak berritzeko, handitzeko eta liburu atera-berriak erosteko.

Fertxu Izquierdok kontatu zigun, Atxagaren eta Sarriren poemak irakurtzen hasi zenean, “mundu oso bat zabaldu zitzaioa”. Artean ez zegoen poesia-irakurle talderik. Gaur egun badago poesia talde egonkor bat, Joxemiel Bidador zenaren izena daramana. Taldea izanik ere, taldea irekia da, eta Nafar Ateneoan biltzen garen arren (Barañain etorbidea, 10. 1.) Nafar Ateneoko kide ez denak ere atek zabalik ditu. Beti ikasten da saio hauetan... Zer irakurri dugun, liburuak elkarri gomendatu, elkarri utzi, zer idatzi dugun, elkarri pasatu, Beti esaten da norbait zuk idatzitakoa irakurri duena izatea oso garrantzitsua dela hasiberrientzat... Bada, ez bakarrik hasiberrientzat.

Jose Angel Irigarayren eta Fertxu Izquierdoren hitzak nire eginda: “Ausartu, sartu eta sortu; mundu oso bat duzu zain”.

Amaitzeko, poesia taldean gonbidatu izan genuen **Txomin Heguy** nahi dut ekarri lerrootara. Izan ere, mugaren gaindi behar ditugu eleak eta olerkiak gurutzatu eta horregatik Txomin Heguy hazpandarraren *Lur*

ilaunduan loreak olerki-liburua mintzagai izan genuen Nafar Ateneoan, bera eta *Maiatz* argitaletxeko Lucien Etxezaharreta bertan egon zirelarik. Haren poema batek hala dio:

‘Ez dezagun eman amore;
etengabe lur ilaunduan dauden loreak
urezta ditzagun!’

Badakizue poesia nork bere modura eta bere eskarmentuaren arabera interpretatzeko eta ulertzeko modukoa dela. Hori horrela, nik sinetsi nahi dut, besteak beste, poesia taldeari berari buruz ari zaigula mintzatzzen, eta lur ilaunduan gure taldea lore single eta xume bat bezalakoa badarik ere, ureztatu eta zaindu behar dela, ongarria jo behar da inguruan lur ilaundua emankor bihurtzeko.

SORTZE LANAK

POZIK!

Elena OLAVE DUÑABEITIA

POZIK!

*Horrelako egun bat dagoen bakoitzean,
zeru perfektu eta urdin honekin,
ia ziana
pentsatzen dut nolako zortea,
zenbat urte gehiago iraungo ote du?
Supermercado mayorista, Cecilia Pavon*

Pozik egon beharko nuke
Edo hori errepikatzen didate etengabe

Pozik!

Pozik!

Pozik!

Txorien eta txakurren eta umeen zaratak
Entzun ditzakedalako leihoak ireki gabe ere
Zeru urdin argia eta mendiak
Garbi ikus ditzakedalako

Pozik!

Gordeleku bat dudalako
Bizirik nagoelako
Maite eta sinesten dudalako
Izar konstelazio poligonal baten babespean

Pozik!

Herriko plaza bete-beterik egotea omen delako
Bizitzak kanpoan eder jarraitzen duen seinale
Artikulazioarena, komunitatearena, ekintzarena

Pozik!

Pozik!

Pozik!

Ilusio apur bat
Nahikoa delako
Une batez ahazteko
Inguruko fabrika handiak
Haien usain eta esanahiak
Bestela begiratzeko
Gainbehera orokorra
Suntsitutako bizitza, etxe, herri, hizkuntza
Espezie eta ekosistema guztiak

Pozik!

Miseriak nire baitan
Espazio gehiegi har ez dezan

Pozik!

Esperantza apur bat eta zero argia
Nahikoa direlako
Belaki batek lez
Besteen minak ez xurgatzeko

Pozik!

Alkoholizatuegi
Segregatuegi
Dagoen inguruari
Gehiegizko arretarekin begiratzearren
Nahigabez eta haserrez ez puzteko

Pozik!

Pozik!

Pozik!

Ahaztu ditzadan auzokidearen garrasi eta lantuak

Orokorregiak diren

Bakardadea eta desesperantza

Pozik!

Pozik!

Jarrai dezadan lanean

Eros dezadan egon ahal izateko

Pozik!

Ilusio apur bat nahikoa omen delako

Zenbat iraungo duen ez dakigun

Mundu oinazetu honetan

Irauteko

Pozik!

Gorputz bigunak igerilekuan

Ane ZUBELDIA MAGRIÑA

Likidoaren aukeren barruan
ageriko dira gure mugak.
Baina ez da gorputz traketsik
urpean, arnasa da
denbora
arnasa da
abiadura eta isiltasuna.

“Ez dut hil nahi”
esan digu andre zahar batek aldagelan.
Uretatik atera berri,
haragi guritan eta larru bizirik
jaso dugu mezua gainerakook.
Grabitateari ihes egitetik gentozen,
ez dakit inor ba ote zegoen prest
halakorik entzuteko.
Emakumearen gorputza bezain gordin,
bular erori eta zimurtuekin
heldu da bat-batean heriotza gure artera.

“39 urte zituela hil zitzaigun ama, Argentinan”,
eta herrimina,
sufrimendua,
hilak
ahoskatu ditu segidan.
Ez dut denborarik izan garaiz janzteko,
babesteko nire gaztetasun ukigabea.
Emakume biluzi baten oinordeko bilakatu naiz ni ere,

eta ez al da hori gu guztion patua?

ITZULPENAK

Kristalezko saiakera¹

Anne CARSON

Euskaratzailea: Izaskun ETXEBESTE ZUBIZARRETA

[1] CARSON, Anne. (1995). The Glass Essay. In *Glass, Irony and God*. New York: New Directions Publishing Corporation.

NI

Ttak-ttak arinak entzuten ditut nire ametsean.
Gaua zilar-tantaka ari da
etxe atzean.
Goizaldeko lauretan, esnatu egin naiz. Gogoan dudala

irailean alde
egin zuen gizona.
Law zuen izena.

Komuneko ispiluan nire aurpegiak
arrasto zuriak ditu goitik behera.
Aurpegia garbitu eta ohera noa berriro.
Ama bisitatzera joango naiz bihar.

HURA

Iparraldeko otalur batean bizi da ama.
Bakarrik bizi da.
Udaberria labana bezala zabaltzen da han.
Trenez noa egun osoan, eta liburu asko daramatzat:

batzuk amarentzat, beste batzuk niretzat,
tartean *Emily Brontëren idazlan guztiak*.
Horixe da nire autore kuttunena.

Baita nire beldur handiena ere, eta hari buru egiteko asmotan noa.
Ama bisitatzen dudan aldiro
sentitzen dut Emily Brontë bihurtzen ari naizela,

nire bizitza bakartiaz inguratua otalur batez bezala,
nire gorputz ez-airosaz zingiradiak oinkatuz eraldatu-aire batez,
zeina aienatzen baitzait sukaldeko atetik sartu orduko.
Zein jaki falta dugu, Emily?

HIRU

Hiru emakume isil sukaldeko mahaian.
Amaren sukaldea iluna eta txikia da, baina leihotik hara
otalurra dago, izotzak paralizaturik.
Begiekin ikus ahal urrun hedatzen da

ordoki zabalean, zero zuri hits eta trinko bateraino.
Ama eta biok letxuga murtxikatzen ari gara astiro.
Sukaldeko erlojuak burrunba sor irregular bat ateratzen du,

minutuan behin jauzi egiten diona hamabiari.
Emilyren 216. or. dut zabalik azukre-ontziaren kontra,
baina, ezkutuka, amari begira nago.

Mila galdera iristen zaizkit begietara barrutik.
Ama bere letxuga aztertzen ari da.
Orria pasa dut 217.era.

«Sukaldea laster batean zeharkatzean, Hareton jo eta irauli dut,
hura ate parean ari zelarik txakurkume umealdi bat
aulki baten bizkarretik zintzilikatzen...»².

Guztiok kristalezko atmosfera batean hertsatu bagintuzte bezala da.
Inoizka, esaldi batek zeharkatzen du kristala.
Etxe atzeko lursailaren gaineko zergak. Meloi hau ez da ona,

ez da meloi garaia oraindik.
Herriko ile-apaintzaileak Jainkoa aurkitu zuen,
asteartero ixten du denda.
Saguak berriro ere eskuzatarren tiraderan.
Pikor txikiak. Ahozapien

izkina guztiak hozkatu dituzte; jakingo balute
zenbat balio duten gaur egun ahozapiek.
Euria gauerako.

[2] Jatorrizkoan *Gailur Ekaiztsuak*-enak diren pasarteak hitzez hitz ekarri dira Irene Alda-sororen itzulpenetik (2017, Erein/Igela). (I. O., hau eta hurrengoak).

Euria biharko.

Piztu da berriz ere Filipinetako sumendi hori. Ez-dakit-zer
Anderson hil da ez Shirley ez

opera kantaria. Beltza.

Minbizia.

Ez zara barazkia jaten ari, ez al zaizu piperra gustatzen?

Leihotik hara, ttipi-ttapa ikusten ditut hosto iharrak zabaldian gaindi
eta pinu zoldaz orbaindurik elur metak.

Otalurraren erdi parean

lurrak behera egiten duen sakonune batean,
izotza zartatzen hasi da.

Estalkirik gabe, gora dator ur beltza

suminaren antzera gatzatuz. Ama hizketan hasi da bat-batean.

Psikoterapia horrek ez dizu on handirik egiten, ezta?

Ez duzu Law burutik kentzen.

Amak badu gauzak laburbiltzeko joera.

Sekula ez zuen Law oso gogoko izan,

baina bai nik gizon bat izatea eta bizitzan aurrera egitea.

Tira, bera jaso zalea da eta zu eman zalea, ongi aterako ahal da!,
hori besterik ez zuen esan ezagutu zuenean.

Eman eta jaso hitz hutsak ziren niretzat

garai hartan. Inoiz ez nintzen maitemindu ordura arte.

Gurpil bat maldan behera piririka joatea bezala zen.

Baina gaur, goizean goiz, ama lo zela

eta ni behean irakurtzen ari nintzela *Gailur Ekaiztsuak*-en pasarte hura
non Heathcliff saretari oraturik negar-malkotan baitago ekaizpean

Sartu! Sartu! esanez bere maite bihotzekoaren mamuari,

alfonbra gainean belaunikatu eta negarrari eraso diot neuk ere.

Badaki txakurkumeak nola urkatu

Emily horrek.

Ez da aspirina bat hartzea bezala, badakizu?, erantzun diot ahapeka.
Dolua prozesu luzea dela dio Haw doktoreak.
Beltzuri egin dit amak. Zer lortzen da

iragana harrotu behar horrekin?
A! —diot eskuak zabalduz—,
gailendu egiten naiz! Adi geratu natzaio begira.
Irribarre egin du. Halaxe da, bai.

WHACHER³

Whacher hitzak,
horrela idatzi ohi baitzuen Emilyk hitz hori,
nahasmendua eragin du.
Esaterako,

Shakespeare Head-eko edizioko
poema baten lehen lerroan paraturiko *Tell me, whether, is it winter?*⁴
horretan.
Whacher zen, ordea, hark idatzi zuena.

Behatzailea baitzen bera.
Behatu zien gizakiei eta Jainkoari, eta otalurreko haizeari eta gau zabalari.
Behatu zien begiei, izarrei, barrualdeari, kanpoaldeari, eguraldi-giroari.

Behatu zien denboraren mugei, hautsi zirelarik.
Behatu zion munduaren bihotz kaskarrari,
hura zabal-zabal zegoela.

Behatzaile izatea ez da aukerakoa.
Ez dago nora joanik horretatik ihesi,
ez mendi-erlantzik bertara igotzeko; igerilari bat

ilunabarrez uretatik tantak astinduz irtetean
ura beste gabe barreiatzen den bezala.
Behatzaile izatea ez da, berez, kontu tristea edo alaia,

[3] Emily Brönteek *watcher* (hau da, “behatzaile”) hitzerako erabiltzen zuen idazkera hautatzen du Anne Carstonek atal honen izenburutzat.

[4] [Hau da:] *Esadazu negua denetz.*

nahiz hitz horiek darabiltzan Emily bere poemetan,
darabiltzan bezalaxe sexu-harremanen emozioak bere eleberrian,
eufemismo bidez hurbilduz behatze-lanari.

Ez du izenik, ordea.
Gardena da.
Zenbaitetan Zu⁵ deitzen dio.

«Emily solasgelan dago alfonbra eskuilatzen»,
idatzi zuen Charlotték 1828an.
Asoziala zenez etxean ere,

eta ezgauza, kanpora menturatzen zenean, arrotzei bekoz beko
begiratzeko,
Emily biziera deserosoan iragan zituen
egunak eta urteak, biografoak asaldatzen dituen hustasunez beteak.

Halako bizitza triste eta endurtua, dio batek.
Interesik gabea, arrunta, desengainuak eta
etsipenak joa, dio beste batek.

Itsasturi handia zatekeen gizonezkoa izan balitz,
iradokitzen du hirugarren batek. Eta bitartean,
Emily alfonbran eskuilatzen jarraitzen zuen galdera hau:

Zergatik uko egin munduari.
Zu-rekin uztarturik zegoenarentzat,
erdizka osaturiko esaldi-halako bat izango zen mundua.

Baina badago tarte bat Emily otalur-ibilaldi batetik etxerakoan
«argi jainkotiar bat» aurpegian duela
oroitzen duen auzokoaren artean

eta bere bizi osoan lagunik ez zuela izan
dioskun ahizparen hitzen artean,
eta tarte horretatik lerratzen da

[5] *Thou*, hau da, Zu izenordain zaharkitua darabil Emily Brontëk Jainkoari zuzentzen zaionean.

arimatxo hura, haragi bizitan.
Ekaitz-txoriak itsas-arrasean bezala darama bere gila sakona,
guztien oharkabean.

Ez zuen inork katigatu arimatxo nahasgabe hura.
Emilyk ez zuen izan ez adiskiderik, ez seme-alabarik,
ez sexu-harremanik, ez erlijiorik, ez ezkontzarik,
ez arrakastarik, ez soldatarik,
ez heriotzaren beldurrik. Bere bizi osoan

sei hilabetez lan egin zuen guztira (Halifaxeko eskola batean)
eta etxeko sofán hil zen neguko arratsalde bateko ordu bietan
hogeita hamaika urte zituela. Bere bizialdiko

ordu gehienak eman zituen alfonbra eskuilatzen,
otalurrean barrena paseatzen,
edo behatzen. Haren hitzetan,

bakea ematen omen zion horrek.
«Dena xuxen eta behar bezala, lau urte barru guztiok egotea
espero dugun gisa berean»,
idatzi zuen 1837an bere egunkarian.

Haren poesian, haatik, hasi eta buka oro da kartzela,
ziega, kaiola, burdin barra, brida, balazta, morroilo, girgilu,
oro leiho giltzatu, ate-marko estu, horma mintsu.

«Zer dela eta horrenbeste espantu?», galdetzen du kritikari batek.
Askatasuna nahi zuen. Ez al zuen izan, bada?
Familia-bizitza aski atsegingarria,

irudimen-bizitza guztiz atsegingarria: zer dela eta zalaparta hori guztia?
Zein zen giltzapeturik sentiarazten zuen
kaiola guretzat ikusezin hori?

Era askotara egon baitaiteke bat preso,
pentsatzen dut otalurrean urrats arinka nabilela.
Bazkalondoko ohitura dugu amak lo kuluxka egitea

eta ni paseatzera irtetea.

Zuhaitz urdin biluziek eta zur lixibatuzko zeru apirilekoak
barrena zizelkatzen didate argizko labanez.

Argi horren barneko zerbaitek haurtzarora narama:
bazkalondoko denbora geldiaren argia da,
noiz ere erlojuek tiki-taka baitagite

eta bihotzak ari baitira ixten
eta aitak irteten lanera itzultzeko
eta amak harraskaren kontra baitaude, buruan darabiltela

sekula esan gabeko zerbait.
Oroimen handiegia duzu,
esan dit amak berriki.

Zertarako atxiki hori guztia? Eta erantzun nion:
Non utziko dut, bada?
Hitz beste egin zuen, aireportuei buruzko kontu batera.

Izotz puskak lokatz bihurtzen ari dira nire inguruan
otalurrean aurrera egin ahala
eguzki zuritik itzuritako izpien epeletan.

Otalur bazterrean gure pinuak
murgil eta boga dabilta
beste nonbaitetik datorren haize kirritan.

Maitale bat galtzearen gauzarik latzena, beharbada,
urteko egunak errepikatzen ikustea da.
Iduri luke eskua murgil nezakeela

denboraren sakonean eta atera nezakeela
beste herrialde bateko iazko apirileko beroa
pilula urdin eta berdetan.

Sumatzen dut beste egun hura iragaten oraingo honen azpian
bideokasete zahar bat bezala: bagoaz bizkor muinoan gora
haren etxera azken bihurgunea hartuta, autoaren leihoan

ziztuan pasatzen dira limondo eta arrosondoaren itzalak,
 irratia musika hedatuz doa, eta Law
 kantari, nire ezker eskua bere ezpainetara eramanez.

Law gela garai urdin batean bizi zen, eta itsasoa ikusten zuen handik.
 Denborak, bere kiribil gardenetan gaur nire azpitik igarotzean,
 oraindik ere ekartzen dit gela hartako telefonoaren soinua

eta urruneko trafikoarena eta leihopeko usoen
 urruna lasaiarena, eta Lawren ahotsarena esanez:
 Eder hori. Sumatzen dut eder haren bihotza

taupaka nirearen barruan, hura Lawren besoetan estutzen delarik
 gela garai urdinean...
 Ez, diot ozen. Indarka jaitsi ditut besoak
 bat-batean ura bezain hotza eta lodia zaidan airean,

eta inarrosaldi batez eten da bideokasetea,
 kristalezko porta bat odol tanta baten azpian nola.
 Gelditu, jiratu eta haize kontra jarri naiz;

orain bortitz datorkit otalurrean gaindi.
 Lawk alde egin zuenean hain sentitu nintzen gaizki, non hilko
 nintzela uste izan bainuen.
 Ohikoa da hori sentitzea.

Meditazioa praktikatzeari ekin nion.
 Goizero esertzen nintzen lurrean sofa aurrean
 eta latinezko otoitz zaharren zatiak errezitatzen nituen.

De profundis clamavi ad te Domine.
 Goizero ikuspen bat etortzen zitzaidan.
 Apurka-apurka ulertu nuen nire arimaren irudi-kolpe soilak zirela.

Biluziak deitu nien.
 1. Biluzia. Emakume bat muino batean, bakarrik.
 Haize kontra dago.

Haize zakarra da, iparretik datorrena.
Emakumearen gorputzetik askatu diren haragi-dindirri eta -zerrenda
luzeak hegan
goiti daramatza haizeak, agerian utziz

zain, odol eta gihar hutsezko zutabe bat
mutu oihuka aho ezpaingabe batetik.
Min ematen dit hau idazteak,

ez naiz pertsona melodramatikoa.
Baina arima «tailer basa batean zizelkatzen» da,
Charlotte Brontëk *Gailur Ekaiztsuak*-i buruz dioenez.

Charlottek *Gailur Ekaiztsuak*-i egindako hitzaurrea publizista baten
maistralana da.

Sofaren besotik jauzi egitear dagoen eskorpioi bati
begiratzea saihesten duenaren antzera, Charlotte

irmo eta patxadaz mintzatzen da
Emilyren tailerreko gainerako altzariez: haren izaera
zorrotzaz («gizon bat baino sendoagoa, ume bat baino sinpleagoa»),

gaixotasun krudelaz («ezein hitzek adieraz ez dezakeen oinazea»),
borondatezko amaieraz («azkar hondoratu zen, asko presatu zen
gu uzteko»),
eta Emilyk bere burua erabat eskaintzeaz

ez ulertzeko ez kontrolatzeko gai ez zen sormen-proiektu bati,
zeinarenegatik ez baitu merezi laudorio edo gaitzespen gehiago
ahoa ireki izan balu baino

«tximista jariatzeko». Badoa eskorpioia astiro
sofa-besoan behera, Charlottek adeitsu
azaltzen digun bitartean zer tximista

eta zer bestelako ekaitzaldi espero ditzakegun
Emilyren atmosfera elektrikoan sartzerakoan.
«Ilundi sakoneko lastura bat» dugu zain bertan,

baina Emily ez da haren erantzule. Eragin baten pean zegoen Emily.
«Ez zekien zer egin zuen izaki horiek sortzerakoan»
dio Charlottek (Heathcliff, Earnshaw eta Catherineri buruz).

Era askotara egon baitaiteke bat preso.
Eskorpioiak jauzi arin bat egin, eta gure ezkerreko belaunean pausatu da,
Charlottek amaiera gisa zera dioenean: «ez zuen gupidarik bere
buruarekin».

Orobat dira gupidagabeak Gailurrak, Emilyk Ekaiztsu deritzenak
hango «egurats bizkortzailea»
eta «gainez gain dabilen ipar-haizea» direla eta.

Behatzeak ipar-haize batek nola birrintzen zuen otalurra,
aitaren etxea alde guztietatik inguratzen zuena,
hura errota-hareharri deiturikoaz eraikia izanik,

horrexek irakatsi zion Emilyri maitasunaz eta haren premiez
zekien guztia:
irakasbide latza, taxutzen duena haren pertsonaiek
elkar erabiltzeko duten modua. «Heathcliffi diodan maitasuna»,
dio Catherinek,

«lurpeko arroka betierekoen antzekoa da:
ageriko atsegin gutxiren iturri, baina beharrezkoa».
Beharrezkoa? Ohartu naiz eguzkia apaldu dela

eta biziagotzen ari dela arratsaldeko haizea.
Jiratu eta otalurra berriz zeharkatzeari ekin diot etxe aldera.
Zein inperatibo dira horiek,

Catherine eta Heathcliffen gisakoak elkarrekin eta bereiz
atxikitzen dituztenak, haizeak arroka goritara ufaturiko
poroak balira bezala, gero hura gogortzean

elkarren irismenetik kanpo geratuak? Zein premia klase da hori?
Iraileko gau ilun batez ikusi nuen Law azkenekoz.
Hasia zen udazkena,

hotz nituen belaunak arropa barruan.
Ilargi zati izoztu bat atera zen.
Nire egongelan mintzatu zitzaidan, zutik,

begiratu ere egin gabe. Ez dut nahikoa zurrunbilo sentitzen,
hori esan zuen bost urteko gure maitasunari buruz.
Bihotza bitan zatitzen nabaritu nuen bularrean

eta erdi bakoitza bereiz aldentzen. Ordurako hain nengoen hotzak hilik
ezen erretzea bezala baitzen. Eskua luzatu nuen
berea ukitzeko. Atzera egin zuen berak.

Ez dizut sexu gogorik erakutsi nahi, esan zuen. Zentzugabea bihurtu
zen dena.

Baina niri begira zegoen orain.
Bai, esan nuen, eta erantzten hasi nintzen.

Zentzugabea bihurtu zen dena. Biluztean
bizkarra eman nion, gustuko duelako atzealdea.
Gainean jarri zitzaidan.

Maitasunaz eta haren premiez dakidan guztia
momentu hartantxe ikasi nuen,
neure burua topatu nuenean

popatxo gorri gorria bultzatzen, babuino batek bezala,
jada maite ez ninduen gizon baten kontra.
Ez nuen gune bakar bat ere buruan

ekintza horrek asaldatu gabekorik, ez ere atalik gorputzean
bestela jokatu ahal izango zuenik.
Baina buruaz eta gorputzaz mintzatzea auziari itzuri egitea da.

Arima da leku hura, non,
gorputzaren eta buruaren artean hertsaturik hareharrizko gainazal
baten gisan,
birrintzen baitoa premia hori.

Arimari egon nintzaion adi gau hartan guztian.
 Law nirekin geratu zen.
 Tapakien gainean etzanda egon ginen, gau hura ez balitz bezala
 loaren eta denboraren erreinukoa,

elkar laztanduz eta geuk sorturiko hizkuntzan elkarri kantatuz,
 lehen izan ohi ginen umeen gisan.
 Zerua eta Infernua bat etorri ziren gau hartan,

Emilyk esango lukeenez. Larrutan egiten saiatu ginen
 baina Law bigun geratzen zen, pozik egonagatik. Ni behin eta berriro
 iritsi nintzen, buruargitasuna metatuz aldiko,

eta azkenerako sabaitik gertu flotatzen nenbilen goietan, handik begira
 ohean besarkaturik zeutzan bi arimeiz,
 inguruan muga hilgarriak

ageri zituztela, mapa bateko lerroak iduri.
 Sakontzen ikusi nituen lerrook.
 Lawk goizean egin zuen alde.

Hotz handia egiten du
 apirileko haize zabal zakarrean ibiltzean.
 Urteko garai honetan ez da eguzki-sartzerik,
 argian gorabehera zenbait eta ondoren moteltzen joate bat baino ez.

SUKALDEA

Hezur bat bezain bare dago sukaldea sartu naizenean.
 Zarata bat ere ez dator etxe barrutik.
 Apur batez itxaron
 eta hozkailua ireki dut.

Espazio-ontzi baten distiraz, nahasmendu hotza dario.
 Bakarrik bizi da ama eta gutxi jaten du, baina gainezka du beti hozkailua.
 Zilar-paperean bilduriko gabon-tarta kondarrez

eta farmaziako botika-ontziz eraturiko antolaketa artetsu baten azpitik
 jogurt potoa atera ondoren,
 hozkailuko atea itxi dut. Ilunabar urdinkara batek

betetzen du gela, itsaso bat beheranzkoan nola.
Harraskaren kontra jarri naiz.
Esnekiak dira nire jaki gogokoena

eta nahiago dut bakarrik jan. Ez dakit zergatik.
Behin maiatz-kanta hau entzun nien neskato batzuei:

Jaki-tokian Violante
ardi-hezur marraskan.
Nola zuen marraskatzen
nola atzaparkatzen
inork ez ikustean.

Neskatoak dira krudelenak beren artean.
Emily Brontëren gisako bati,
gorputzez emakume izanagatik bizi osoan neska gelditu zen hari,

zirritu guztietan metatu zitzaion krudelkeria, udaberriko elurraren
gisan.
Ikus dezakegu hartaz libratzen dela aldizka
alfonbra eskuilatzeko keinu bera erabiliz.

Hitz egin ezazu berarekin, eta hebain ezazu gerol,
hori izan zen aitari emandako agindua (sei urterekin)
anaia Branwell zela-eta.

Eta hamalau zituela zakur amorratu batek hozka egin zionean,
urrats handian (diotenez)
sukaldera sartu, eta berogailu atzetik kurrika gori-goriak hartuta
besoan ezarri omen zituen berehala.

Heathcliffen kauterizazioa gehiago luzatu zen.
Hogeita hamar urtetik gora, eleberriko denboran,
hasi apirileko arrats hartan, sukaldeko atzeko atetik ihes eginez
otalurrean desagertzen den hartan

ustekabez entzun zuelako Chaterineren esaldi erdi bat
(«Orain apalgarria litzateke Heathcliffekin ezkontzea»),
eta beste goiz euritsu hartara arte,

noiz ere zerbitzariak hilik topatzen baitu zurrun eta irria ezpainetan
Gailur Ekaiztsuak-eko goiko solairuko bere ohe blaituan.
Oinazearen deabru bat da Heathcliff.

Sukaldean geratu izan balitz
Chaterineren beste esaldi erdia entzuteko lain
(«beraz, hark ez du inoiz jakin behar zenbat maite dudan»),

Heathcliff aske geratuko zen.
Baina Emilyk bazekien deabru bat nola harrapatu.
Barnean sartu zion Heathcliffi, arima baten ordez,

Catherine haren nerbio-sistemagandik hotz eta jarraituki aldentzea,
mutilak arnasa hartzen edo iritziz mudatzen zuen aldiro.
Emilyk loria garai guztiak erdizkatu zizkion

sukaldean zabalik utzitako atearekin.
Ez zait arrotza erdizkako bizitza hori.
Baina hor bada zerbait gehiago.

Heathcliffen desesperazio sexualaren jatorria
ez zegoen Emily Brontëk bizi izandako zerbaitengan,
dakigula. Galdera hura,

gizaki bat oinazearen deabru bihurtzeko behar diren krudelkeria
barrendu urteei dagokiona,
su-argi goxoko sukalde batean otu zitzaion Emilyri
(*kichin*, haren idazkeran, *kitchenen* ordez), non bera

eta Charlotte eta Anne elkarrekin patatak zuritzen aritzen baitziren
eta istorioak asmatzen, Keeper etxe-zakur zaharra oinetan zutela.
Bada pasarte bat

1839an idatzi zuen poema batean
(*Gailur Ekaiztsuak* baino sei urte lehenago), honela dioena:

Burdinazko gizon hura jaio zen nire antzeko
eta izan zen behinola mutil gorria.
Haurtzaroan zuen naski sentituko
udako zeru batek eragin loria.

Nor da burdinazko gizon hori?
Amaren ahotsa sartu zait tartera,
sofan etzanik dagoen aldameneko gelatik.

Zu al zara, laztana?
Bai, ama.
Zergatik ez duzu argia pizten?

Sukaldeko leihotik ikusten dut apirileko eguzki altzairukara
azken printza hori hotzak iltzatzen
zilar arrezko zeruan.
Ados, ama. Zer dago afaltzeko?

ASKATASUNA

Askatasunak esanahi ezberdina du batzuentzat eta besteentzat.
Sekula ez dut maite izan goizean ohean geratzea.
Lawk, bai, maite zuen.
Amak ere maite du.

Nik, aldiz, begietan jo orduko atera nahi izaten dut goizeko argira,
otalurrean ibiltzera
esna dagoen ororen lehen nabigatze hotzeko korronte urdinetan.

Ama entzuten dut aldameneko gelan jiratzen eta hasperen egiten
eta barnago sartzen.
Maindire-kaiola kirastutik zangoak libratu
eta aske naiz.

Kanpoan, otalurrean, distiratsu eta gogor dago dena, gaueko
izotzaldiaren ostean.
Argia zuzen sartzen da jelatik zero goieneko zulo urdin batera.
Lokatz hormatua kraskatu egiten da oinpean. Hots horrek

atzera amilarazi nau gaur goizeko
esnaerako ametsean:
gau osoko amets gozo horietako bat, non Lawren

besoetan bainago orratza uretan bezala; ahalegin fisikoa egin behar dut
zeta zurizko haren eskuetatik libratzeko
ametsezko nire aldaketan behera irristan doazelarik. Jiratu

eta haize kontra jarri
 eta lasterka hasi naiz.
 Iratxoak, deabruak eta herioa datozkit atzetik segika.

Lawk alde egin ondoko egun eta hilabeteetan
 iruditzen zitzaidan zerua erauzi zutela nire bizitzatik.
 Ez nuen inoiz ere aterperik izango ontasunean.

Lazgarria izan zen ikustea nola bihurtzen zen
 Lawren eta nire arteko maitasuna elkarren irritsean hozkaka dabiltzan
 bi animaliairen arteko borroka, baina beste gose mota bat asetzeko.

Agian hori da jendeak jatorrizko bekatutzat hartzen duena,
 pentsatu nuen.
 Baina zein maitasun izan zitekeen, orduan, haren aurretikoa?
 Zer da aurretikoa?

Zer da maitasuna?
 Nire galderak ez ziren originalak.
 Eta nik ere ez nituen erantzun.

Meditazioa egiten nuen goizetan
 nire arima bakartuaren ikuspen biluzi bat agertzen zitzaidan,
 ez maitasunaren eta gorrotoaren misterio konplexuak.

Baina Biluziek garbi diraute oraindik nire gogoan,
 gaeuz esekilekuan izozturiko gobada-piezak bezain.
 Hamahiru izan ziren orotara.

2. Biluzia. Emakume bat arantzazko kaiola batean preso.
 Arantza handi eta distiratsuak dira, marroiak orban beltzekin,
 eta emakumea batera eta bestera dabil

zutik egon ezinik.
 3. Biluzia. Emakume bat, bekokian arantza handi bat ezarria duena.
 Bi eskuez oratzen du

indarka ateratzeko eginahaletan.
 4. Biluzia. Emakume bat paisaia suntsitu batean
 hondoa gorritz argizaturik, Jeronimo Bosch-enetan bezala.

Demoniozko tramankulu batek estaltzen dizkio burua eta soingaina,
karramarro baten erdiz gorako zatia iduri.
Jertsea erantzeko bezala besoak gurutzaturik

emakumea gogor ari da karramarroa ateratzeko ahaleginetan.
Garaitu horretan hasi nintzen
Biluziei buruz hizketan

Haw doktore andrearekin. Hala esan zidan:
Irudi beldurgarri horiek ikusten dituzunean, zergatik eusten diezu?
Zergatik jarraitu begira? Zergatik ez

alde egin? Txundituta nengoen.
Alde egin, nora? esan nion.
Galdera ona iruditzen zait oraindik ere.

Baina dagoeneko zabaldu du eguna erabat, eta apirileko argi gazte
bitxi bat
ari da otalurra esne urrekarak blaitzen.
Erdi parera iritsi naiz,

lurrak behera egin eta ur zingiratsuz betetzen den sakonunera.
Izoztua dago ura.
Otalur bizitzaren gau-portaera leiar beltz trinko batean harrapatu-
rik.

Belarrek eraturiko apaindura urrekara zenbait ageri dira belztasunaren
sakonean.

Lau haltz-enbor larrutu goititzen dira bertatik
eta kulunkatzen aire urdinean. Enbor bakoitza

barnatzen den gunetik zilarrezko presio-mapa bat hedatzen du izotzak:
milaka arrakala fin-fin argiaren zuria atzitzen,
aurpegi kartzelatu batek

burdin barren artetik irribarreak atzitzen dituen gisa berean.
Emily Brontëk badu poema bat, zeinean hala baitio emakume
preso batek:

Esperantzaren mezulari bat datorkit gauero,
eskainiz, bizitza labur baten truke, betiko Askatasuna.

Zer Askatasun klase ote da hori.

Haren kritiko eta iruzkingileek diote heriotzaz ari dela
edo heriotzaren iragarle den irudipenezko bizipen batez.

Emilyren presondegizat jotzen dituzte
hemeretzigarren mendeko bizimoduak elizgizon baten alaba bati
ezarririko mugak
ipar Ingalaterrako otalur hotz bateko

parrokia urrun batean.

Ernegatu egiten ditu hark preso-bizitzari egozten dizkion muturreko
baldintzek.

«Brontëren lan askotxotan,

autodramatizazioak eta itxurakeriak
melodrama melenga bihurtzeko zorian jartzen ditu poema hauek»,
dio batek. Beste batek

haren mundu gatibatuaren «kartoi hutsa» aipatzen du.

Nire psikoterapeutari Biluziak kontatzeari utzi nion
ohartu nintzenean ez nuela erantzunik haren galderarentzat:

Zergatik jarraitu begira?

Batzuek begiratu egiten dute, hori da esan dezakedan guztia.

Ez dago beste inora joaterik,

ez mendi-erlantzik bertara igotzeko.

Hori azal niezaioke agian une egokia topatzen badut,
berezi samarra den ahizpa batekin egingo nukeen gisan.

«Denborak eta eskarmentuak soilik molda zezaketen gogo hura:

ez zegoen irekia beste adimen batzuen eraginari»,

idatzi zuen Charlottek Emilyri buruz.

Zer solasaldi klase izaten ote zituzten haiek biek

apaizetxeko gosari garaian.

«Ahizpa Emily

barrenkoia zen izaeraz», azpimarratzen du Charlottek,

«haren buruaren eta sentimenduen zokondoetan,

hurbilen eta maiteen zituenak ere ez zitezkeen sar

inpunitatez, baimenik gabe...». Ugariak ziren zokondoak.
1845eko udazken egun batez, diosku Charlottek,
«poema-liburu baten eskuizkribu bat topatu nuen ustekabeen ahizpa
Emilyren idazkerarekin».

Koaderno txiki bat zen (10 x 15)
azal gorri ilunean 6d. markaturik zuena
eta barnean 44 poema Emilyren letra txikitxoan idatziak.

Charlottek bazekien Emilyk olerkiak idazten zituela
baina «txunditua baino txundituago» geratu zen haien kalitatearekin.
«Ez da inondik ere emakumeek idatzi ohi duten poesiaren gisakoa».

Beste txundidura bat zuen zain Charlottek Emilyren eleberria
irakurtzean,
hizkuntzaren gordinagatik, batez ere.
Arretaz arakatzen du zokondo hori

Gailur Ekaiztsuak-i eginiko hitzaurrean.
«Irakurle askok eta askok, berebat, biziki sufrituko dute
letra guztiez idatzirik ageri direlako

lan honen orrialdeetan zenbait hitz,
usaiaz lehen eta azken letraz soilik adierazten zirenak, zuriune batek
betetzen zuela tarteak».

Tira, definizio bat baino gehiago ditu Askatasunak.
Maitasuna askatasuna da, Lawk gogoko zuen hori esatea.
Areago hartzen nuen guraritzat gogoetatzat baino,

eta gaiaz beste egiten nuen.
Zuriuneak ez dira esanahirik gabekoak, ordea.
Charlottek dioenez,

«Jende biraogile eta bortitzaren solasa apaindu ohi duten
gordinkeriak letra bakarrez iradokitzeko jardun hori,
asmo onenarekin egina bada ere,

jokabide hutsal eta alferrikakoa begitantzen zait.
Ez diot antzematen zer onura dakarren —zer sentipen saihesten duen—
zer beldur ezkututzen duen».

Etorri bidetik itzultzeari ekin diot otalurrean barrena,
 etxe aldera eta gosari aldera.
 Bi noranzkoko ibilbidea da

esan gabekoaren hizkuntzarena. *Emily Brontëren idazlan guztiak* liburuko
 nire orrialde gogokoenak
 amaierako oharrak dira,

jasotzen baitituzte Charlottek Emilyren olerkiei
 eginiko moldaketa txikiak
 hura hil ondoan argitaratzeko editatu zituenean.
 «*Kartzela kementsuenentzat* [Emilyk idatzi bezala], *nobleenentzat* aldatuta
 Charlottek».

HEROI

Amak ogi txigortua murtxikatzeko eragatik esan dezaket
 gau ona pasatu duen
 eta kontu alai bat esatera doan
 ala ez.

Ez.
 Plater ertzean utzi du ogi txigortua.
 Badakizu itxi ditzakezula gela horretako errezelak, hasi zait.

Gure arteko eztabaida zaharrenetakoari buruzko erreferentzia kodetua
 da hori,
 Bizitzako Arauak deitzen diedan sailekoa.
 Amak beti ongi ixten ditu bere gelako errezelak lotara joan aurretik.

Nik ahalik zabalen uzten ditut neureak.
 Dena ikustea gustatzen zait, diot.
 Zer dago, bada, ikusteko?

Ilargia. Airea. Egunsentia.
 Argi hori guztia aurpegian goizez. Esnatu egiten zaitu.
 Gogoko dut esnatzea.

Honetara ezkerre, delta batera iritsi da errezen eztabaida
 eta hiru ubideetako batetik egin dezake aurrera.
 Zuk Behar Duzuna Da Gau Batez Lo Zerraldo Egitea ubidea da bat,

Aita Bezain Egoskorra ubidea da bestea,
eta ausazko ubidea, bestea.
Beste ogi txigortu bat?, bota dut bortizki, aulkia atzera bultzatuz.

Emakume horiek!, dio amak, eztarria suminez lazturik.
Ausazko ubidea hautatu du amak.
Emakumeak?

Bortxaketez kexaka etengabe.
Mahats-marmeladaren ondoan dagoen atzoko egunkaria
hatz haserre batez kolpekatzen ari dela ikusten dut.

Lehen orrialdeak kronika labur bat dakar
Emakumeen Nazioarteko Egunaren aldeko mitin bati buruz.
Eman al diozu begiratu bat Sears-en udako katalogoari?

Ez.
Bueno, bueno... lotsagarria da! Bainujantzi horiek...
honainoko labur-laburrak! (hatzez markatzen du). Ez da harritzekoa!

Zer esaten ari zara, emakumeek bortxatuak izatea merezi dutela
Sears-ek tanga itxurako bainujantziak
iragartzen dituelako? Ama, benetan ari al zara?

Tira, baten batena izango da errua.
Zergatik dira emakumeak gizonaen desiraren errudun?
Ahots ozenez ari naiz.
A!, ikusten dut Haietako bat zarela.

Zeinetako bat? Ahots oso ozenez ari naiz. Amak are ozenagotzen du
berea.
Eta zer demontre egin zenuen iazko bainujantzi txiki harekin,
berde harekin?
Oso dotore geratzen zitzaizun.

Garaiera oso altutik jausi zait gainera egia hauskor hau:
ama beldur da.
Laurogei urte beteko ditu udan.

Txabusina urdinean nabarmentzen zaizkion sorbalda estu konkortuek
gogora dakarkidate Emily Brontëren belatz txikia, Heroi,
zeinari hirugihar zatiak ematen baitzizkion sukaldeko mahaian,
Charlotte inguruan ez zebilenean.

Orduan, ama, joango al gara gaur —txigorgailuari gora eragin
eta ogi beltz xerra beroa jaurti diot emeki plater gainera—
aita bisitatzeraz? Bekozko beltzez begiratu dio sukaldeko erlojuari.

Hamaiketan atera eta laurak aldera etxean?, jarraitu dut.
Ihurtzi zakarrez ari da ogia gurineztatzen.
Gure kodeetan, isiltasuna baiezkkoa da. Aldameneko gelan sartu naiz
taxiari deitzera.

Aita gaixo kronikoentzako ospitale batean bizi da
hemendik 80 kilometro ingurura.
Dementia mota bat du,

ezaugarri dituen bi aldaketa patologiko mota
Alois Alzheimerrek lehenengoz deskribatuak 1907an.
Bata, garuneko ehunean

formazio esferiko bat agertzea, plaka neuritiko deritzona
eta, funtsean, burmuineko zelula endekatuz osatua dena.
Bestea, haril neurofibrilarrak

kortexean eta hipokanpoan.
Ez da ezagutzen ez kausarik ez sendabiderik.
Ama astean behin joaten zaio bisitatzeraz taxiz

azken bost urtean.
Onean eta gaitzean izaten da ezkontza, dio amak,
eta honako hau da gaitza.

Ordubete inguru geroago taxian goaz
herri-bide hutsetan zehar ziztuan hirirantz.
Apirileko argia alarma bat bezain bizia da.

Objektuak gurutzatu ahala, bat-batean ematen du haietako bakoitza
bere itzalaren gainean kokatua dagoela.
Nahiago nuke argitasun hau neurekin eramaterik banu

ospitalera, non bereizketek joera baitute berdintzeko eta bateratzeko.
Nahiago nuke goxoago izan banintz aitarekin hura zoratu aurretik.
Horra hor nire bi gurariak.

Zaila da dementziaren hastapena topatzea.
Gogoan dut arrats bat duela hamar bat urte
harekin telefonoz ari nintzena.

Igande arratsa zen, neguan.
Entzun nuen nola izuak hartzen zituen haren esaldiak.
Hasten zuen esaldi bat... eguraldiari buruz, desbideratzen zen,
beste bat hasten zuen.
Nire onetik atera ninduen galdurik sumatzeak;

nire aita garai eta itzaltsua, Bigarren Mundu Gerrako pilotu ohia!
Gupidagabe ariarazi ninduen horrek.
Bazter geratu nintzen solasetik,

itzulbiraka helduleku bila nola zebilen begira,
nik bat bera ere eskaini gabe,
eta elur-jausi bat gainera mantso etorrita bezala jabetu nintzen

ez zuela arrastorik ere norekin ari zen.
Askoz hotz handiagoa gaur, uste dut...
haren ahotsa isiltasunean barnatu zen, eta eten,

elurpean.
Isilaldi luze bat gertatu zen elurrak biok estali bitartean.
Tira, ez zaitut berantarazi nahi,

bota zuen argialdi-kolpe presatu batez, lurra begizatuz bezala.
Gabon pasa esango dizut,
ez dizut faktura garestitu nahi. Agur.

Agur.
Agur. Nor zara?
Markatze tonuari erantzun nion.

Ospitalean, leiho handi bat eta konbinazio-sarraila (5-25-3)
dituen ate bat gurutzatu ostean,
korridore arrosa luzeak zeharkatu ditugu

mendebaldeko hegaleraino, han baitaude gaixo kronikoak.
Hegal bakoitzak du bere izena.
Urrezko Gure Milia da kronikoena

nahiz amak nahiago duen Azken Itzulia deitu.
Paretari loturiko besaulki batean dago aita, uhal batez estekatua,
beste pertsona estekatu batzuk hainbat angelutan okerturik dauden
gela batean.

Aita da gutxien okertzen dena, harro nago aitaz.
Kaixo aita zer moduz?
Irribarrea edo amorru-keinua izan litekeen batek printzatu dio aurpegia,

eta, niri jaramonik egin gabe, purrustada-segida bat igorri du airera.
Amak aitaren esku gainean jarri du berea.
Kaixo laztana, esan dio. Aitak kendu egin du eskua, zakar. Eseri egin gara.

Eguzki-izpiak turrustan gelan barrena.
Eraman dizkion gauzak poltsatik ateratzen hasi da ama:
mahatsa, tapioka opilak, mendazko gozokiak.

Aita gogor ari zaio erasiaka gure arteko airean dagoen norbaiti.
Berak bakarrik ezagutzen duen hizkuntza bat darabil,
marrumaz, silabaz eta bat-bateko eskari burugabez osatua.

Noizbehinka esapide zaharren bat azaleratzen da uhin artetik,
Bai zera! edo Urte askoan!...,
baina benetako esaldirik ez

duela hiru urte baino atzeragotik hona.
Ohartzen naiz belzten ari zaizkiola hortzak.
Nola garbitzen ote zaizkie hortzak zoroei.

Aitak ongi zaintzen zituen hortzak beti. Begiak jaso ditu amak.
Askotan gogoeta beraren erdi bana egiten dugu amak eta biok.
Oroitzen al zara txotx erreztatu hartaz,

Londresen egon zinen udan Harrodsetik bidali zenionaz?, galdetu dit.
Bai, auskalo non ote dagoen.
Bainugelan egon behar du nonbait ere.

Ama mahats-aleak ematen ari zaio banan-banan.
Behin eta berriz itzurtzen dira aitaren hatz handi eta zurrunen artetik.
Gizon handia zen lehen, metro eta laurogeitik gorakoa, eta sendoa,

baina ospitalera etorri zenetik hezur hutseraino uzkurtu zaio gorputza,
salbu eskuak. Eskuek hazten jarraitzen dute.
Haietako bakoitza, orain Van Goghen bota bana bezain handi,

baldar dabil mahatsen atzetik aitaren magalean.
Baina hara non nigana itzuli eta bota didan orain silaba urgente
parrastada bat
nota altu batean amaitua: zain dago,

eta begira-begira dut. Begirada galdetzaile hori.
Bekain bat goraturik.
Argazki bat dut itsatsia etxeko hozkailuan.

Bigarren Mundu Gerrako aitaren eskifaia ikusten da hegazkin aurrean
posatzen.
Eskuak atzean tinko, zangoak zabal-zabal,
kokotsak aurrera.

Soinean pilotu-jantzi lodikoteak
eta larruzko tirante zabalak hankarte inguruan estu tenkataturik.
Erdi itxiak dituzte begiak 1942ko neguko eguzki dirdaitsuaren eraginez.

Egunsentia da.
Frantziara abiatzera doaz Doverretik.
Aita da, ezker-ezkerrean, pilotuetan luzeena,

jantziaren lepoa jaso,
bekain bat goraturik.
Itzalik gabeko argiak hilezkor itxura ematen dio,

sekula gehiago negar egingo ez duenaren irudia, inondik ere.
Aurpegira begira dut oraindik.
Zabaldu aleroiak!, egin dut oihu.
Piztu zaio istant batez bere irribarre ilun hori, eta itzali zaio pospolo
baten antzera.

GORI

Ilargite urdin bizi-bizia zero pikoan behera.
 Lasterregi esnatu naiz txakurkume urkatuak dauden soto batetik,
 begiak iluntasunean sarturik.
 Haztamuka

eta astiro,
 ezaguerak ordezten ditu burdin barrak.
 Amets-hondarrak eta likido suminduak

beherantz jariatzen dira neure erdiguneraino.
 Suminezko ametsek betetzen dituzte gehienetan nire gauak orain.
 Ohikoa da maitasuna galdu ondoren;

urдина, beltza eta gorria kraterra zartarazten.
 Interesatzen zait sumina.
 Hura eskalatuz noa iturburuaren bila.

Ohean esna dagoen emakume adindu bati buruzkoa zen ametsa.
 Haren gainean kablez konektaturiko bonbilla-sistema baten bidez
 kontrolatzen du etxea.
 Etengailu beltz txiki bat du kable bakoitzak.

Banan-banan etengailuek uko egiten diote bonbillak pizteari.
 Eman eta eman ari da bera,
 aldiro haziz doakion sumin oso biziz.

Orduan ohetik jaikitzen da
 gainerako logelak sareten artetik zelatatzera.
 Isilean daude logelak, distiratsu argiztatuak

eta altzari eskergaz beteak, zeinen azpian kukutzen baitira
 izaki txiki batzuk, ez erabat katu ez erabat arratoi,
 beren baraila gorri meharrak miazkatzen

denboraren zamak gaina harturik.
 Ederra izan nahi dut berriro, xuxurlatu du emakumeak,
 baina logela sobera argiztatuek tik-tak dagite huts-hutsik

transatlantiko abandonatu baten antzera, eta emakumearen atzetik
farfar-soinu bat dator orain ilunpean.
Blai dut pijama.

Suminak nigan bidaiatzen du, gainerako guztia bazterreratzen du
nire bihotzean,
turrustaka hedatuz hodietan.
Gauero esnatzen nau sumin horrek,

ohea blaitua,
estira bizizko kutxa niri zartakoka, mugitzen naizen aldera mugitzen
naizela.
Justizia nahi dut. Zarta.

Azalpen bat nahi dut. Zarta.
Madarikatu nahi dut beti maiteko zaitut esan zidan adiskide faltsua.
Zarta.
Besoa luzatu eta gau-mahaiko argia piztu dut. Gauak jauzi egin du

leihotik eta otalurrean barrena joan da.
Ohean etzanda nago, argiaren dardara belarrietan entzunez
eta biraoetan pentsatzen.

Emily Brontë ona zen birao egiten.
Desleialtasuna, amodio zapuztua eta aldaketaren mindura izugarria
etengabeko gaiak dira haren poesian.

Ongi da, laztana, maitatu nauzu ordainetan!
Baina baldin bada Jainkorik goietan
beso indartsuko, haren hitza dena egiazko,
infernuak zure arima ere du urratuko!

Landuak dira biraoak:

Zoaz, Engainaria, zoaz! Nire eskuari dario bustia;
odola isuriz doa nire bihotza, erosi asmoz... ahazteko grazia!
O, itzuliko ahal dio bihotz galdu honek, itzuli zureari, hara,
nire gainbehera iluna goibeltzen duen minduraren hamarrena.

Baina ez diote bakerik ekartzen:

Hitz alferrak, eldarnio alferrak! Ez da entzungo nauen belarririk;
aire hutsean dagite nire birao sukartsuek durundi...

Nire ariman menderakaitz, Tiranoak gobernatzen nau oraindik.
Bizia makurtzen da nire agintera, baina *Maitasuna* ezin hil!

Misterio bat da haren sumina.
Galdera asko sortzen zaizkit
ikustean zein erdeinu hotz-ohartiaz tratatzen duen maitasuna

etxetik ia inoiz atera gabeko batek
«ez bada elizara joateko edo muinoetan paseatzeko»
(Charlottetek dioskunez) eta Haworth-eko herritarrekin

harreman handiagoa ez zuen batek
duena baino «moja batek
komentu-ataritik tarteka pasatzen diren nekazariekin».

Nola iritsi zen Emily gizakiengan fedea galtzera?
Miresten zituen haien dialektoak, ikertzen haien genealogiak,
«baina oso bakanka gurutzatzen zuen hitzik haiekin».

Izaera barnerakoiak eragozten zion bostekoa luzatzea otalurrean
topatzen zuen edonori.
Zer zekien Emilyk maitale arteko gezurrez edo gizakien leialtasun
aldaberaz?
Biografoen artean

bada bat susmatzen duena haur batez erditu zela edo haurra galdu zuela
Halifaxeko sei hilabeteko egonaldian,
baina ez da gertaera horren inolako frogarik

eta gehienen iritzian Emilyk ez zuen gizonik ukitu bere hogeita hamaika
urteetan.
Topiko sexistaz landa,
gehiago makurtzen naiz

Gailur Ekaiztsuak irakurtzera trinko metaturiko mendeku-ekintza gisa
bizitzak Emilyri ukatu zion guztiagatik.

Baina azalpen sakonago baterako zantzuak eskaintzen ditu poesiak.

Sumina, zenbait emakumerentzat, jaidura-halako bat balitz bezala.

Hotzikara eragiten du gogoeta horrek.

Bihotza hilik dago haurtzarotik.

Ez du lanturik jo gorputza abandonatzeagatik.

Bat-batean hoztuta, eskua luzatu eta kokotseraino jaso dut tapakia.

Nirea ez da suminerako jaidura.

Badakit zein den neurearen sorburua.

Txundigarria da, besteak ez bezalako unea da

zure maitalea azaldu eta esaten dizuna jada ez zaitut maite.

Lanpara itzali, eta ahoz gora geratu naiz

Emilyren arima gazte hotzean pentsatzen.

Non hasten da federik eza?

Gazte nintzenean

baziren ziurtasun mailak.

Esan nezakeen: bai, badakit bi esku ditudala.

Gero egun batez esnatu nintzen planeta batean non eskuak desagertzen

baitzaizkio tarteka jendeari.

Aldameneko gelatik entzuten dut ama mugitzen, hasperen egiten
eta berriro

lotarako bidean jartzen.

Leihotik hara ilargia ez da kartilago zilarkara puska hotz bat besterik,

zeruan lausotuz doazen hodei-multzo artean sartua.

Ilunpean dute ostatu gure gonbidatuek, murmurikatu nuen,

ziega barrura begira...

ZU

Haren bakardadeari buruzko afera geratzen zait oraindik.
Eta nahiago dut geroratu.
Goiza da.

Argi liluratu bat ari da hedatzen otalurrean iparretik ekialdera.
Argi horretan sartuta noa.
Jainkoa tartean jartzea da bakardadea saihesteko modu bat.

Emilyk gisa horretako harreman bat zuen berak Zu deritzon norbaitekin.
Haren deskripzioaren arabera, Zu-k esna ematen du gau osoa,
 Emilyk berak bezala,
eta aparteko boterez beterik dago.

Zuk Emily gorteatzen du gaueko haizeak dakarren ahots batez.
Zuk eta Emilyk elkar baldintzatzen dute iluntasunean,
aldi berean hurbil eta urrun egotera jostatuz.

«Bat eta bera ginela frogatzen zuen» samurtasun batez mintzo da Emily.
Egonezina sortzen dit emakumezkoen esperientzia erlijiosoaren
 konpentsazio-ereduak, eta halere,
ez da dudarik

atsegina litzatekeela adiskide bat izatea hari gauean kontuak esateko
sexuaren ordainsari negargarria pagatu beharrik gabe.
Umekeria da burutapen hau, badakit.

Nire heziketak, onar dezadan, hutsune ugari izan du.
Gizon-emakumeen arteko harremanen oinarritzko arauak
atmosferikoki irakasten ziren gure familian,

debekatua zegoen zuzenean aipatzea.
Gogoan dut autoaren atzeko eserlekuan nengoen igande bat.
Aita aurrekoan.

Etxeko sarbidean ginen amaren zain,
eta hura hegaleko kantoitik azaldu
eta kopilotuaren atetik sartu zen

soinean Chanel traje hori bat eta takoi altuko oinetako beltzak jantzita.
Aitak zehar-begiratu bota zion.

Zango puska ederra daramazu gaur agerian, ama, esan zion,

niri (hamaika urte) arraroa egin zitzaidan ahots batez.

Amaren buru atzeari begira geratu nintzen, hark zer esango zain.

Haren erantzunak argituko zidan guztia.

Baina barre besterik ez zuen egin, osoro sokaz inguraturiko
barre bitxi bat.

Uda hartan, aurrerago, barre hura alderatu nuen

eskaileretan gora nindoala entzundako beste barre batekin.

Telefonoz ari zen ama sukaldean.

Tira, emakume bat gehienetan zoriontsu askoa izan daiteke

masailean emandako musu batekin, baina BADAIZU GIZONAK

NOLAKOAK DIREN,

zioen. Barre.

Sokak ez, arantzak.

Iritsi naiz otalurraren erdi parera,

lurra sakon zingiratsu batera beheratzen den gunera.

Zingirako ura erabat hormaturik dago.

Belar-izpi urrekara zenbait

irarri dira

izotzaren azpialdean, mezuak iduri.

Etorriko naiz zaudenean tristenik,
gela ilunean ohean bakarrik,
aienatu denean egunaren bozkario zoroa
eta desagertu poz irriñoa.

Etorriko naiz nagusitzean osotara
bihotzaren egiazko bulkada,
eta, zugar dudan eraginaz jabetuz,
nahigabea sakonduz, poza gatzatuz,
eraman egingo dut zure arima.

Entzun! Hauxe duzu ordua,
 hauxe zure ordu larria:
 Ez al duzu sentitzen ariman ezarria
 zirrara-uhar arrotz baten emaria,
 botere zorrotzago baten aitzindari,
 nire mezulari?

Ez dira irakurtzeko batere samurrak
 Zu-ren eta Emilyren arteko mezuak.
 Rolak alderantzikatu ditu poema horretan,

mintzatuz ez biktima gisa baizik biktimari.
 Ileak lazten ditu ikusteak Zu hurrantzen zu-rengana
 hura gelako ilunpean bakarrik dagoela, azpiratua izateko zain.

Zirrara eragiten du jabetzeak ezen nagusi-biktimak
 ahots bakarrera ekartze sor eta mantso hori
 zuribidea dela

poeta-jardunaren bakardade ikaragarriko.
 Alderantzikatu egin ditu Emilyk zu-ren eta Zu-ren rolak,
 ez indar erakustaldi gisa,

ezpada bere burua behartzeko erruki apur bat izatera
 kristalpean harrapaturiko arima hartaz,
 bere egiazko kreaioa denaz.

Bakardade-gau haien jarraipena da
 egunsenti hotz eta sukartsu hau.
 Horratx zer naizen.

Suminerako jaidura ote da?
 Zergatik interpretatu isiltasuna
 Presentzia Erreal⁶ berbera balitz bezala?

[6] Zenbait kristau-sinesbideren arabera, Jesu Kristo presente dago eukaristian, ez modu sinboliko edo metaforikoan, ezpada modu gorpuztu benazkoan. Horri deritzo “presentzia erreal”ren doktrina.

Zergatik makurtu atalase horri muin ematera?
Zergatik egon desorekatua eta lur jota, eta ilauntzen joan
imajinatuz itzelezko izaki bat, harengan hustu ahal izateko
nire arimaren sagailoa?

Emilyk asko maite zuen 130. salmoa:
«Nire arima Zure esperoan dago, areago gau-zaindaria goizaren
esperoan baino,
bai, areago gau-zaindaria goizaren esperoan baino».

Pentsatu nahi dut behatze-jardunak babesa eskaintzen ziola,
Zu-rekin elkar-hartzeak arindu egiten zizkiola sumina eta desira:
«Zugan dira iraungitzen, elorri-su bat nola», dio salmogileak.

Niri dagokidanez, ez dut uste hala denik, ez zait itzali sua;
Zu-rekin ala Zu gabe, ez dut babesik aurkitzen.
Neu naiz neure Biluzia.

Eta patu sexual korapilatsua dute Biluziek.
Bistakoa egin izan zait patu hori
kolpez iragatzen neskatik emakumera eta gaur naizen honetara,

maitasunetik suminera eta oraingo muin hotz honetara,
sutatik babesera eta berriro sutara.
Zer da Zu-rengan sinestearen kontrakoa,

Zu-rengan ez sinestea soilik? Ez. Sinpleegia da hori.
Gaizki-ulertu bat eragitea da hori.
Garbiago hitz egin nahi dut.

Agian Biluziak dira modurik onena.
5. Biluzia. Karta-sorta bat.
Karta bakoitza haragiz egina dago.

Joko honetako kartak emakume baten bizitzako egunak dira.
Zilarrezko orratz handi bat ikusten dut sorta alderik alde zulatzen,
distiratsu.

6. Biluziaz ez naiz oroitzen.

7. Biluzia. Gela zuri bat, zeinaren hormak,
ez plano, ez kurba eta ez angelurik gabeak,
osatzen baititu mintz zuri satinatu eta jarraitu batek,

dirudienak ilargiaren barne-organoren baten mamia.
Bizirik dagoen gainazala da, hezea ia.
Argitasuna barreiatzen da barru eta kanpo.

Ostadarrek dar-dar dagite argitasun horretan.
Eta gelako hormen inguruan ahots bat dabil murmurika:
Kontu handiz ibili! Kontu handiz ibili!

8. Biluzia. Disko beltz bat, non haize guztien suak
elkarri loturik baitaude ilaran.
Disko gainean emakume bat dago

haizeen erdian, eta zetazko gar luze beilegiak
kulunkan dantzatzen dira emakumea iragatean.

9. Biluzia. Tupa-lur gardena.

Tupa-lur azpian zanga luze eta sakon bat hondeatu du emakume batek.
Irudi zuri txiki batzuk uzten ari da zangan, ez dakit zer diren.

10. Biluzia. Munduaren arantza berde bat bizirik

ernatzen ahoz gora lurrean datzan
emakume baten bihotza zeharkatuz.
Arantzak bihotzeko odol berdea airera

jaurtiarazten du emakumearen gainetik.
Den guztia badauka, dio ahotsak.

11. Biluzia. Plataforma bat kanpo-espazioan.

Beltz urdinkara da espazioa, ur solidoa bezain distiratsua,
eta oso bizkor mugitzen da norabide guztietan,
txilioka igaroz emakumearen aurretik, zeina haren presio hutsez

baitago iltzatua ezerezari.

Emakumea miaka dabil ihesbide baten bila, eskua jaso nahi eta ezinean.

12. Biluzia. Zutoin zahar bat haizetan.

Korronte hotzek jotzen dute
eta zerrenda beltz luze eta horizontaletan
zarratatzen dituzte

hari estekaturiko
zinten piltzarrak.
Ez dut ikusten nola dauden estekaturik:

hozka? grapaz? iltzez? Haizea aldatu da tupustean
eta piltzar beltz guztiak gorantz airatu dira
eta bata bestearekin korapilatu,

ondoren askatu eta astiro erortzeko.
Baretu da haizea.
Zain dago.

Garai hartan, neguaren erdi aldera,
erabat harrapatua nindukan neure melodrama espiritualak.
Gero amaitu egin zen hori.

Egunak pasatu ziren, pasatu ziren hilabeteak eta ez nuen deus ere
ikusten.

Miaka eta beha jarraitu nuen, sofa aurreko alfonbran eserita
goiz errezelgabean,

zainak agerian, izaki larrutu baten antzera.
Ez nuen deus ere ikusten.
Leihoaz hara udaberriko ekaitzak etorri eta joan ziren.

Apirileko elurrak bere erpe zuri handiak ezarri zituen ate eta gorape
gainetan.

Bloke bat ikusi nuen teilatu ertzean azaltzen, askatzen
eta erortzen, eta pentsatu nuen

Zeinen geldil!, zaratarik gabe lerratzen zelarik,
baina hala ere... ezer ez. Ez biluzirik.
Ez Zu-rik.

Izotz-burruntzi handi bat eratu zen nire balkoiko barandan,
eta leihora hurbilduta saiatu nintzen izotz-burruntzian zehar begiratzen,
neure burua barne-ikuspenen batekin engainatzeko itxaropenez,

baina pareko etxeko gizona eta emakumea
besterik ez nituen ikusi
gelan ohea egiten eta barrez.

Utzi nion behatzeari.
Ahaztu nintzen Biluziez.
Neure bizitzarekin jarraitu nuen,

eta telebista itzali baten parekoa iruditzen zitzaidan.
Zerbaitek zeharkatu ninduen eta kanpora irten zen gero,
eta ezin nuen onartu.
«Alferrik dardararaziko dute orain izotz beltzak eta haize gorriak.

Emilyk ez ditu sentitzen dagoeneko»,
idatzi zuen Charlottek ahizpa ehortzi eta biharamunean.
Emily askatu egin zen.

Arima batek egin dezake hori.
Zu-rekin elkartzera joana ote den, gorapean eseri eta eternitate osoan
gozatzeraz txantxa, musu eta udaberri-arrats hotz ederrez,

hori ez zuk ez nik ez dugu sekula jakingo. Baina kontatzen ahal dizut
ikusitua.
Jada beha ez nengoelarik iritsi zen 13. Biluzia.
Gauetz etorri zen.

1. Biluziaren oso antzekoa.
Eta, halere, guztiz ezberdina.
Muino garai bat ikusi nuen, eta gailurrean irudi bat, haize gogorrek
itxuratua.

Izan zitekeen zutoin soil bat, trapu zahar bat lotua zuena,
baina gerturatu ahala
ohartu nintzen giza gorputz bat zela

eginahalean zutik eutsiz haize hain bortitzen kontra, non haragia
libratzen baitzitzaion hezurretatik.

Eta ez zegoen oinazerik.

Haizea

hezurrak garbitzen ari zen.

Han azaldu ziren, zilarkara eta nahitaezko.

Ez zen nire gorputza, ez zen emakume batena ere, gu guztion
gorputza zen.

Oinez atera zen argitik.

Ordu eta erdiko hitzordua

Amrita PRITAM¹

Euskaratzailea: Aiora ENPARANTZA ARMENTIA

[1] Amrita Pritam Indiako idazlea izan zen, XX. mendean punjaberaz idatzi zuen lehen emakume eleberrigile eta poeta. Sei hamarkada baino gehiago iraun zuen bere ibilbideak, ehun pieza baino gehiagoren egile izan zen, besteak beste, poesia, eleberria, saiakera eta biografia landu zituen. Idatzitakoei esker hainbat sari irabazi zituen, hala nola, «Sahitya Akademi», «Bharatiya Jnanpith» eta «Padma Vibhushan» sariak. Are, bere eleberrri ospetsuena, *Pinjar*, izen bereko pelikula batera egokitu zen.

AN HOUR AND A HALF LONG MEETING

Amrita PRITAM (Suresh Kohlik itzulia)

An hour and a half long meeting
Like a patch of cloud
Stiched to the sun
Did I my best to remove
But in vain; nothing emerged.
Who has stiched this patch
On the sun's red, red shirt?

An hour and a half long meeting
Like a sentry stands at the crossroads
Today. And the inflow of thoughts, my thoughts
He stops with a mere sign of his hand.
God knows what I whispered and
God knows what he heard...

An hour and a half long meeting.
I think like an adivasi woman
That I should light up a chilam and
Smoke the tobacco of one and a half hour
In one puff, mixed with fire.
Before my senses relinquish
And turn towards a wrong route,
Before the sun bursts
While struggling to pull off the clouds,
Before the memories of a meeting
Turn into an idea of hatred...

ORDU ETA ERDIKO HITZORDUA

Amrita PRITAM

Euskaratzailea: Aiora ENPARANTZA ARMENTIA

Ordu eta erdiko hitzordua
Hodei adabaki bat
Eguzkiari josia bezala
Ahal nuena egin nuen kentzeko
Alferrik; ez zen ezer atera.
Nork josi dio adabakia
Eguzkiaren alkandora gorri-gorriari?

Ordu eta erdiko hitzordua
Zentinelak bat bidegurutzean egonean bezala
Gaur. Eta ideia-jarioak, nire ideiak
Geldiarazi ditu esku-keinu soilaz.
Batek daki zer xuxurlatu nuen nik eta
Batek daki zer entzun zuen hark...

Ordu eta erdiko hitzordua.
Emakume *adivasia* izanik
Uste dut *chilam* bat piztu
Eta ordu eta erdirako tabakoa suarekin nahastuta
Erre beharko nukeela, arnas hartze bakarrean.
Nire zentzumenek amore eman
Eta okerreko bidetik sartu aurretik,
Hodeiak kendu nahian
Eguzkia lehertu aurretik,
Hitzordu bateko oroitzapenak
Gorroto bihurtu aurretik...

One and a half hour's smoke
Which the air and myself in proportions may inhale,
Before its thought comes to your or my lips,
Before your or my ears refuse
To listen to it,
Before the fair sex brings humiliation to men,
Before man causes humiliation to women,
Before this, before that.

Ordu eta erdiko kea
Aireak eta nik neuk ere tamainan arnas genezakeena,
Ideia hori zure edo nire ezpainetara iritsi aurretik,
Zure edo nire belarriek
Entzungor egin aurretik,
Sexu ahulak gizonak umiliatu aurretik.
Gizonek emakumeak umiliarazi aurretik.
Hau eta bestearen aurretik.



IDAZLANAK AURKEZTEKO
JARRAIBIDEAK

Idazlanak aurkezteko jarraibideak

Egan aldizkari seihilabetekaria da. Aldizkariaren aro berriko xede nagusia literatura arloko ikerketa-artikuluak argitaratzea da. Sail horretan aldizkariak leku egin nahi die saiakera eiteko idazlanei eta baita ikerketa materialak (erreferentziazko edota gai zehatz baten inguruko bibliografiak, corpus argitaragabeak...) direnei ere. Orobat argitara emango dira literaturaz diharduten liburuen aipamenak. Beste diziplina bati atxikiak izan arren, literaturarekin ageriko lotura izan dezaketen lanak ere aintzat hartuko dira.

Literatura azterketen lerroa ez ezik sorkuntzarena ere zabalik du *Eganek*, eta poesia, narrazio laburrak eta itzulpenak biltzen ditu, aldizkariaren ibilbideari jarraituz.

Jatorrizko idazlanak aurkezteko jarraibide hauek irakurgai daude Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko **bascongada.eus** webgunean ere, argitalpenen sailean.

1. Jarraibide orokorrak

- Idazlan argitaragabeak onartuko dira.
- Jatorrizkoak Internet bidez bidali behar dira, Word edo LibreOffice formatuan, helbide elektronikoa honetara: **egan.bascongada@gmail.com**.
- Ikerketa-artikuluak eta saiakera saileko lanak argitaratzeko, Erredakzio Kontseiluak bi kanpo-ebaluatzailearen iritzia jasoko du; gainerako idazlanek ez dute kanpo-ebaluaziorik izango. Artikuluaren testua anonimoa izango da. Egilearen datuak artikuluaren aparteko orrialde batean adieraziko dira: izen-abizenak, filiazioa (unibertsitatea, erakundea...), helbidea, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa.

- Urteko lehen alean argitaratzeko, jatorrizkoak martxoaren amaiera arte bidal daitezke eta bigarren alerako, irailaren 15a arte.
- Testuak euskara batuan idatzita eta ondoren zehazten diren arauetara egokituta bidaliko dira.

2. Artikuluaren egitura eta formatua

2.1. Egitura

Testua ikerketa-artikuluaren ohiko atalez osatua egotea gomendatzen da: sarrera (artikuluaren gaia, helburuak eta metodologia zehaztuz), artikulatuaren erdiko atalak, ondorioak eta, amaitzeko, bibliografia eta eranskinak.

2.2. Formatu orokorra

- **Izenburua:** Times New Roman 14, letra xehe lodian, erdian lerrotatua. Azpian, letra mota berean, ingelesez idatziko da.
- **Laburpena** eta **gako-hitzak:** izenburuak Times New Roman 12, letra xehe lodian, ezkerrean lerrotatuak. Laburpenaren testua paragrafo bakarrean, eta ingelesez ere idatziko da. Gako-hitzak ere euskaraz eta ingelesez adieraziko dira, eta gehienez ere bost idatziko dira.
- **Testua:** Times New Roman 12, justifikatua, lerroarte bakuna. Paragrafoaren hasieran 1,25 cm-ko koska utziko da, eta paragrafotik paragrafora lerro zuri bat.
- **Atalak.** Maila hauek bereiziko dira: 1. Lehen maila (12, letra xehe lodia); 1.1. Bigarren maila (12, letra xehe lodia); 1.1.1. Hirugarren maila (12, letra lodi etzana). Guztiak ezkerrean lerrotatuta joango dira eta amaieran punturik gabe.
- **Ortotipografia**
 - Komatxo moten mailaketa: “xxx «xxx» xxx” . Komatxo bakunak (‘ ’) hitz bakanen adiera edo itzulpenak emateko erabiliko dira.
 - Puntua beti ixteko komatxoaren ondoren idatziko da: “esan zuen”.

- Letra etzanez joango dira beste hizkuntza batean idatzitako hitz solteak, metalinguistikoki erabilitako terminoak, liburuen izenburuak eta aldizkarien edo egunkarien izenak. Halaber, letra etzanez idatziko dira izen-abizenen ondoan aipatzen diren goitzenak: Juan Jose Alkain, *Udarregi*; bakarrik doazenean, letra arruntez.
- Etzanean edo komatxo artean diren hitzen ondoko deklinabide-atzizkia marratxorik gabe idatziko da: *Eganen*.
- Siglak: maiuskula txikian.

2.3. Aipuak

- Lau lerro baino laburragoak “komatxo” artean testuan bertan jasoko dira. Aipu luzeak aparteko pasartean idatziko dira, testuko letra-tamaina berean, 2 cm-ko koskarekin lerro guztietan eta komatxorik gabe. Aipuaren aurretik eta ondoren tarteko lerro zuri bat utziko da.
 - **Bertsoa** denean 2 cm-ko koskarekin sartuko da, baina “komatxo” artean. Bertsoen edo olerkien hitzak lerro betean idazten direnean, bertso-lerroak bereizteko zehar-marra erabiliko da eta alde banatan zuriunea utziko da: xxx / xxx.
 - Salbuespen gisa bestelako jokabideak ere onar daitezke, testuaren segidak edo bestelako arrazoiek hala eskatzen badute.
- **Aipu barruko idazketa**
 - Aipuaren barruko paragrafo artean lerro zuririk ez sartu.
 - Idatzi gabe utzi den testu zatia kako zuzenen artean hiru eten-puntu jarrita adieraziko da.
 - Jatorrizko testuan ez dauden hitzak eransteako kako zuzenak erabiliko dira.
 - Egileak nabarmendu nahi dituen hitzak letra etzanez jarriko dira.
 - Oin-oharretako aipu luzeak koskarik gabe eta komatxo artean idatziko dira.

- Aipuaren amaierako puntua erreferentziaren ondoren ipiniko da.
- *Azpirarra gurea, itzulpena gurea* moduko oharrak erreferentzia bibliografikoaren ondoren idatziko dira: (Biasi, 1998. Itzulpena gurea).

2.4. Oin-oharrak

- Oharren deia zenbakien bidez egingo da, eta zenbakia puntuazio-markaren aurretik joango da.
- Orri-oinetan agertuko dira, eta ez testuaren bukaeran. Orri-oinetan letra-tamaina: 10.

2.5. Erreferentzia bibliografikoak

APA arauak jarraituko dira erreferentzia bibliografikoetarako. Oinarrizko arauak azaltzen dira hemen. Xehetasun gehiago behar izanez gero, ikus:

https://www.ehu.es/documents/2293351/2391784/normas_apatfg.pdf

2.5.1. Testu barruko erreferentzia bibliografikoak

- Autorea-urtea sisteman antolatuko da, modu honetan: (San Martin, 2001, 195-196. or.).
- Autore ezberdinen aipamenak puntu eta komaz bereiziko dira: (Grésillon, 1990; Hay, 2002). Autore bakar baten lanak aipatzean, komaz banatuko dira: (Irigarai, 1953, 1954).
- Autorearen izena diskurtsoaren parte bada, aski da argitalpen urtea eta orriak adieraztea.
- Orrialde zenbakiak osorik idatziko dira: 316-319 (eta ez 316-9).
- Jarraikoak ez badira, komaz bereiziko dira: 5, 16.
- Liburukiak dataren ondotik jarriko dira, koma batez bereiziz: (Vinson, 1983, I, 5-46. or.).

2.5.2. Bibliografia

- Atal honetan zerrendatuko dira testuan zehar erabili diren erreferentzia guztiak, eta ez besterik, **Bibliografia** izenburupean: Times New Roman 12, letra xehe lodian, ezkerrean lerrotatua.
- Sarrerren artean lerro zuririk ez, baina bigarren lerrotik aurrera 1 cm-ko koskarekin.
- Hurrenkera alfabetikoan antolatuko da. Autore batek lan bat baino gehiago duenean, sarrera bakoitzean errepikatuko da bere izena. Autore baten lanak kronologikoki zerrendatuko dira, eta urte bereko argitalpen bat baino gehiago aipatzen bada, letrak ezarriko dira urtearen jarraian: 1981a, 1981b... Beste autore batekin edo batzuekin egindako lanak bakarka egindakoaren ondoren joango dira, alfabetikoki eta kronologikoki zerrendatuak.
- Deitura(k) letra xehean, hasierakoa(k) salbu. Izenaren iniziala. Autore bat baino gehiago dagoenean komaz bereiziko dira, eta azken autorearen aurretik “&” zeinua jarriko da: Deitura, I., Deitura, I. & Deitura, I. Hiru autoretik gora “et al.” laburdura erabil daiteke, letra arruntez.
- **Liburuak**

Deitura, Izenaren iniziala. (Argitalpen urtea). *Izenburua*. Argitaralekua: Argitaletxea.

Artze, J. (2013). *Bizitzaren atea dukegu heriotza*. Donostia: Elkar.

- Sailak eta bildumak argitaletxearen ondotik idatziko dira, koma batez bereiziz:

Kardaberaz, A.^{JS} (2004) [1761]. *Eusqueraren berri onac*. Bilbo: Euskaltzaindia, Euskararen lekukoak 23.

- Informazio gehigarria erantsi nahi denean, amaieran idatziko da kako zuzenen artean:

Bourdieu, P. (1992). *Les règles de l'art. Genèse et structure du champ littéraire*. Paris: Seuil. [Gazt. ed., Kauf, T. (1995). *Las reglas del arte. Génesis y estructura del campo literario*. Bartzelona: Anagrama].

- **Liburuetako kapituluak**

Deitura, Izenaren iniziala. (Argitalpen urtea). Kapituluaren izenburua. In Argitaratzailearen izenaren iniziala. Deitura (arg.), *Liburuaren izenburua* (xx-xx. or.). Argitaralekua: Argitaletxea.

Mitxelena, K. (1981). Euskal literaturaren bereizgarri oro-korrak. In A. Tovar et al. (arg.), *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak* (259-278. or.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

- Izenbururik gabeko sarrerek edo hitzaurreak kako zuzenen artean adieraziko dira:

Mujika, L. M. (1979). [Hitzaurrea]. In J. M. Lekuona (arg.), *Ilargiaren eskolan* (7-14. or.). Donostia: Erein.

- **Artikuluak**

Deitura, Izenaren iniziala. (Argitalpen urtea). Artikuluaren izenburua. *Aldizkariaren izena, zenbakia, orrialdea-orrialdea.*

Etxeberría, G. (2001). Euskal kultura eta literatura 50eko hamarkadan. *Egan*, 3/4, 5-8.
<<http://www.liburuklik.euskadi.eus/jspui/handle/10771/28548>>

- **Egunkariak**

Egunkari baten data osoa eman behar denean, egilearen atzetik urtea bakarrik idatziko da eta data osoa egunkariaren izenaren ondotik:

Sarasola, I. (2016). Gabriel Arestiren *Harri eta Herri*-tik desagerturiko bi poema. *Berria* 2016-02-23.

- **Argitalpen elektronikoak** < > artean: <<http://journals.openedition.org/lapurdim/1211>>.
- Argitalpenari **doi** identifikatzailea (*Digital Object Identifier*) esleitu bazaio, urla ordezkaten du: doi: xx.xxxx

3. Artikuluen ebaluazioa

Ikerketa-artikuluak argitaratzeko, binakako ebaluazio sistema (itsu bikoitza) erabiliko da, zehazten den prozedura jarraituz. Jatorrizko artikulua jaso ondoren, lehenik Erredakzio Kontseiluak aztertuko du, eba-

luatzeko onartzen edo baztertzen den erabakitzeko. Artikulua aldizkariak ezarritako arauetara egokitu ez bada, atzera bota dezake Erredakzio Kontseiluak. Hala gertatuz gero, artikulua egileari itzuliko zaio moldaketak egin ditzan. Edozein kasutan, behin jatorrizkoa jasota, egileak astebeteko epean erabakiaren jakinarazpena jasoko du.

Artikulua ebaluatzeko onartzen bada, bi kanpo-ebaluatzailei bidaliko zaie azter dezaten. Haiek hilabete izango dute artikulua onartu, baldintzapean onartu edo baztertu erabakitzeko. Ebaluatzaileen iruzkin eta iradokizunak egileari itzuliko zaizkio eta hamabost eguneko epea izango du testu zuzendua bidaltzeko.

Argitaratu aurretik, egileak lanaren testu maketatua jasoko du eta astebeteko epea izango du egon daitezkeen akatsen berri eman dezan. Egileak zuzenketak bidali ezean, testua ontzat eman duela ulertuko da, edo aldizkariko arduradunak egingo ditu zuzenketak, horien gainean inolako erantzukizunik izan gabe.

Argitalpenaren ondotik, egileei aldizkariaren ale bana eta haren pdfa ere emango zaizkie.

